

Edgar Alan Poe

Kontakizunak

euskaratzailea: Koro Navarro

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Koro Navarro.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 2000

Jatorrizkoaren data: 1832-1849

Edgar Alan Poe euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=249>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1387>

HITZAURREA

Edgar Allan Poe: bizitza eta obra

Edgar Allan Poe Bostonen jaio zen, 1809an, eta Baltimoren hil zen, 1849an. Misteriozko eta beldurrezko lanek eman zioten ospea: «The Raven» («Belea») poemak, eta «Ligeia» eta «The Murders in the Rue Morgue» («Rue Morgueko hilketak») kontakizunak, adibidez, oso fama handia izan zuten, gaur egun ere bizirik diraena. Idazle gutxi dago literaturaren historian Poek adinako interpretazio eta hipotesi sorrarazi duenik. Idazle gutxik liluratu dituzte Poek bezala belaunaldiz belaunaldi irakurleak eta mitomanoak. Pertsonak berak ere, baita obratik aparte ere, interes bizia sorrarazi du.

Antzezleen semea zen Poe. Ama zen, izan, antzezle, eta arrakasta handia izaten zuen bere lanetan; aitak ez zuen antzerkirako batere balio, eta edaten hasi zen. Alkoholak markatuko zituen bikotearen hiru seme-alabak: William, zaharrena, gazterik hil zen, tuberkulosi alkoholikoz; bigarrena, Edgar, idazlea, *delirium tremenseko*

krisi batek jota hil zen, eta alaba gazteena, Rosalie, adimen urrikoa zen. Edgarrek bi urte zituela, etxetik alde egin zuen aitak. Ama, haurdun eta gaixorik, hegoaldera joan zen, han sustraituagoa baitzegoen antzerkia. Hogeita lau urterekin hil zen, Edgarrek lau urte ere bete gabe. Amaren eritasunak eta heriotzak arrasto sakona utzi bide zuten Poeren memorian.

Umeak familia banatan geratu ziren. Allan senar-emazteek hartu zuten Edgar. Eskoziar jatorriko familia aberatsa zen, presbiterianismo zorrotzekoa. 1812an Allan jauna Londresa joan zen, eta berarekin eraman zituen emaztea eta haurra. Lau urte eman zituzten han, barnetegietan Edgarrek. Han, alde batetik, asko ikasi zuen —«frantsesa, historia, latina eta literatura asko»—, baina, bestetik, kalte handia egin zion Ingalaterrako egonaldiak, aldaketak ekarri zion bakardade eta noraezagatik, hegoaldeko paisaje eguzkitsuetatik atera eta «ingeles herri goibeltso» batean utzi baitzuten, bakarrik, iparreko lainoetan, zaharinen artean. Hango eraikinak agertuko ziren hogeitau urte geroago «William Wilson» kontakizunean, eta orobat da hangoa libu-

ru honetako Usher Etxeko dekoratua, ipuin gehientsuenetako bera: etxe zahar izugarri handia, lainoetan galdua, horma-altua, ate-astuna, ziegez beteak diruditen sotoak dituen, eta inoiz bertan bizi izan ziren hilen arrastoak nonahi igartzzen zaizkiona. Dekoratu erromantiko hori ez da bakarrik literatura gotikoaren oroitzapena; era berean da idazlearen haurtzaroko bizikizun latzen emaitza.

1820ko udan itzuli ziren Allandarrak Richmondera. Edgar, hamaika urterekin, haur ikarria, isila, goibela zen, eta, bere heroi guztiak bezalaxe, bere baitan itxi zen. 1823 eta 1824 artean, Byronen lana eredu hartuta, ondu zituen lehen poemak. 1826an Virginiako Unibertsitatean sartu zen, filologia klasikoa eta modernoa ikastera. Baina, ikaskideekin batera, edanean eta jokoan hasi zen. Izan ere, edariak ekarrikotuz Poeri hondamendia: taldean ondo hitz egiteko bizkorgarriren bat behar izaten zuen, baina kopa bat jerez hartzea sekulako mozkorraldi baten hasiera gertatzen zitzaion; eta gutxitan iristen bazen ere intoxikaziora, eskandalu izugarriak sortu zituen behin baino gehiagotan. Esan

izan da drogazalea ere bazela, baina ez dirudi egia denik. Nolanahi dela ere, zor handiak egin zituen unibertsitatean; aitaordeak ez zituen ordaindu nahi izan, eta 1827an gurasoen etxetik alde egin zuen Edgarrek, Bostongo hirira. Urte haietan idatzitako poema batzuk besterik ez zuen hartu bidairako, laster argitaratuko zituenak: *Poems. Tamerlane and Other Poems* (1827, *Tamerlan eta beste poema batzuk*). Poek berak idatzitako ohar biografiko batzuen arabera, sekulako abenturak bizi izan zituen garai hartan, askatasunaren aldeko borrokan, Grezian, Errusian, Siberian... Gezurra zen dena. Soldadu joan zen, eta hegoaldeko hainbat gotorlekutan ibili ondoren, West Point-eko Akademia Militarrean sartu zen. Gogokoa zuen hango diziplina, hantxe aurkitu zuen behar-beharrezko zuen bizitza ordenatua. Bere izaera zakarrak ordea berehala sortu zizkion arazoak agintariekin. Azkenean bota egin zuten eskola militarretik, eta gurasoengana itzultzeko saiatu zen. Ez zuten onartu ordea, eta izeba batengana joan zen: Maria Clemm, beti zainduko zuen emakume eraman

onekoa, Poeren emazte maitea izango zen Virginiaren ama, bere ama.

1833rako argitaratuak zituen hiru poema liburu, baina, ez baitzuten arrakastarik izan, hitz lauz hasi zen idazten. *Baltimore Saturday Visitor* egunkariak ipuin lehiaketa batean ehun dolarreko saria eskaintzen zuela-eta, Poek sei kontaktizun bidali zituen. «MS. Found in a Bottle» («Botila batean aurkitutako eskuizkribua») kontakizunak irabazi zuen lehiaketa (1833). Adiskide batek eskatuta, *Southern Literary Messenger* aldizkariko zuzendaritza hartu zuen: eginahalean, hamazazpi aleko argitaraldia hamabost milaraino igotzea lortu zuen. Bizitza berri bat hasteko gogoia zuen, aldizkariko lanak segurtasuna eskaintzen zion, zoriontsua zela zioen. Bere lehengusu Virginia Clemmekin ezkondu zen: urtebeteren buruan hilko zen hamahiru urteko emakume-haurra, Mariaren alaba. Ezkondu eta hilabete gutxiren ondoren ordea, guztiz bat-batean, ondoezik larrienak jota zegoen poeta: «(...) alferrik borrokatu naiz malenkoniaren kontra. Zorigaitzak jota nago, eta ez dakit zergatik». Opioa eta alkohola hartzen zituen bere egonezi-

na sendatzeko. Neurrigabe edaten hasi zen, eta zenbait egunez desagertzen zen, taberna zulo miserableenetan. Krisiak gero eta gogorragoak ziren. Hainbat aldizkaritako zuzendari izan zen, eta modu berean errepikatzen ziren beti gertae-rak: gau eta egun lan eginez, bere ardurapean zituen aldizkarien argitaraldiak biderkatu ondo-ren, arrakasta eta dirua lorturik, bat-batean depresiozko krisiak jotzen zuen, eta lur jota geratzen zen. Virginiaren heriotzaz gero, are larriagotu ziren krisi haiek. Bazekien edariak izu-garrizko kaltea egiten ziola, baina ezin zuen utzi. Berrogei urte zituela hil zen, Baltimoren, *Delirium tremense*ko krisi batek jota, bakarrik, esti-matzen zutenek ezer ez zekitela, bere ipuineta-ko pertsonaiei deika. «Jainkoak lagun dakiola nire arima gaixoari» izan omen ziren Edgar Poe gizarajoaren azken hitzak. Bestelakorik esan da ordea. Izan ere, idazlea hil bezain pronto sortu zen elezaharra, sortu ziren elezaharrak, Poeren bizitzak bezala obrak ere eskaintzen dituen gaie-tatik abiatuta: sadismoa, nekrofilia, intzestoa, droga. XX. mendeko psikoanalisiak, esan gabe doa, berebiziko materiala aurkitu du Poerengan,

eta horrek areago zabaldu du idazle madarika-
tuaren izena.

* * *

Edgar Allan Poek poesia, fikzioa eta kritikaren teoria landu zituen. Zenbait kritikariren iritziz (T.S. Elliot, A. Huxley), ezertan ez zuen obra biribilik lortu. Poeren poesiak, oso bakuna baita, oso erritmo markatuko lelo baten efektua eragiten du, eta sentimendu sakon eta primitiboak azaleratzen ditu. Poemen musikaltasuna agerikoa da, baina egileak sarritan belarrira ondoen jotzen duen hitza hautatzen du, ez poemaren zentzuak behar duena. Izan ere, hitzen esanahiek ez zuten Poe bereziki arduratzen, ezta poemaren beraren esanahi orokorrak ere.

Izumenezko eleberria genero herrikoia eta tradizio handikoa da ingeles hizkuntzazko erromantizismoan. Poek leialtasunez jarraitzen dio tradizio horri, topiko guztiei eutsiz, baina osagai berriak txertatu zizkion, eta generoa bikain berriztatu zuen. Lehen begiratuan, klasikoak bezalakoxeak dira Poeren izumenezko ipuinak:

heroia bakar-bakarrak dago gaztelu zahar batean, edo ziega batean itxita dago, edo basoan galduta dabil. Osagai horiek ordea Poek ez ditu deskribatzen: halako lekuetan, egoera horietan egoteak dakarren egonezina eta larritasuna deskribatzen ditu. Izuzko ipuinetan gehiago nabarmentzen da izakia lekua baino, sentsazioa objektua baino. Poek ez du eszenografia bat antolatzen, izumenezko ipuin klasikoetan bezala; aitzitik, gogo egoera iradokitzea da helburua. Irakurketa poliki-poliki hasten da, irakurlea egoeraren dimentsio psikologikoaz jabe dadin; Poeren unibertsoa ez baitago ez benetako munduan ez izadiak gaindikoan: adimenaren mundua da harena, gogoarena, errealitate objektiboaren gainean eraikia. Egileak ez du irakurlea mundu horren existentziaz komentatu nahi: mundu hori sentiarazi nahi dio, kontzientzia guztiz nahasirik duen pertsona baten gogo egoeraren kide egin nahi du. Kontakizun askotan, benetan gertatuak fantasia bitxienekin nahastu zituen. Horren adibide argia da *The Narrative of Arthur Gordon Pym* (1838, *Arthur Gordon Pym-en kontakizuna*), Melvilleren *Moby Dick*en aurrekaritzat hartzen

dena; orobat nahasten ditu fantasia eta errealtatea —fantasia nagusitzen da, jakina— bilduma honetako «Maelström» ederrak. Poeren beste istorio famatu batean, liburu honetan argitaratzen den «Usher Etxearen hondamena» kontakizunean, neurosi kasu bat aztertzen da, oraintsu jakin denez, bere ezagun baten kasua, ez, uste izan den bezala, berea.

Poeren ipuinek eragin handia izan dutela inork ez du auzitan jartzen; areago, literatura genero berri baten sortzailea izan zela ere esaten da, polizia eleberriarena hain justu. Detektibe logikaz betea eta sen handikoa, Sherlock Holmes-engandik hasita detektibe guztien ereduia izango zena, Poek asmatuiko Monsieur Auguste Dupin da, *The Murders in the Rue Morgue* (1841, *Morgue kaleko hilketak*), *The Purloined Letter* (1842, *Gutun ebatsia*), eta hemengo *Marie Rogêt-en misterioa* istorioetako protagonista. Dupin dandy bat da, itxuran nahiz arrazobidean, bere lana dotoretasun matematikoz egiten duena, eta matematikaren logika zehatzaz harilduko dira istorio hauek. Ez dute ordea alderdi makabroa galduko, xehetasun odoltsu higuingarrienak ere

argi deskribaturik agertzen baitira; itxuraz oso bestelakoak diren istorio beldurgarrienak — hemengo *Putzua eta pendulua* edota *Berenizek* adibidez— logikarik hertsienaren garapenean oinarritzen diren bezala.

Asaldagarria izaten da maiz Poeren kontakizunen irakurketa. Egonezinak hartzen baitu irakurlearen irudimena —eta itzultzailearena—, ez plazerrik gabe ordea. Poeren kontakizunek sentikortasunari eragiten diote, haren alderdirik senezkoen eta ezkutuenari. Eta eragin hori negatiboa da, ez baitu ekintzara edo ezer baies-tera bultzatzen; gehienera ere, ezezagunak edo ezagutu daitekeenaren mugak gudan duten indarrari buruzko hausnarketa sorrarazten dute. Hala ere, higikunde erromantikoko bigarren mailako epigonotzat hartu dute adituek Poe; fikziozko lanetan, eleberrigile gotikoen ondorengotzat, eta Byron eta Shelleyren jarraitzailetzat bertsozkoetan. Badirudi hortaz ingeles tradizioan kokatu beharra dagoela, baina, obra ingelesez idatzia badu ere, Poe ez da britainiar idazlea, idazle iparramerikarra da, areago, Estatu Batuetako hegoaldekoa da: badira bere obran errepikatzen diren

gai batzuk, familiako krimen baten obsesioa, izu-garrikeriak, Faulkner, O'Neill edota Tennessee Williams-en lanetan ere agertuko direnak.

Berehala ezagutu eta goretsi zuten atzerrian Poeren izena. Bi frantses poeta izan zituen propaganda egileak: Charles Baudelaire eta Stép-han Mallarmé. Haiek ezagutarazi zuten, ez bakarrik Frantzian eta Europan, baita Estatu Batuetan bertan ere. Poek paper erabakigarria jokatu zuen frantses literaturan: poesian ereduak maisua izan zen, eta gidaria kritikan. Frantses sinbolismoa Poeren *Konposizioaren filosofia* lanean oinarritu zen, haren irudiak baliatu zituen, eta haren adibideak erabili zituzten «poesia huts» delakoaren teoria modernoa sortzeko.

* * *

Bilduma hau osatzen duten kontakizunak ezagunak dira oso. Dauden guztiak dira ezagunak, baina ez daude guztiak, garrantzizkoenetakoz batzuk euskaratuak baitaude. *Amontillado upela* lehendik ere irakur zitezkeen euskaraz, sona handiko idazle-itzultzaileek euskaratua (Jon

Mirandek aurrena, Oskillasok gero), aspaldi samar. Beste bertsio bat izango da beraz hau, modernoagoa bai behintzat, batuagoa. Ordenari dagokionez, kronologia hartu da irizpidetzat. *Marie Rogête*n misterioa ordea, gainerakoak baino askoz luzeagoa baita, eta estiloz oso desberdina —ez da, besteak bezala, izumenezkoa, aldiz, esan den bezala, polizia eleberriaren generoan sartzen da—, azkena utzi da.

Koro Navarro Etxeberria

Berenize

*Dicebant mihi sodales, si
sepulchrum amicae visi-
tarem, curas meas ali-
quantulum fore levatas.*

EBN ZAIAT

Oinazea era askotakoa izaten da. Tankera asko hartzen ditu lur honetan zorigaitzak. Ostadarrak bezala, osorik hartzen du zorigaitzak ere odaiertz zabala, ostadarrarenak bezain ugariak ditu koloreak eta hark bezain desberdinak, baina harexen modura elkarri estu lotuak. Ostadarrak bezala osorik hartzen du zorigaitzak ere odaiertz zabala! Baina nolaz atera dut nik edertasunetik itsustasun mota bat? Nolaz, bakearen itunetik, oinazearen pareko ideia? Baina nola gaitza etikan ongiaren ondorio baita, hala jaiotzen da pozetik ere nahigabea. Edo iraganeko zorionaren oroitzapena gaurko estura da, edo gaur *diren*

agoniek, *izan ahal izan ziren* estasietan dute jatorria...

Egaeus dut bataio izena; abizena ez dut aipatuko. Alabaina, ez dago eskualde honetan nire arbasoen oinetxe ilun grisa baino dorre ohoragarriagorik. Ameslarien arrazakoa dela esan izan dute gure leinuaz; eta xehetasun harrigarri askotan, familiaren etxearen nolakotasunean, egongela nagusiko freskoetan, logeletako tapizetan, armategiko pilare batzuen zizel lanetan, eta, batez ere, antzinako margolanen galerian, liburutegiaren estiloan eta, azkenik, liburutegi horretako edukien bitxikerian, bada uste hori frogatzen duen nahiko lekukotasun.

Gela horrekin lotuak daude nire lehen urteetako oroitzapenak, eta hango liburuekin; liburu horiez ez naiz gehiago mintzatuko. Hantxe hil zen gure ama. Hantxe jaio nintzen ni. Baina alferrik da esatea lehenago ez nintzela bizi izan, ez duela arimak jaiotzaren aurreko izaterik. Ezetz diozue? Ezin hasiko gara orain auzi horri buruzko eztabaidan. Ni arrunt sinetsita nago horretaz, baina ez diot besteri ezer sinetsarazi nahi. Bada, nolana ere, airezko formen oroitzapen bat,

begi espiritual eta esanguratsuena, soinuena, soinu musikal baina tristeena; galduko ez den oroitzapena da, itzala bezalakoa, lausoa, aldakorra, zehazgabea, ziurtasunikgabea, eta itzala bezalakoa, orobat, itzalaz bezala hartaz ere ez bainaiz libratuko nire arrazoiaren argitasunak dirauen artean.

Gela horretan jaio nintzen. Ezereza iduri arren ezereza ez zen gau luzetik bat-batean maitagarrien lurraldean esnatu nintzelarik, irudimezko jauregi batean, monasterioetako pentsamendu eta erudizioaren eremu zabalean, ez da harritzekoa txundituta eta gogo biziz begiratzea neure ingurura, haurtzaroa liburuetan alferrik galdu eta gaztetasuna ameskerietan xahutu izana; baina harritzekoa *da*, urteak joanda, heldutasun beteak nola aurkitu ninduen oraindik ere gurasoen etxean; miragarria *da* nolako etena gertatu zen nire bizi iturrietan, miragarria zenbateraino irauli zen nire pentsamendu arruntaren nolakotasuna. Mundu honetako errealitateek ikuskarien gisara baino ez ninduten hunkitzen; eta ametsen munduko ideia eroak, nire egunero-

ko izatearen gai ez ezik, izatea bera bihurtu zitzaizkidan, izate osoa eta bakarra.

* * *

Berenize eta ni lehengusuak ginen, eta elkarrekin hazi ginen nire gurasoen oinetxean. Baina ez ginen modu berean hazi: ni, osasungabe, eta tristuran murgilduta; arina, graziaz beterik eta energiaz gainezka hura; mendialdeko itzulia zen harena; nireak, klaustroko ikasketak; ni neure bihotzaren baitan bizi nintzen, eta guztiz emana, gorputzez eta arimaz, meditazio sakon eta garratzenetara; bizitzan arduragabe mugituz hura, bidean sortzen zitzaizkion itzalak edo ordu bele-hegodunen ihes isila batere gogoan hartu gabe. Berenize! Haren izena aipatzen dut... Berenize! Eta izenaren soinuarekin, ehunka ernatzen dira memoriaren hondakin ilunetan oroitzapen asaldatuak! Ai, zeinen bizia ageri zaidan orain haren irudia, zorion eta pozezko lehen egun haietan bezalakoa! Oi, edertasun zoragarri eta, hala ere, fantastikoa! Oi, Arnheimgo zuhaixketako silfidea! Oi, iturri haietako naiadea! Eta

gero... misterioa eta izumena da gero dena, eta kontatu behar ez litzatekeen istorioa. Eritasun batek, eritasun hilgarri batek, hartu zuen Berenize, simun haizearen erasoak bezala; eta, begira nengokiola, aldaketaren espirituak astindu zuen, adimenean, ohituretan eta izaeran barneratu zitzaion, eta, modurik sotil eta ikaragarrienean, nortasuna bera ere nahasi zion! Ai! Suntsitzailea joan-etorrian zebilen, eta biktima... non zen biktima? Ez nuen ezagutzen... edo ez nuen jada Berenize bezala ezagutzen.

Nire lehengusuaren izaera moral eta fisikoari halako nahasmendu izugarria eragin zion aurreneko eritasun hilgarri hark beste asko ekarri zituen ondotik. Bere nolakoan denetan penagarriena eta tematuena zena aipatuko dut, epilepsia moduko bat, behin baino gehiagotan *trantzean* amaitzen zena, ia-ia ezereztea zirudien trantzean, eta maiz oneratzeko modua harrigarri gogorra izaten zuena. Bitarte horretan neure gaitza —ezin dudala bestelako izenez deitu esan baitidate—, neure gaitza, bada, ikaragarriko lastertasunaz ari zitzaidan areagotzen, eta, denborarekin, monomania bihurtu zen, forma berria

eta ezohikoa zuena, unetik unera indartzen zena, eta, azkenean, ezin ulertuzko moduan menderatu ninduen. Monomania hori, horrela izendatu behar badut, psikologiaren jakintzak *arreta* deritzan adimenaren tasun horren suminkortasun gaizto bat zen. Litekeena da ez ulertzea; baina beldur naiz, izan ere, irakurle arruntari *interes intentsitate* nerbioso hau adieraziko dion beste modurik ez ote den izango, zeren haren eraginpean, neure kasuan behintzat (teknikoki ez mintzatzeagatik), meditazioaren ahalmenak unibertsoko objektu arruntenean behaketaz arduratzen baitziren, eta bete-betean haie-tan murgiltzen.

Arreta guztia liburu baten ertzeko txikikeriaren batean edo tipografian ipinita ordu luze nekagabeetan hausnarrean aritzea; liluratuta geratzea, udako egun oso batez ia, tapiz bat edo lurra zeharka jotzen zuen itzal bitxi bati so; gau oso batez lanpara baten sugar tenteari edo su baten txingarrari begira-begira egotea; lore baten urrinarekin egunetan eta egunetan amestetan aritzea; hitz arrunten bat beti-bat errepikatzea, harik eta hitzaren soinuak, errepikatzea-

ren errepikatzeaz, adimenari ideiarik batere adierazten ez zion arte; gorputzaren gelditasun erabateko, luze eta tematiaren bidez mugimendu edo izate fisikoaren zentzuak oro galtzea: halakoxeak ziren arrarokeria arrunt batzuk, ez kaltegarrienak, antzekorik izan den arren ezin analiza edo esplika daitekeen adimenaren ahalmenen egoera batek sortuak.

Baina ez nazazue oker ulertu. Berez hutsalak ziren objektuek sorrarazten zuten arreta desegoki, zorrotz eta gaiztoa, ez da nahastu behar, nolakotasunari dagokionez, gizaki orok duen hausnarrerako zaletasunarekin, batez ere irudimen biziko pertsonen duten horrekin. Era berean, ez zen, lehen unean pentsa daitekeen bezala, muturreko egoera bat, zaletasun horren gehiegikeria-edo, aitzitik, funtsean zen berezia eta desberdina. Lehen kasuan, ameslariak, edo zaleak, objektu normalean ez hutsal batek erakarri duelarik, harexek sortutako ondorio edo iradokizunen nahasmenean, pixkana, gogotik baztertzen du oharkabean delako objektua, harik eta, *sarritan atseginkeriez betea* den ameskeria hori amaitzen denean, *incitamentuma*, edo

gogoeten lehen kausa, osorik desagertu edo ahaztu zaiola konturatzen den arte. Nire kasuan, lehen objektua *hutsala* izaten zen *beti*, baina, nire begiratuaren hoztasunaren ondorioz, garrantzi desitxuratua eta irrealia izaten zuen. Dedukzio gutxi egiten nuen, edo batere ez; eta haiek ere setaz itzultzen ziren jatorrizko objektura, beren ardatzera. Hausnarketak ez ziren inoiz izaten, *inoiz* ez, atseginak; eta, ameskeriaren amaieran, lehen kausak, begien bistatik galdu ez ezik, iritsia izaten zuen gaitzaren ezaugarri nagusia zen interes naturaz gaindiko eta gehiegizko hori. Hitz batean, nire kasuan gehien lantzen zen adimenaren ahalmena, lehen esan dudan bezala, *arreta* izaten zen, eta ameslariaren kasuan berriz *espekulazioa*.

Garai hartan irakurtzen nituen liburuak, berez nire nahasmena larriagotzen ez zuten arren, nahasmenaren beraren nolakotasun fantastiko eta lotura gabearen parte ziren, eta ez txikia gainera, ikusiko denez. Ondo gogoan ditud, besteren artean, Coelius Secundus Curio italiar noblearen *De Amplitudine Beati Regni Dei*, San Agustinen *Jainkoaren hiria* lan handia, eta Tertu-

lianoren *De Carne Christi*; azken horretako esaldi paradoxazko batek —*Mortuus est Dei filius; credible est quia ineptum est: et sepultus resurrexit; certum est quia impossibile est*—, osorik hartu zuen nire denbora, ikerketa neketsu eta alferreko aste askoan.

Ikusiko da hortaz nolako antza zuen nire arrazoimenak, hutsalkeriek bere orekatik aterarazten zutelarik, Ptolomeo Hefaistok aipatzen duen itsas harkaitz harena, hura ere, giza bortxaren erasoak gogor erresistitu arren, eta orobat uraren eta haizearen haserrealdi bortitzenak, anbulu zuri deritzan lorearen ukituarekin baino ez baitzen ikaratzen. Eta nahiz eta, pentsalari ardura-gabeari, dudarik gabeko gauza irudituko bide zaion eritasun zoritxarreko haren ondorioz Berenizeren egoera *moralean* sortu zen aldaketak parada ezinhobea eskaintzen zidala esplikatzen saiatu naizen hausnarketa bizi eta ezohiko hori lantzeko, halakorik ordea ez zen batere gertatu. Nire gaixoaldiko tarte argietan, Berenizeren zorigaitzak, izan ere, min ematen zidan, eta, bihotzeraino bainuen sartua haren bizitza gozo eta erosoaren hondamen erabatekoa, iraultza bitxi

hura hain bat-batean gertatu zen modu harrigarriaz gogoetan aritzen nintzen, sarritan eta minutu. Baina gogoeta horiek ez ziren nire gaitzaren nolakotasunari zegozkionak, aitzitik, nirearen antzeko egoeran gizaki arruntari bururatuko zitzaizkiokeen modu berekoak ziren. Nire nahasmenak, bere izaerari leial, Berenizeren egoera *fisikoaren* aldaketa ez garrantzitsu baina bai deigarriak nabarmentzen zituen, haren nortasun pertsonalaren itxuraldaketa bitxi eta asaldagarria.

Bere edertasun paregabearen egun argitsuenetan, ez dut uste Berenize maite izan nuenik. Nire izatearen bitxikeria arraro hartan, nire sentimenduak ez ziren *inoiz izaten* bihotzekoak, eta nire grinak adimenekoak *izaten ziren beti*. Goizean goizeko grisean, basoko eguerdiko itzal korapilatuetan, liburutegiko gau isiltasunean, Berenize igaro, eta nik ez nuen ikusten Berenize bizia, arnasa hartzen zuena, ametsetako Berenize bat baizik; ez lurreko izakia bailitzan, lurrari atxikia, haren abstrakzio baten gisara baizik; ez mirestekoa, baina aztertzekoa; ez objektu maitagarri, aitzitik, espekulazio ulergaitz baina nahasi

baterako gai. Eta *orduan*, orduan, dardarka jartzzen nintzen haren aurrean, eta zurbildu egiten nintzen inguratzen zitzaidanean; hala ere, minaren minez, haren egoera eroria eta tamalgarria deitoratzen nuelarik, gogoan izaten nuen luzarotan maite izan ninduela, eta, une gaizto batean, ezkontzaz mintzatu nintzaion.

Eta azkenean, gure ezteien eguna hurbiltzen ari zenean, halako batean, neguko arratsalde batean —Alzion ederraren inude diren sasoiz kanpoko egun bero, lasai eta lainotsu horietako batean—, liburutegi barneko gelan nengoelarik (eta bakarrik nengoela uste nuen), begiak jaso, eta han ikusi nuen Berenize nire aurrean.

Nire irudimen asaldatua, giro lainotsuaren eragina, gelako argi mehe dardartia, edo haren irudia inguratzen zuten tapiz grisak, zer ote zen halako irudi-lerro dudatsua eta nahasia sortzen zuena? Ezin esan nuen. Ez zuen hitzik esan; eta nik ahaleginak eginda ere ezin nuen silabarik ebaki. Dardar ikara hotz batek korritu zidan gorputza; eraman ezinezko larritasuna gaineratu zitzaidan; jakin-min izugarri bat sartu zitzaidan ariman; eta eserlekuan atzera eginda, arnases-

tuka eta geldi-geldi geratu nintzen denbora
puska batez, begiak Berenizerengan finkaturik.
Ai! Gehiegia zen haren argaltasuna, eta haren
irudiaren lerroetan lehengo izakiaren arrastorik
ez zen sumatzen batere. Berenizeren aurpegira
jo zuen azkenean nire begiratu suharrak.

Bekokia altua zuen, eta oso zurbila, eta bitxi-
ki lasaia; garai batean bel-beltza izan zuen ilea,
partez, bekoki gainean erortzen zen, eta kizkur
ugariek estaltzen zizkion loki sakonak; kizkur
horail biziak ziren ordea haiek, eta beren nolako-
tasun fantastikoan, begitartean nagusitzen
zitzaion malenkoniarekin guztiz ezin adostuzko-
ak. Begiek ez zuten ez bizitasunik ez distirarik,
eta nini gabeak ziruditen; eta oharkabean itzuri
egin nion kristalezko begiratu hari, ezpain mehe
eta eroriei so egiteko. Zabaldu ziren ezpainak;
eta esangura bitxiko irribarre batean, begibista-
ra azaldu ziren pixkana Berenize aldatu haren
hortzak. Hobe Jainkoak hortz haiek ikusten utzi
ez balit, edo ikusi eta bertan hil banintz!

* * *

Ate baten kolpeak distraitu ninduen, eta, berriz begiratu nuenean, alde egina zen Berenize gelatik. Baina nire adimenaren gela nahasitik ordea, handik ez zuten, ai, alde egin, eta ez zuten alde egingo, hortzen *mamu* zuri eta bel-durgarriek. Ez hortzen azaleko arrastorik, ez esmalteko itzalik, ez ertzetako akatsik, irribarre pasakor hartan ezertxo ez zen izan nire oroime-
nean irarrita geratu ez zenik. *Orduan* baino argiago ikusten ditut *orain*. Hortzak! Hortzak! Hemen zeuden, eta han, eta leku orotan, ikusgai eta ukigai nire aurrean; luzeak, estuak eta zuriegiak, ezpain zurbilak haien inguruan bihurrituta, aurreneko mugimendu izugarri haren unean bezalaxe. Indar bete-betean gaineratu zitzaidan orduan nire *monomania*, eta alferrik borrokatu nintzen haren eragin bitxi eta eraman ezinezkoaren kontra. Kanpoko munduko objektu ugarie-tatik, hortzetan baino ezin nuen pentsatu. Irrika suharrez desiratzen nituen. Haien behaketa hutsera bildu zen bestelako ardura eta zaletasun oro. Haiek, haiek bakarrik nituen adimenaren begietan, eta haietxek, beren banakako izatean, bihurtu ziren nire adimenaren jardunaren funtsa.

Era guztietako argietan behatu nituen. Jarrera guztiak harrarazi nizkien. Haien ezaugarriak aztertu nituen. Haien berezitasunen gainean aritu nintzen hausnarrean. Haien nolakotasunaren aldaketan pentsatzen jarduten nuen. Ikara egiten nuen irudimenean ahalmen sentikorra eta kontzientea, eta, baita ezpainen laguntzarik gabe ere, adierazpen moralaren gaitasuna egozten nienean. Arrazoiz esan izan da Mademoiselle Salléz «*que tous ses pas étaient des sentiments*», ni Berenizez arrunt sinetsita bainengoen *que toutes ses dents étaient des idées. Des idées!* Ai! Horra hor erraustu ninduen pentsamendu burugabea! *Des idées!* Ai! Horixe zen, *beraz*, halako eromenaz gutziziatzen nuena! Iru-ditu zitzaidan haien edukitzeak beste ezerk ez zidala bakea itzuliko, haiek bakarrik ekarriko zidatela berriz arrazoimena.

Eta horrelaxe bildu ninduen ilunabarrak, eta gero iluntasuna etorri zen, eta geratu zen, eta joan zen, eta eguna berriz argitu zuen, eta bigarren gau baten lainoak hasi ziren berriz inguratzen; eta gela bakartian eserita jarraitzen nuen oraindik; eta meditazioan murgilduta nengoen

oraindik; eta hortzen *mamuak* bere nagusitasun
ikaragarrian jarraitzen zuen oraindik, gelako argi
eta itzal aldakorren gainean balebil bezala,
nabarmen eta gorrotagarri. Azkenean garrasi
batek, ikara eta atsekebezkoa irudi, urratu
zituen nire ametsak; eta gero, isilune baten
ondoren, ahots asaldatuaren hotsa entzun zen,
eta, hotsarekin nahastuta, pena edo oinazezko
intziri isilak. Altxatu nintzen eserlekutik, liburute-
giko ateetako bat zabaldu, eta neskame bat ikusi
nuen ondoko gelan, malkoetan blai, eta hark
esan zidan Berenize... Berenize ez zela jada! Epi-
lepsialdi batek jo omen zuen goizean, eta orain,
gaua iristean, gertu zeukan hilobia, eta eginak
ziren hilobirako prestakuntza guztiak.

* * *

Liburutegian eserita aurkitu nuen neure
burua, bakarrik berriz ere. Amets nahasi eta
estugarri batetik esnatu berria nintzela irudi
zuen. Banekien gauerdia zela, eta banekien
eguzkia sartu zenetik lurpean zetzala Berenize.
Baina bitarteko aldi goibelaz ez dut gogorame-

nik, ez behintzat gogoramen zehatzik. Izumenak betetzen zuen hala ere denboraldi haren oroitzapena, eta izumen are ikaragarriagoa zen lausoa zelako, eta, anbigua zelako, handiagoa zen beldurra. Orri beldurgarria zen nire izatearen liburuan, oroitzapen nahasi, lazarri eta ulertezinez osorik betea. Saiatu nintzen oroitzapen haiek dezifratzen, alferrik ordea; zeren, joandako soinu baten izpiritua nola, halaxe sumatzen bainuen belarrietan, behin eta berriz, emakumezko ahots baten oihu zorrotz zulatzailea. Gauzaren bat egin nuen... baina zer ordea? Ozen egin nuen galdera, eta gelako oihartzun xuxurlariek erantzun zidaten, «*baina zer ordea?*»

Lanpara bat neukan ondoko mahaian, eta kutxatila bat hartatik gertu. Ez zuen aparteko berezitasunik, eta sarritan ikusia nintzen, familiako sendagilearena baitzen; baina nola iritsi zen *hara*, nire mahai gainera, eta zergatik ikaratzten nintzen begiratzen nuenean? Haiek ordea ez ziren kontuan hartzeko gauzak, eta azkenean liburu baten orri irekietan ipini nituen begiak, eta han azpimarraturik ageri zen esaldi batean. Ebn Zaiat poetaren hitz berezi baina bakunak ziren:

«Dicebant mihi sodales si sepulchrum amicae visitarem, curas meas aliquantulum fore levatas». Baina zergatik, hitz haiek irakurtzean, lastu zitzaizkidan buruko ileak, eta zergatik gogortu zitzaidan zainetan odola?

Kolpe arin bat entzun zen liburutegiko atean, eta, hilobitik aterea balitz bezain zuri, zerbitzari bat sartu zen hanka-punttetan. Izumenak erotuta zekartzan begiak, eta ahots dardarti, lakar, isil-isilaz mintzatu zitzaidan. Zer esan zuen? Esaldi puska batzuk entzun nituen. Gaueko isiltasuna urratu zuen garrasi ikaragarri bat aipatu zuen, nola elkartu ziren zerbitzariak, nola ibili ziren hots haren jatorriaren bila; eta haren hitzak ikaragarri argiak bihurtu ziren orduan, isilka mintzatu zitzaidanean hilobi bortxatu batez, hiljantziz estalitako gorputz desitxuratu baina oraindik arnasa hartzen zuen batez... taupadaka oraindik... oraindik bizirik!

Nire arropak seinalatu zituen; lokatzez beteta zeuden, eta odoleztatuta. Nik ez nuen hitzik egin, eta zerbitzariak eskua hartu zidan gozogo: giza azazkalen harramazkak ageri zituen. Hormaren kontra jarrita zegoen zerbait seinalatu

zidan. Zenbait minutuz egon nintzen hari begira: pala bat zen. Oihuka, mahaira inguratu eta mahai gaineko kutxatila hartu nuen. Baina ezin ireki nuen; eta nire dardar-ikaretan, ihes egin zidan eskutik eta astun erori zen, eta mila puska-tan hautsi zen; eta handik, zarata handiaz, hortz zirujiazko zenbait tresna atera zen, eta haiekin nahasirik sakabanatu ziren lurrian hogeita hamabi gauza txiki, zuri, boli tankerakoak.

Usher Etxearen hondamena

*Son coeur est un luth suspendu;
Sitôt qu'on le touche il résonne.*

DE BÉRANGER

Udazkeneko egun triste, ilun eta isil batean, behe-behean astun hodeiak, alderik alde igaro nuen zaldi ganean, bakarrik, eskualdeko parte harrigarri beldurgarri bat; eta ilunabarreko itzalak biltzen ari zirenean hantxe nengoen azkenean, begien aurrean Usher Etxe malenkonia-tsua nuela. Ez dakit nola gertatu zen; baina, erai-kinari lehen begiratu egin orduko eraman ezinezko goibeltasuna barneratu zitzaidan espirituan. Eraman ezinezkoa diot; zeren sentipen hura ez baitzidaten arintzen, poetikoak izaki, gogoari atseginak-edo gertatzen zaizkion goibelaren edo ikaragarriaren irudi natural horiek, ezta latzenek ere. Aurrean nuen eszenari begiratu nion —etxeari berari, jabetzaren paisaje bakanaren ezaugarriari, horma biluzei, leiho begi-huts ziruditenei, ihi ilara bakanei, eta zuhaitz iharren

enbor zuri urriei—, arimako sentipen guztiz erori batez, zeina lur honetako sentipenekin ezin baita alderatu, ez bada opio hartzailearen biharamunarekin, eguneroko bizimodura itzuli behar suminarenekin, errezelaren altxatze gorrotagarriarekin. Bihotzaren hoztasun bat, hondoratze bat, gaizkitze bat zen hura: gogoaren goibeltasun irtenbidegabea, irudimenaren ezein ernegarrik bikaintasunaren aldera ezin desbideratu zuena. Zer nuen, hasi nintzen gogoetan, zerk estutzen ninduen bada Usherko Etxea ikustean? Ezin argituzko misterioa zen; eta gogoetan ari nintzela bor-borka gaineratzen zitzaizkidan ideia ilunekin ere ezin nintzen borrokatu. Asetzen ez ninduen ondorio batera iritsi behar izan nuen; alegia, nahiz eta, *izan, badiren* gure espirituari eragiteko ahalmena duten objektu natural bakanen konbinazioak, eskura ditugun gogoetak baino harantzago gertatzen da ahalmen horren analisia. Izan zitekeen, pentsatu nuen, eszenaren ezaugarrien, margolanaren xehetasunen bestelako antolamendu bat, eta aski izan zitekeen beste antolamendu hori Usher Etxearen ahalmen goibeltasun-eragilea aldatzeko, edo ezaba-

tzeko beharbada; eta, ideia hori nerabilela buruan, bere distira lasaia etxearen ondora zabaltzen zuen urmael beltz eta fantastiko baten ertz-ertzera eramane nuen zaldia, eta uretara begiratu nuen; baina aurrekoa baino dardara larriagoaz ikusi nituen ur haietan ihi grisak irudi berrosatu eta alderantzizkatuak, eta zuhaitzenbor mamu modukoak, eta leiho begi-huts itxurakoak.

Alabaina, tristurazko etxe hartantxe eman behar nituen aste batzuk. Jabea, Roderick Usher, adiskide mina izan nuen gaztetan; baina joanak ziren urte asko azkenekoz elkartu ginenetik. Gutun bat iritsi zitzaidan eskualde hartako urru-neko parte batera —haren gutun bat—, halako premiaz idatzia non erantzun gisa bertara joatea baino ez zuen onartzen. Idazkerak aztoramendu handia ematen zuen aditzera. Eritasun fisiko larri batez mintzatzen zen nire laguna, adimenaren desordena estugarri batez, eta ni ikusteko desira biziarekin, neu omen nintzen-eta haren adiskide hoberena eta bakarra, eta nire konpainiaren berotasunarekin bere eritasuna nolabait ere arintzea espero omen zuen. Hori guztia, eta

askoz gehiago, esateko era zela-eta, eta eskaera egiteko moduagatik, *bihotz-bihotzez*, menegin nion berehala, dudarik batere egin gabe, niri halere arras eskakizun bitxia iruditu zitzaidan hari.

Gaztetan adiskide minak izan ginen arren, ezer askorik ez nekien nire lagunaz. Oso betizua izan zen beti. Banekien hala ere familia zahar hura, aspaldi-aspalditik, sentikortasun bitxi batek nabarmendu zuela, eta sentikortasun gehiegizko hori, arte asaldatzeko obretan gauzatu zela denbora askoan; eta banekien halaber, azken garaietan, karitatezko egite eskuzabal baina diskretuetan agertu izan zela delako sentikortasuna, eta orobat musika zientziaren zaletasunean; zientzia horren zailtasunetan ordea, musikaren edertasun ortodoxo eta erraz antzemangarrietan baino areago. Banuen halaber gertaera guztiz ohargarri baten berri, alegia, Usher arrazaren leinuak ez zuela inoiz albo-adar iraunkorrik sortu; beste hitzetan, familiaren ondorengoak denak ziren zuzenekoak, eta horrelaxe gertatu izan zen beti, oso gorabehera txiki eta laburrekin. Gabezia horrek, egin nuen neure artean,

buruan nerabilelarik zeinen antzekoak ziren jabetzaren nolakotasuna eta biztanleena, eta mendeen joanean ez ote zuten eraginik izan batak bestearen gainean; gabezia horrek, hau da, albo-adarreko ahaiderik ez izateak, eta horren ondoriozko aitarengandik semearengana-ko igorpenak, desbiderapenik batere gabe, parekatu bide zituen bata eta bestea, harik eta, jabetzaren jatorrizko izena aldaturik, «Usher Etxea» izen bitxi eta nahasgarria bihurtu zen arte, erabiltzen zuten baserritarren buruan nonbait familia bera eta familiaren etxea, biak, izendatzen zituen.

Esan dut keinu inozo samar haren ondorio bakarra —urmaelera begiratzearena—, hasierako zirrara berezi hura areagotzea izan zela. Dudarik gabe, nire sineskeriaren —izan ere, zergatik ez dut bada horrela izendatuko?— indartze lasterraz ohartzeak, indartzea bera areagotuzuen. Halakoxea da, aspalditik jakin dudanez, izumenean oinarritzen diren sentimendu guztien paradoxazko legea. Eta arrazoi horrengatik bakarrik beharbada, urmaeleko iruditik begiak berriz ere etxerantz jaso nituenean, ideia bitxi

bat bururatu zitzaidan, hain ideia funsgabea, izan ere, non arima estutzen zidaten sentimenduen indar bizia erakusteko aipatzen baitut bakar-bakarrik. Hain nuen irudimena asaldatur, non sinestera iritsi bainintzen bazela etxean eta eremu haietan haiei eta inguruko lurrei bakarrik zegokien giro berezi bat, zeruko haizearekin parekotasunik ez zuena; aitzitik, zuhaitz iharretatik sortzen zen giro hura, horma grisetatik eta urmael isiletik: lurrin kiratsu eta mistiko bat, opakoa, astuna, nekez antzematen zena, berunkolorea.

Ametsa *behar* zuena arimatik egotzirik, bertagotik aztertu nuen eraikinaren benetako itxura. Gehiegizko antzinatasuna zen etxearen ezau-garri nagusia. Handia zen denborak eragindako koloreen ezabatzea. Onddo txiki-txikiek hartzen zuten osorik kanpoaldea, erlaitzetik zabaltzen zen armiarma-sare mehe bat bailiran. Baina horrek ez zekarren, berez, hondamen handirik. Eraikuntzeko parterik ez zen batere erori; eta irudi zuen elkarren kontrakoak zirela osagaien arteko lotura oraindik ere egokia eta harri bakoitzaren hondamena. Kanpoko haizearen batere

trabarik gabe soto ahantziren batean egonik, urte askoan usteldu den zur-lan zaharrak izaten duen osotasun itxura gogorarazi zidan. Hondamendi seinale hori izan ezik, eraikuntza lanari ez zitzaion hala ere egonkortasun faltarik batere igartzen. Behatzaile zorrotz baten begiak aurkituko zuen agian nekez antzematen zen zirrikitu bat, eraikinaren aurrealdeko teilatutik abiatzen eta horman behera sigi-saga jarraituz urmaeleko ur geldietan galtzen zena.

Gauza horiei erreparaka, etxerainoko bide laburra egin nuen. Nire zain zegoen zerbitzari batek hartu zidan zaldia, eta ezkaratzeko arku gotikoa gurutzatu nuen. Urrats isileko morroi batek gidatu ninduen, hitzik egin gabe, korridore ilun, ugari, nahasietan barna, bere nagusiaren irakurgelaraino. Bidean aurkitu nituen gauza askok areagotu zizkidaten, nola ez badakit ere, aipatu berri ditudan sentimendu lausoak. Nahiz eta inguruan nituen objektuak, sabaietako zizel lanak, hormetako tapiz ilunak, zoruen ebanozko belztasunak, eta ibili ahala zarata ateratzen zuten armarri fantasmagorikoak, nahiz eta denak ziren haurtzarotik ondo ezagutzen nituen

gauzak, edo haien antzekoak, nahiz eta duda izpirik gabe onartzen nuen ohikoa zela niretzat hura guztia, harrimenez konturatu nintzen, hala ere, zeinen ezezagunak gertatzen zitzaizkidan irudi arrunt haiek sorrarazten zizkidaten burutapenak. Zurubietako batean familiako sendagi-learekin topo egin nuen. Aurpegian, pentsatu nuen, zorrotasun gaiztoa eta harrimena, biak, antzematen zitzaizkion. Aztoratuta agurtu ninduen, eta aurrera egin zuen. Orduan morroiak ate bat zabaldu zuen, eta bere nagusiaren aurrean utzi ninduen.

Sarrarazi ninduten gela zabala eta altua zen oso. Leihoak luzeak, estuak eta punta-zorrotzak ziren, eta hain urrun zeuden haritz beltzeko lurretik, non gela barrutik ezin baitziren iritsi. Argi gorrizko izpi ahul batzuk sartzen ziren leiho hesidunetatik, eta haiei esker bereiz zitezkeen inguruko gauza handienak; begiak, nolana ere, alferrik saiatzen ziren gelako urrutieneko bazterretara edota sabaiko ganga eta zizel lanetara iristen. Tapiz ilunak zeuden hormetan zintzilik. Altzariak ugariak ziren, erosotasunik gabeak, zaharrak eta hondatuak. Liburu eta musika tres-

na asko zegoen inguruan barreiatuta, baina bizitasunik ez zuten han batere sortzen. Oinazeko giroa arnasten nuela sentitu nuen. Tristura handi, sakon, ezin gaindituzko batek hartzen eta betetzen zuen dena.

Gelara sartu nintzenean, luze-luze etzanda egona zen sofa batetik altxatu zen Usher, eta berotasunez agurtu ninduen. Berotasun hark, pentsatu nuen hasieran, asko zuen gehiegizko adiskidetasunetik, munduko gizon *ennuyé*aren ahalegin behartutik. Baina behin erreparatu nire lagunaren begitarteari, eta sinetsita geratu nintzen haren egiazkotasunaz. Eseri ginen; eta zenbait minutuz, Usherrek ez baitzuen hitzik egiten, erdizka errukia eta erdizka harrimena zen sentimendu batez egon nintzaion begira. Ez dut uste Roderick Usher bezala hain tarte laburrean hainbeste aldatu den gizon asko izan denik. Nekez lortu nuen neure buruari sinetsaraztea aurrean neukan gizon haren nortasuna haurtzaroko lagunarena bera zenik. Nolanahi ere, Usherrek beti izan zuen aurpegiera nabarmena. Hilotzena zuen larruazaleko zurbiltasuna; begiak handiak zituen, urtsuak, eta argitasun paregabekoak;

aski finak ezpainak eta oso argiak, baina kurba ezin ederragokoak; sudurra hebrear eredu delikatukoa, baina halakoek izaten ez duten sudurzulo zabalekoa; kokotsa oso egitura finekoa, bere aurrera beharrean indar moralaren premiaz mintzatzeko zena; armiarma-sarea baino leunagoa eta finagoa ilea; ezaugarri horiek, eta kope-taldea ohi baino irtenagoa izateak, aise ahanz-ten ez den aurpegiera osatzen zuten. Baina hain-besteraino zegoen aldatua ezaugarri horien nolakotasun nagusiaren gehiegian, eta komuni-katzen zuten adierazpenean, non zalantza ere egiten bainuen norekin ari ote nintzen hizketan. Larruazalaren zurbiltasun orain mamu antzeko-ak, eta begiaren distira mirarizkoak, harritu eta are beldurtu ninduten ororen gaineratik. Zetazko ilea bera ere arduragabe zuen hazia, eta, armiarmasare moduko tankera hartan, alboetan baino areago aurpegia inguratuz ageri baitzitzaion, ezin nuen, ezta ahaleginak eginda ere, ile haren itxura nahasia gizatasunaren ideiarekin inondik inora lotu.

Nire adiskidearen maneren koherentzia faltak, haien lotura ezak, berehala txunditu nin-

duen; eta laster konturatu nintzen larritasun sakon bat, nerbio asaldura gehiegizko bat gainditzeko eginahal ahul eta hutsaletatik sortua zela koherentzia falta hura. Era horretako zerbaitetarako prestatu ninduten, egia da, adiskidearen gutunak ez ezik, haurtzaroko zenbait ezau-garriren oroitzapenak, eta haren gorpuzkera eta izaera berezitik sortzen ziren ondorioek. Aldizka bizia eta aldizka motela zen Usherren jokamoldea. Ahotsa bat-batean aldatzen zitzaion, ezin erabaki dardarti batetik (haren bizitasunak erabat sorgortua zirudienean), trinkotasun indartsu moduko batera, adierazmolde bortitz, astun, presagabe, eta soinu-hutsera, ebakera gutural, bizigabe, orekatu, eta ezin hobeto modulatura, zeina arrunt mozkortzen direnetan edo opio hartzaile erremedio gabeetan ikus baitaiteke maiz, larritasun handieneko aldietan murgilduta daudenean.

Era horrexetan mintzatu zitzaidan nire bisitaldiaren helburuaz, ni ikusteko zuen desira zinezkoaz, eta nik ekar niezaiokeen soseguz. Luze samar mintzatu zen bere eritasunaz zuen ikusmoldearen gainean. Eritasun hura, esan

zuen, familiako sortzezko gaitza omen zen, eta etsita zegoen sendagarririk ez ziola bilatuko; nerbioetako eritasun bat, besterik ez, erantsi zuen berehala, dudarik gabe laster sendatuko zena. Sentipen ezohikoetan agertzen omen zen. Haietako batzuk, xehe-xehe aipatu baitzituen, interesgarriak iruditu zitzaizkidan, eta harrigarriak, nahiz eta, agian, kontatzeko moduak berak ere, tonu orokorrak, izan zuen horretan eraginik. Zentzumenen zolitasun gaizto bat pairatzen omen zuen; janari motelena besterik ezin zuen onez eraman; testura jakineko arropak baino ezin jantzi zitzakeen; lore guztien usainak gertatzen zitzaizkion itogarri; argirik ahulenak ere eragozten zizkion begiak; eta oso soinu gutxi omen zegoen, eta harizko tresnetakoak horiek, izumenez betetzen ez zuenik.

Izumenaren molde bitxi batek guztiz menderatuta zeukala konturatu nintzen.

—Eromen honetan —esan zuen—, eromen negargarri honetan hilko naiz. Horrelaxe galduko naiz, ez bestela. Etorkizuneko gertaerek ikaratu egiten naute, baina ez gertaerek berek, haien emaitzek baizik. Edozein gauzak dardarka jar-

tzen nau, baita txikienak ere, baldin eta eraginik izan badezake nire arimaren nahasmendu ezin pairatuzko honetan. Arriskua ez dut arbuiatzen; bai ordea arriskuaren erabateko efektua, hau da, izumena. Estuasun honetan, egoera errukarri honetan, sentitzen dut iritsiko zaidala, lehenago edo geroago, bizitzatik eta arrazoitik, bietatik batera, alde egiteko unea, mamu gaizto horrekin, *izumenarekin*, borrokan.

Alabaina, tarteka-tarteka, zantzu hautsi eta nahasien bidez, nire adiskidearen buru egoeraren beste ezaugarri berezi baten berri jakin nuen. Mendean hartuta zeukaten bere etxaldeari zegozkion hainbat sineskeriek, eta, urte askotan, ez zen ausartu etxalde hartatik ateratzen, halako eragin bitxi bat omen zela-eta. Eragin haren balizko indarra ilunegi adierazi zidan hemen hitzez hitz berriz esan ahal izateko; berak zioenez, bere espirituari eragitera iritsi omen ziren, luzaroan pairatu zituela-eta, familiako etxearen forma eta substantziari zegozkien berezitasun batzuk; horma eta dorre grisen itxura *fisikoaren* efektuak, eta haiek guztiak ispila-

tzen ziren urmael ilunarenak, azkenean, beren mende hartu omen zuten Usherren izate *moral*a.

Onartu zuen, nolana ere, eta zalantzaz, sorburu naturalago eta ukigarriago batean ere aurki zitekeela era horretan eragiten zion tristura berezi hori, arreba maite baten eritasun larri eta aspaldikoan, eta haren heriotzan, agerikoa eta hurbilekoa baitzen; hura izan omen zuen urteetan lagun bakarra, huraxe zuen lur honetan geratzen zitzaion azken ahaidea. «Hura hil ondoren», esan zuen, sekula ahaztuko ez dudan garrastasunaz, «bera (bera, etsia eta ahula) izango zen Ushertarren leinu zaharreko azkena». Hizketan ari zela, Lady Madeline (halaxe deitzen baitzen arreba), gelaren bestaldetik igaro zen poliki-poliki, eta, nitaz ohartu ere gabe, desagertu zen. Guztiz txunditurik begiratu nion, baita ikaraturik ere; ez nuke asmatuko ordea sentipen haien zergatia agertzen. Sorgortasunezko zirrara batek hartu ninduen nire begiek neskaren urratsei jarraitu zietenean. Azkenean itxi zen atea haren atzetik, eta nire begiratuak senaz eta irrikaz bilatu zuen anaiaren begitarte: baina aurpegia eskuetan ezkutatuta zeukan, eta, hortaz,

ohikoa baino zurbiltasun askoz handiago batek hartuak zituela Usherren hatz akituak, hori baka-rik ikusi ahal izan nuen, eta negar-malko beroak isurtzen zirela haien artetik.

Lady Madelineren eritasunak aspalditik zuen auzitan jarria sendagileen jakintza. Apatia orokorra, gorputzaren pixkanako hondamena eta katalepsiaren ezaugarri batzuk zituzten alditxar sarri baina iragankorrak ziren diagnosi bitxiaren osagaiak. Usherren arrebak gogor egin zion beti bere eritasunaren zamari, eta ez zuen ohean geratu nahi izan; baina ni etxe hartara iritsi nintzen eguneko ilunabarrean, amore eman zion bere suntsitzailearen indar zapaltzaileari (asaldura ezin adierazizkoaz anaiak gauean esan zidanez), eta konturatu nintzen emakume hura azkenekoz ikusi bide nuela; Lady Madeline, bizi-rik behintzat, ez nuela berriz ikusiko.

Ondorengo egunetan, ez Usherrek, ez nik, ez genuen arrebaren izena aipatu: eta nire adiskidearen malenkonia arintzeko eginahaletan eman nituen egun haiek. Elkarrekin aritzen ginen margotzen edo irakurtzen; edo entzuten nituen, ametsetan bezala, haren gitarra kanta-

riaren inprobisazio bitxiak. Eta horrela, adiskide-tasun gero eta estuago batek Usherren gogoan onartzen ninduen neurrian, garraztasunez ohar-tzen nintzen alferrekoa zela gogo hura animatze-ko, iluntasunetik ateratzeko egiten nuen ahale-gin oro, zeren iluntasun hura, berez baletor bezala, unibertso fisiko eta moraleko objektu guztietara zabaltzen baitzen, tristuraren irrada-tze etengabea.

Beti izango ditut gogoan Usherko Etxeko nagusiarekin bakarka eman nituen ordu larri haiek guztiak. Hala ere, huts egingo nuke Ushe-rrek erakusten edo ezagutarazten zizkidan ikas-keten edo egitekoen nolakotasunaren ideia zehatzik eman nahi izango banu. Idealtasun larritu eta guztiz desorekatu batek sufre distira bat barreiatzen zuen nonahi. Belarrietan itsatsi-ta geratu zaizkit Usherren hilkantu luze bat-batean asmatuak. Besteren artean, Von Weber-en azken baltsaren doinu gogorraren bertsio bitxi bat, gaiztoa eta anplifikatua, gordetzen dut oinazez gogoan. Nire adiskidearen irudimen nahasiak osatzen zituen margolanetatik, darda-ra eragiten zidan lausotasuna eransten baitzuen

pintzelkada bakoitzean, eta dardara are larriagoa, zergatia ez nekielako; margolan haietatik bada (hain biziak, non begien aurrean baititut oraindik ere), alferrik saiatuko nintzateke idatzizko hitzek mugatzen duten parte txiki hori baino gehiago adierazten. Margolanen bakuntasun erabatekoak, marrazkien biluztasunak, ikuslearen arreta osoa bereganatzen zuten. Izan baldin bada ideia bat margotu duen kristaurik, Roderick Usher da hori. Nigan behintzat —orduan inguratzen ninduen giroan—, ikara izugarria, eraman ezinezkoa, sortzen zidaten hipokondriako hark bere oihalean ipintzen zituen abstrakzio hutsek; hainbestearainoko ikara, non halakoaren arrastorik ez baitut sentitu ezta Fuseliren ameskeria distiratsu baina hala ere konkretuegi batzuk ikustean ere.

Oso modu eskasean bada ere, nire adiskidearen margolan fantasmagoriko haietako bat eman daiteke nolabait ere hitzen bidez aditzera, ez baitzen besteak bezain zurruna. Margolan txiki bat zen, ganga edo tunel luze-luze eta lauki-zuzen baten barrenaldea erakusten zuena; tune-laren hormak txikiak, leunak eta zuriak ziren, eta

etenik edo apaingarririk batere gabeak. Marrazkiaren bigarren mailako xehetasun batzuek adierazten zutenez, lurra baino askoz beherago zegoen. Irteerarik ez zitzaion luzera osoan inon ikusten, eta ez zen sumatzen ez zuzi ez bestelako argi iturri artifizialik; hala ere bazen izpi indartsuzko argi isuri bat, margolanaren osotasuna lekuz kanpokoa zirudien argitasun fantasmagoriko batez zipriztintzen zuena.

Aipatu dut lehenago ere Usherren entzumenaren gaiztotasuna, harizko tresnen zenbait efektu salbuetsita, musika oro ezin pairatuzko bihurtzen ziona. Hala, gitarrari jartzen zizkion muga estuek sorrarazten bide zuten, hein handi batean, Usherren joaldien nolakotasun fantastikoa. Baina horrek ez du esplikatzeko *impromptus* haien *erraztasun* larria. Fantasia bitxi haietako notek bezala, hitzek ere (izan ere, eta ez gutxitan, bat-bateko hitz errimadunez laguntzen baitzuen musika), larritasun artifizial handieneko une batzuetan bakarrik ikus daitekeen kontzentrazio horren emaitza behar zuten izan, lehenago ere aipatu dudan egoera berezi horrena. Ondo gogoan ditut rapsodia haietako baten

hitzak. Harexek eragin zidan beharbada zirrarak sarkorrena, Usher kantuan ari zela, orduantxe sumatu bainuen aurreneko aldiz, hitzen esanahiak estali nahi zuen isuri mistikoan, ederki asko zekiela berak hain gora ipinitako arrazoi-mena zabuka hasia zela bere tronuan. «Jauregi sorgindua» zuten bertsoek izena, eta horrela zioten gutxi gorabehera:

I.

Gure zelairik berdeenean, aingeru zintzoek zaindurik, bazen behin jauregi eder eta handientso bat, harroa eta argitsua. Hantxe zegoen gaztelua, Pentsamendu erregeren lurretan! Sekula ez da izan hegoak hain leku ederrean astindu duen serafinik.

II.

Estandarte horiak, loriazkoak, urrezkoak, higitzen ziren jauregiko teilatu gainean; (hau, hau guztia, aspaldiko denboretan gertatzen zen). Eta egun gozo haietan almenen artean mugitzen zen haizea, eta lurrin hegodun bihurturik zen alboratzen.

III.

Zelai zoriontsu hartako ibiltariak bi leiho argi-tsutatik ikusten zituzten espirituak, tronu baten inguruan laut baten doinuaz dantzan, hantxe baitzegoen, ondo merezitako aintzaz, erreinuko nagusia.

IV.

Eta perlaz eta errubiez dir-dir egiten zuten jauregiko ateen, eta handik heltzen ziren, isuriz-isuriz, Oihartzunak, inoiz baino argitsuago, beren ahots ederrez erregeren trebetasuna eta jakintza kantatzea baitzuten egiteko bakar gozoa.

V.

Baina izaki gaiztoek, tristuraz jantzirik, eraso zioten behin erregeren jabetzari; (dolu gaitezen, ai, ez baita harentzat beste egun argitzerik izango). Eta aspaldiko istorio zaharra baino ez da haren etxearen inguruan argitzen eta loratzen aintza, nekez gogoratzen dena, hilobiratua baita denbora hura.

VI.

Eta bidaiariek oro, gorriz argitutako leihoetatik, forma handiak ikusten dituzte orain han, mamuak bezala doinu itxuragabeaz higitzen direnak; eta bitartean, isuri gaiztoko ibai bat nola, ate zurbiletik, betiko irteten da jende-saldo higuigarria: barre dagite, baina irribarrerik ez dute gehiago egingo.

Ondo gogoan dut nola balada honetatik sorturiko iradokizunek gogoeta batzuk egitera eramán gintuzten, Usherren iritzi bat agerian jarri zutenak. Hizpidera dakart iritzi hori, ez hainbeste berria zelako (izan baitira horrelako ideiak bururatu zaizkien beste gizon batzuk ere), iritzi hura zeinen gogor aldezen zuen Usherrek adierazi nahi dudalako baizik. Landaregaien sentikortasuna zen oro har hizketagaia. Usherren irudimen aztoratuan ordea ausartagoa zen ideia hori, baldintza jakin batzuetan gai inorganikoen mundura ere zabaltzen baitzuen. Hitzak falta ditut haren konbentzitzeko gaitasunaren norainokoa, haren *abandono* suharra adierazi ahal izateko. Sineste hori, nolana ere, bere arbasoen etxeko

harri grisei lotuta zegoen (lehenago ere iragarri dudan bezala). Sentikortasunaren baldintzak, harri haietan, osagaien kokatzeko moduan gauzatzen ziren Usherren ustez: harrien antolaketa-
ren ordenan, haien gainean hazitako onddoen eta inguruko zuhaitz hondatuen ordenan, baina, ororen gainetik, antolaketa horren berorren iraupen luzean sumatzen zen, Usherren iritziz, delako sentikortasuna, eta urmaeleko ur geldietan gertatzen zen errepikapenean. Horren froga —sentikortasunaren froga— ikus omen zitekeen, hala esan zuen (eta harridurak astindu ninduen mintzatu zenean), uren eta hormen inguruan berez gertatzen zen giro baten kondentsazio motel baina seguruan. Horren guztiaren emaitza, erantsi zuen, argi antzematen zen gizaldiz gizaldi bere familiarren patua taxutu zuen eragin isil baina hala ere desegoki eta ikaragarrian, eta harexek bihurtu omen zuen *bera*, orain nekusana, une hartan zena. Iritzi horiek ez dute komentario beharrik, eta ez dut batere egingo.

Gure liburuek —urte askoan ezindu haren bizitza intelektualaren parte ez txikia izan ziren liburu haiek—, pentsa daitekeen bezala, lotura

estua zuten ideia fantasmagoriko horrekin. Liburu asko aztertzen genuen elkarrekin, haien artean Gresseten *Ververt et Chartreuse*; Machiavelliren *Belfegor*; Swedenborgen *Zerua eta inferna*; Holbergen *Nicholas Klimm-en lurpeko bidaia*; Robert Flud, Jean D'Indaginé, eta De la Chambrearen *Kiromantzia*; Tiecken *Bidaldia distantzia urdinera*, eta Campanellaren *Eguzkiaren Hiria*. Denetan gogokoena *Directorium Inquisitorium* obraren oktabako edizio txiki bat genuen, Eymeric de Gironne domingotarrarena; eta baziren pasarte batzuk Pomponio Melaren obran, Afrikako satiro zaharre eta egibanoei buruzkoak, Usherri ordu askoko ameskeriak eragiten zizkiontenak. Kuarta gotikoko liburu bereziki bitxi eta jakingarri baten irakurraldi arretatsuan aurkitzen zuen ordea nire lagunak gozamenik handiena; eliza ahaztu baten eskuliburua zen, *Vigiliae Mortuorum secundum Chorum Ecclesiae Maguntinae*.

Berehala gogoratu zitzaidan liburu hark deskribatzen duen erritu gaiztoa, eta hipokondriakoaren gainean izan zuen eragin ia segurua, ilunabar batean adierazi zidanean, Lady Madeline hila

zela bat-batean esan ondoren, haren gorpua hamabostaldi batez gordetzeko asmoa zuela (betiko hilobiratu aurretik), gaztelupeko kripta ugarietako batean. Jokamolde bitxi hori zilegiztatzeko erabili zuen argudioak, nolana ere, ez zidan eztabaidarako aukerarik eman. Erabaki horretara heldu omen zen (halaxe kontatu zidan berak), zenduaren eritasunaren nolakotasun bitxia, sendagileen galdeketa estugarri eta premiatsu batzuk, eta familiako hilerriaren urruntasun eta kokaleku agerikoegia gogoan hartuta. Ez dut ukatuko, zurubiaren ondoan aurkitu nuen pertsonaren begitarte zital hura gogoratuz, ez nuela desirarik batere izan une hartan ardura kaltegabea, ez behintzat arrarokeria, iruditu zitzaidan hari kontra egiteko.

Usherrek berak hala eskatuta, neronek lagundu nion denboraldi baterako hilobiratze haren prestakuntza lanetan. Gorpua zerraldoan sartuta zegoen, Usherrek eta biok eramane genuen bere atsedeenlekura. Ezarri genuen sotoa (hain luzaroan itxita eduki zutena, non gure zuziek, giro gaizto hartan erdi itzalirik, miaketan hasteko betarik ia ez baitziguten eman), txikia

zen, hezea eta argitasunik batere gabea; nire logela zegoen eraikineko parte berean zegoen, askoz ere beherago ordea. Leotz baten helburu higuingarrietarako erabili izan zen nonbait aspaldiko garai feudaletan, eta, azkenaldian, sutautsa edo beste erregairen bat gordetzeko; izan ere, kobrez estalita zeuden lurraren parte bat eta sartzeko gurutzatu genuen arkupe luzearen barrenalde osoa. Atea burdin lodizkoa zen, eta modu berean zegoen babestua. Ate haren zama izugarriak kirrinka hots zorrotza atera zuen gon-tzen gainean mugitu zenean.

Ikarazko eskualde hartara iritsita, gure doluzko zama zurezko euskarrien gainean ipini ondoren, hilkutxaren tapa artean ireki gabea apur bat zabaldu, eta han etzanda zegoenaren aurpegiari begiratu genion. Anaia-arreben arteko antz harrigarriak erakarri ninduen aurrena; eta Usherrek, nire pentsamenduak asmatuz-edo, hitz batzuk esan zituen marmarka, eta hala jakin nuen bikiak zirela zendua eta bera, eta lotura ia ezin ulertuzkoak izan zituztela beti bien artean. Gure begiradek, nolana ere, ez zuten askorik iraun hilairengan, ezin baikenion ikaratu gabe

begiratu. Lady Madeline gaztaro betean hilobiratu zuen eritasunak, katalepsiak heriotza guztietan gertatzen den bezala, arrosa kolore arin baten iseka utzi zion bularrean eta aurpegian, eta irribarre irudikor bat ezpainetan, zenduengan hain ikaragarria izaten dena. Bere lekuan utzi genuen ostera tapa, torlojuez iltzatu, eta, burdinazko atea ondo itxita, etxeko goialdeko gela ez askoz alaiagoetara abiatu ginen, neka-neka eginda.

Eta orduan, pena garratzezko egun batzuk joanda, aldaketa nabarmena gertatu zen nire adiskidearen buruko nahasmenduaren ezaugarrietan. Desagertuak zituen ohiko manerak. Utzi edo ahaztu egin zituen egiteko arruntak. Gelaz gela ibiltzen zen urrats presati, desberdin eta helburu gabeez. Kolore arre zuriagoa hartu zuen, ahal zen neurrian, haren begitartearen zurbiltasunak; eta guztiz desagertua zuen begiradaren argitasuna. Ez zitzaion gehiago entzun ahots aldika lakar hura; eta dardarazko duda bat zuen orain, izu-laborrizkoa zirudiena, adierazmoldearen ezaugarri nagusia. Zenbaitetan, izan ere, bururatu zitzaidan haren adimen beti asaldatua

ez ote zen sekretu beldurgarriren bat prestatzen ari, eta ez ote zebilen sekretu horren berri emateko kemenaren bila. Beste batzuetan ordea eromenaren zentzugabekeriara jo behar izaten nuen hura guztia esplikatzeke, zeren hutsari begira ikusten bainuen orduetan eta orduetan, guztiz arretatsu, irudizko soinuren bati adi bezala. Ez da harritzekoa nire adiskidearen egoerak neu ere ikaratu izana, areago, baita kutsatu ere. Argi sentitzen nuen nola barneratzen zitzaidan, mailaka-mailaka, motel baino ziur, Usherren sineskeria zoro baina zirraragarrien eragin gaiztoa.

Lady Madeline leotzean ipini eta handik zazpigarren edo zortzigarren eguneko gauan, oso berandu, sumatu nuen bizi-bizi sentipen haien indar osoa. Orduak eta orduak pasa arren, loaren arrastorik ez nuen sentitzen. Gogor saiatu nintzen nitaz jabetu zen larritasunaren zergatiak argitzen. Ahaleginak egin nituen neure buruari sinetsarazteko sentitzen nuen hartatik asko, dena ez bazen, gelaren altzari goibelen eragin beldurgarriagatik zela, eta tapiz ilun eta saretuengatik, altxatzen ari zen haize gogorrak

mugiarazirik, hormen ganean batera eta bestera kulunkatzen baitziren, zarata itsusi bat atereaz oheko apaingarrietan. Baina alferrekoak izan nituen ahalegin haiek guztiak. Ikara ezin uxatuzko batek hartu zidan gorputza; eta, azkenean, larritasun zeharo arrazoigabe baten deabrua sartu zitzaidan bihotzean. Arnasestuka eta borrokan hura gainditu nahian, tente jarri nintzen burkoen ganean, eta, gelaren belztasuna miatuz, han entzun nituen —zergatik ez dakit, ez bada senak hartara bultzatu ninduelako—, hots apal eta zehazgabe batzuk, ekaitzaren etenuneetan iristen zirenak, bitarte luzeetan, ez nekien nondik. Izumenezko sentipen ikaragarri batek guztiz menderatuta, ezin esplikatzukoa baina ezin pairatzukoa baitzen, oheko arropak kolpetik kendu (zeren konturatzen bainintzen ez nuela gau hartan lo gehiagorik egingo), eta gelan barna atzera eta aurrera presaka ibiliz saiatu nintzen murgildua nintzen egoera errukarri hartatik ateratzen.

Eginak nituen itzuli batzuk, eta aldameneko zurubian entzun zen urrats arin batek hartu zuen halako batean nire arreta. Berehala konturatu

nintzen Usherrena zela urrats hura. Hurrengo unean nire atea jo zuen, emeki, eta gelan sartu zen, lanpara bat eskuan zekarrela. Aurpegia, ohi bezala, ezin zurbilagoa zuen; halere, hori baino nabarmenago, bazuen begietan halako poz ero bat, *histeria* ezkutu bat, jokaera osoan antzematzen zitzaiena. Itxura hark ikaratu egin ninduen, baina nahiago nuen edozer gauza hain luze parratu nuen bakardadea baino, eta lasaituta ere hartu nuen Usherren etorrera.

—Ez al duzu ikusi? —esan zuen bat-batean, une batez isilik egon ondoren ingurura begira—, ez duzu ikusi? Egon, egon! Oraintxe ikusiko duzu.

Era horretan hitz eginez, eta lanpara arduraz estali ondoren, leihoetako batera joan zen, eta ekaitzari zabaldu zion.

Lurretik altxatu gintuen ia gelara sartu zen haize erasoaren indar bortitzak. Izan ere, gau ekaiztsua zen, baina oso ederra hala ere, eta guztiz berezia bere izugarrian nahiz edertasunean. Inguru hartan haize zirimola batek bere indarra biltzen bide zuen; haizearen norabidea sarri eta bat-batean aldatzen zen, eta, hodeien

trinkotasun gehiegiagatik ere (eta hain zeuden hodei haiek behean, non etxeko dorreak zanpazten baitzituzten), sumatu ahal izan genuen nolako lastertasunaz mugitzen ziren hodeiak, nonahitik abiatu eta elkar joka, urrunean desagertu gabe. Esan dudan bezala, hodeien trinkotasun gehiegia gorabehera, sumatzen genuen haien mugimendua; baina inon ez genuen ikusten ez ilargirik ez izarrik, ezta tximisten argitasunik ere. Hala eta guztiz ere, lurrin nahasizko masa handi haien azpiak, eta orobat inguruan genituen lurreko objektu guztiak, distiratsu ageri ziren, etxea inguratzen eta hil-jantzian biltzen zuen gas isuri motel eta ikusgai baten argi naturaz kanpokoan.

—Ez duzu hau ikusi behar... ezin duzu hau ikusi! —esan nion, dardar-ikaraz, Usherri, gozo baina aldi berean sendotasunez leihotik aulkira eramanez—. Ikuskari horiek ikaratu egiten zaituzte, baina gertaera elektrikoak besterik ez dira, eta ez dira hain arraroak gainera. Baliteke putzu ustelduan izatea beren jatorri beldurgarria. Leihoa itxiko dugu; haize hau hotza da, eta arriskutsua da zuretzat. Hara hor zure eleberri

gogokoenetako bat. Nik irakurriko dut, eta zuk entzun; eta horrelaxe emango dugu gau beldur-garri hau, biok elkarrekin.

Hartu nuen liburu zaharra Sir Launcelot Canningen "Mad Trist" zen; baina liburu hura Ushe-rren gogokoena zenik gehiago esan nuen txan-txa triste bat egiteko, zinez baino; zeren, egiaz-ki, haren ugaritasun topizkoko eta irudimenik gabea ez baitzegoen nire adiskidearen espi-ritualtasun jasoarentzat interesgarria izan zite-keen ia ezer. Nolanahi ere, hura zen eskura genuen liburu bakarra: eta neure buruari sine-tsarazi nahi nion bazela itxaropenen bat nire lagun hipokondriakoa larritzen zuen estuasunak aringarririk izan zezan (zeren horrelako arraro-keriez baitago betea buruko gaitzen historia), baita irakurri behar nuen eromen haren gehie-gian ere. Izan ere, entzuten zuenean, edo entzu-ten zuela zirudienean, nire lagunak ageri zuen bizitasun bitxia eta larria antzemateko gai izan banintz, neure burua zorionduko nuen nire asmoak izan zuen arrakastagatik.

Iritsia nintzen Ethelred, *Tristeko* heroia, ermi-tan bakez sartzen alferrik saiatu ondoren, olda-

rrean sartzera doan istorioaren parte ezagunera. Puntu horretan, gogoratuko denez, honela dio kontakizunak:

«Eta Ethelred, sortzez baitzen bihotz adoretzukoa, edan berri zuen ardoaren eraginak indarturik, ez zuen gehiago itxaron ermitauarekin hitz egiteko, izatez baitzen hura, izan, setatsua eta gaiztoa; aitzitik, euria bizkarraren gainean sentitu zuelarik, eta ekaitza altxako ez ote zen beldurrez, jaso zuen bere mailutzarra, eta, kolpeka, ateko oholak urratu zituen bere esku larruz babestuarentzat leku egiteko; eta orduan, bera-ganantz indarrez tiraka, hainbestearino apurtu, eta urratu, eta txikitu zuen dena, non baso guztian entzun baitzen egur ihar eta hutsaren zarata eta oihartzuna».

Esaldi hori bukatzean ikara egin nuen, eta, une batez, isildu nintzen; zeren iruditu baitzitzaidan (nahiz eta berehala erabaki nuen nire irudimen asaldatuak engainatu ninduela), iruditu zitzaidan, etxearen oso urruneko bazterren bate-tik, heldu zitzaidala argi-argi belarrietara, parekotasun guztiz zehatzez, Sir Launcelotek hain xehe deskribatu zuen hausturaren eta urradura-

ren oihartzuna izan zitekeena (hori bai, itoa eta moteldua). Dudarik gabe, kointzidentzia hutsak hartu zuen nire arreta; zeren, leihoetako gontzen kirrinkarekin, eta oraindik ere indarragotzen ari zen ekaitzaren zarata nahasiekin batera, soinu hark, berez, ez baitzuen seguraski ezer ni horrela erakarri edo nahasteko. Irakurtzen jarraitu nuen:

«Baina Ethelred heroi zintzoa, atetik sartzean, biziki haserretu eta txunditu zen, ez baitzuen ermitau zitalaren seinalerik batere aurkitu; aldiz, haren orde, dragoi bat ikusi zuen, ezkatez estalia eta guztiz harrigarria, agerian suzko mingaina, urrezko jauregi lur-zilarreztatu baten aurrean zaindari; eta ezkutu bat ikusi zuen horman esekita, brontze distiratsuzkoa, hitz hauek idatzirik zituena:

*Hemen sartzen dena,
konkistatzailea izango da;
Dragoia hiltzen duenak,
ezkutua irabaziko du.*

Eta Ethelredek bere mailutzarra jaso zuen, dragoia buruan jo, eta parean erori zitzaion; eta dragoiak bere arnasa nazkagarria jaurtiki zuen, eta halako oihu lakar eta izugarria egin zuen, eta hain zorrotza, non Ethelredek belarriak eskuez estali baitzituen hots beldurgarri hartatik babes-teko, haren antzekorik ez baita sekulan entzun».

Hemen bat-batean isildu nintzen berriz ere, eta txundimen gogorreko sentipen batez orain-goan, zeren dudarik batere gabe une horretan bertan entzun bainuen (nahiz eta nondik zetorren inola ere ezin nuen esan) garrasi edo kirrinka hots guztiz ezohikoa, apala, itxuraz urrunekoa, baina lakarra eta luzea: eleberrigileak deskribatutakoari jarraituz nire irudimenak osatu zuen dragoiaren garrasi bitxiari emandako erantzun zehatza.

Bigarren eta guztiz ezohiko kointzidentzia hori zela-eta, aztoratuta arrunt harrimena eta izu-laborria nagusi ziren ehunka sentipen elkarren kontrakoen ondorioz, izan nuen oraindik ere aski kemen bitxikeria hura aipatuz nire lagunaren larritasuna ez areagotzeko. Ez nekien hark ere soinuak entzun ote zituen; baina, hori bai,

azken minutuetan aldaketa bitxi bat gertatu zen Usherren jokaeran. Hasieran nire parean zegoen, baina pixkana-pixkana aulkia lekuz aldatu zuen, harik eta gelako aterantz begira jarri zen arte; eta horrela ezin nion aurpegia osorik ikusi, nahiz eta ezagun zuen ezpainak dardarka zituela, bere kasa marmarka arituko balitz bezala. Burua bularraren gainean erortzen utzi zuen; banekien ordea ez zegoela lo, begiak irekitzen ikusi bainuen, zabal eta zurrun, soslaiez erreparatu nionean. Gorputzaren mugimenduak ere esna zegoela adierazten zuen, alderik alde kulunkatzen baitzen zabu arin baina etengabe eta beti-berdin batez. Horretaz guztiaz konturatuta, berriz ere heldu nion Sir Launceloten kontraerari, honela jarraitzen baitzuen:

«Eta orduan heroia, dragoiaren hira izugarritik ihes eginda, brontzezko ezkutuz gogoratu zelarik, eta hautsia baitzen ezkutu haren aztikeria, bidea ixten zion gorpua alboratu, eta ausarki inguratu zen, gazteluko zilarrezko lurra zapalduz, ezkutua esekita zegoen hormaren aldera; baina ezkutua ez zuen itxaron heroia iritsi zen arte, aldiz, bere oinetara erori zen zilarrezko

lurraren gainean, burrundara ikaragarri handia eta beldurgarria atereaz».

Ez al ziren hitz horiek nire ezpainetatik osorik atera, sumatu nuen —une hartan bertan, hain zuzen ere brontzezko ezkutu bat zilarrezko lur batera astun erori balitz bezala—, zarata baten isla argi, huts, metaliko eta durunditsua, itxuraz hala ere itoa. Nire onetatik aterata, jauzi batez zutitu nintzen; Usherren kulunka neurtuak berriz aldagabe jarraitzen zuen. Haren aulkira inguratu nintzen presaka. Lurrean finkatuta zituen begiak, eta harrizko zurruntasuna ageri zuen aurpegian. Eskua sorbaldan ipini nionean ordea, astindu indartsu batek hartu zion gorputz osoa, irribarre bitxi bat agertu zitzaion ezpainetan, eta marmar apal, presatu, ezin ulertuzkoan jardun zela ikusi nuen, ni bertan nintzela ohartuko ez balitz bezala. Harengana makurtuz, azkenean ulertu nuen hitz haien esanahi izugarria.

—Ez al duzu entzuten? Nik entzuten dut bada, eta entzun *dut*. Luze, luze, luze, minutu askoz, ordu askoz, egun askoz, entzun dut... Baina ez nintzen ausartzen... Erruki zaitez nitaz, zorigaiztoko gupidagarri honetaz! Ez nintzen

ausartzen, ez nintzen *ausartzen...* hitz egiten! *Bizirik ipini dugu hilobian!* Ez al nizun esan oso zorrotzak ditudala zentzumenak? *Orain* esaten dizut bada, Madelinek zerraldoaren barruan egin zituen lehen mugimendu txikiak entzun nituen. Entzun nituen, orain egun asko, orain egun asko... egun askoan entzun ditut... Baina ez nintzen *ausartzen... ez nintzen ausartzen hitz egiten*. Eta orain, gaur gauean, Ethelred... Ja, ja! Ermitauaren ate hautsia, eta dragoiaren heriozko oihua, eta ezkutuaren durundia! Esan areago zerraldoaren zarata zela arrebak urratu duenean, eta bere presondegiaren burdinazko gonzen kirrinka, eta haren ahaleginak sotoko arkupe kobreztatutik atera nahian! Ai! Nora egingo dut ihes? Ez al da bada hemen izango aurki? Ez al datorkit nire presagatik kargu hartzera? Ez al ditut entzun zurubian egin dituen urratsak? Ez al dut bereizten haren bihotzaren taupada astun beldurgarria? Zoroa!

Eta une horretan bat-batean zutitu zen, eta garrasika esan zituen hitzak, ahalegin hartan arima ematen ari balitz bezala:

—*Zoraa! Atearen bestaldean dagoela diotsut!*

Hitz haien indar gizatasunaz gainekoak azterria baten ahalmena ekarri balu bezala, une hartan bertan beren ebanozko masail-hezur handiak zabaldu zituzten hizlariak seinalatzen zituen ohol zahar erraldoiek. Haize-laster bortitzaren eragina izan zen; baina han, ate haien ondoan, *hantxe zegoen* bere hil-jantzian bilduta Usherko Lady Madelineren irudi luzea. Odola zuen arropetan, eta borrokaldi gogor baten seinaleak ageri zituen bere gorputz akituaren gune guztietan. Atean dardarka geratu zen une batez, atzera eta aurrera kulunka; gero, intziri apal bat eginez, astun erori zen bere anaiaren gainean, eta bere herioaren agonia bortitz eta oraingoan egiaz azkena zuen hartan, gorpu bihurtuta eraman zuen lurrera, hark iragarritako izumenen biktima bilakarazirik.

Gela hartatik, eta etxe hartatik, ikaraz itzuri nintzen. Bere amorru osoaz jotzen zuen oraindik ekaitzak hiribide zaharra gurutzatu nuenean. Bat-batean argitasun ikaragarri bat sortu zen bidean, eta atzera jiratu nintzen, halako argi

bitxia nondik atera ote zen ikusi nahian; zeren etxe erraldoia eta haren itzalak, besterik ez bainuen atzean. Ilargi bete odol-gorriarena zen distira, bizi-bizi argitzen baitzuen oraingoan lehenia antzematen ez zen urraduratik, hasieran esan dudanez, sigi-saga eginez, teilaturik oinarriraino zabaltzen zen hartatik. Begira nengokiola, zabaldu egin zen urradura, haize bolada gogor batek jo zuen, satelitearen orbita osoa lehertu zen bat-batean nire begien bistan, eta zorabioak hartu ninduen horma sendoak erortzen ikusi nitue-nean; eta burrundara luze zaratatsu bat izan zen ehunka uraldiren ahotsa bezalakoa... Eta ilun eta isil itxi zen nire oinetan putzu sakon ustela Usher Etxearen hondakinen gainean.

Maelström

Jaungoikoak izadian dituen bideak, eta orobat Probidentzian dituenak, ez dira gure bideak bezalakoak; era berean, ezin parekatu dira inola ere gure sorkariak eta Haren eginen zabaltasun, sakontasun eta ulergaitzatsuna, Demokritoren putzua baino handiagoa baita haiek beren baitan duten sakona.

JOSEPH GLANVILLE

Iritsiak ginen harkaitz handienaren gailurre-ra. Zenbait minutuz hitzik egin ezinik geratu zen agurea, hain zegoen leher eginda.

—Aspaldi gabe —esan zuen azkenean—, nire seme gazteenak bezain ongi gidatuko zintudan bide honetatik; baina, orain hiru bat urte, gauza bat gertatu zitzaidan kristau bati sekula gertatu ez zaiona, edo, gertatu bazaio, ez da kontatzeko bizirik atera; eta orduan pairatu nituen izu-laborrizko sei orduak txiki-txiki eginda utzi zizkidaten gorputz-arimak. Oso gizon zaharra naizela pentsatuko duzu, baina ez da hala. Egun bat nahikoa izan zen ile hauek beltz-beltzetik zurira aldatu,

nire zangoak ahuldu eta nire nerbioak desegiteko, eta, orain, ahalegin txikienak ere dardarka jartzen nau, eta itzal batek ikaratzen nau. Ba al dakizu justu-justu naizela gai labar txiki honetatik behera zorabiatu gabe begiratzeko?

«Labar txikia», zeinaren ertzean hain arduragabe etzan baitzen agurea atsedean hartzera non gorputzaren parterik handiena zintzilik geratzen baitzitzaion, ukondoa zuelarik, muturreko ertz irristakorrean ipinita, erortzea eragozten zion gauza bakarra, «labar txiki» hura, harkaitz beltz distiratsuzko amildegi babesgabea, hamabost edo hamasei bat oin gora altxatzen zen azpian genuen harkaitz mordotik. Ezerk ez ninduen eramango ertz hartatik dozena erdi bat iarda baino gutxiagora. Zinez diot, hain larritzen ninduen nire lagunaren posizio arriskutsuak, non lurrean luze-luze etzan, inguruko sasiei heldu eta hala ere zerura begiratzen ere ez bainintzen ausartzen; eta aldi berean, alferrik saiatzen nintzen haizearen zakarrak mendiaren oinarriak berak ere arriskuan jarriko zituelako burutapena uxatzen. Denbora behar izan nuen eseri eta urrutira begiratzeko adina adore biltzeko.

—Atera burutik irudipen horiek —esan zidan nire gidariak—, aitatu dizudan pasadizo hori gertatu zen lekuaren bistarik hoberena izan dezazun ekarri zaitut-eta hona... eta leku hori aurreaurrean duzula kontatu nahi dizut istorio osoa.

»Hemen —jarraitu zuen agureak, ezaugarritzen zuen modu berezi hartan—, hemen Norvegiako kostaldetik gertu gaude, hirurogeita zortzi graduko latitudean, Nordland-go probintzia handian... eta Lofodengo barruti beldurgarrian. Gu gauden mendi gailur hau Helseggen da, Mendi Lainotsua. Jarri tenteago... Heldu belarrari zorabioak jotzen bazaitu, horrelaxe... hara begiratu, beheko eraztun lurrinezko hori baino harantzago, itsasora.

Burua erdi joanda, so egin eta ozeano zabalzabala ikusi nuen. Ura hain zegoen iluna non Nubiako geografialariaren *Mare Tenebrarum* kontakizun hura gogorarazi baitzidan. Gizakia-
ren irudimenak ezin asmatu du hura baino ikuspegi goibel eta negargarriagorik. Ikusmena irits zitekeen bezain urrun, munduaren hesiak bailiran, labar izugarri beltz eta irtenak ageri ziren eskuin eta ezker, lerroak eta lerroak; are goibe-

lagoak egiten zituen olatuen aparrak bere gailur zuri beldurgarria labar harrien gainetik gora altxatzen zuenean, uluka eta orroka beti. Gu geunden amilburuaren pare-parean, itsas barnean bost edo sei milia harantzago, uharte txiki bat ikusten zen, itxura mortukoa; edo, zehatzago mintzatuz, uhartearen kokagunea antzematzen zen, inguratzen zuten olatu ikaragarriek esker. Lehorretik bi mila inguru gertuago, beste uharte bat ikusten zen, tamainaz txikiagoa, oso malkartsua eta idorra, tarteka harkaitz ilunez inguratua.

Itsasoaren itxurak, urrutieneko uhartearen eta kostaldearen arteko puskan, bazuen zerbait oso bitxia. Nahiz eta une horretan hain gogor jotzen zuen haizeak lehorraren aldera non itsas zabalean oso urruti ageri zen brigantin bat oihal handian bi erriza jarrita baizik ekaitzetik ezin babesturik baitzebilen, eta behin eta berriz desagertzen zen haren gila, guztiz urperaturik; ez zegoen ordea olatuen joan-etorri ohikorik batera, aitzitik, itsasoak astinaldi labur, laster, hase-reak jotzen zituen, norabide guztietan, bai hai-

zearen aurrez aurre, bai beste edonola. Aparrik ez zegoen ia, ez bazen harkaitzen ondo-ondoan.

—Urrutieneko uharteari —jarraitu zuen agureak—, norvegiarrek Vurrgh deitzen diote. Erdian dagoena Moskoe da, eta Ambaaren da iparralderantz milia batera dagoena. Urrutiago Islesen, Hotholm, Keildhelm, Suarven eta Buckholm daude. Eta oraindik urrutiago —Moskoe eta Vurrgh uharteen artean—, Otterholm, Flimen, Sandflesen eta Stockholm. Horiek dira leku hauen izenak; baina zergatik izendatu behar ote ziren, hori ez dakigu ez zuk eta ez nik. Entzuten al duzu ezer? Antzematen al duzu uretan aldaketarik?

Hamar bat minutu generamatzan Helseggen-go gailurrean. Lofodengo barnealdetik igo ginen, eta, hortaz, ez genuen itsasoa ikusi harik eta gailurrera iritsi eta gure aurrean lehertu zen arte. Agurea hizketan ari zela, hots gero eta ozenago bat entzuten zela konturatu nintzen, Ameriketako zelai batean bufalo talde handi batek egiten duenaren modukoa; eta aldi berean sumatuen une hartako itsas egoera, itsasgizonek zakartua deritzaten hori zena, aldatzen hasi zela

bat-batean, eta ekialdera jotzen zuen itsaslastera bihurtzen ari zela. Begira nengokiola ere, abiada izugarria ari zen hartzen; unetik unera handitzen zen, indarragotzen. Bost minutu geroago, itsaso osoa, Vurrgh-eraino, amorru ezin gobernatuzkoan lehertzen zen; baina Moskoe eta kostaldearen artean iristen zuen amorru hark bere gorena. Han, elkarren kontrako milaka kanaletan irekitzen eta bideratzen zen uren barren zabala, eta bat-batean lehertzen zen, inarrosaldi eroetan, gora eta behera, irakinean, txistuka, zirimola erraldoi eta kontatu ezinezkoetan biraka, ekialderantz murgilduz, jauzika ez bazen zurrunbiloka, urak sekulan iristen ez duen lastertasunaz.

Minutu batzuen buruan, beste aldaketa bat gertatu zen, hura ere erabatekoa. Itsasoaren gaina zerbait berdindu zen, eta zurrunbiloak, banaka-banaka, desagertu egin ziren, eta aldi berean aparrezko zerrenda harrigarriak sortu ziren lehen halakorik batere ikusten ez zen lekuan. Aparrezko zerrenda haiek, azkenean, oso urrutira zabalduz, eta elkarri erantsita, desagertutako zurrunbiloen mugimendu birakari bera

hartu zuten, zurrunbilo handiagoa osatzeko non-bait. Bat-batean zurrunbilo handia —guztiz bat-batean— bakandu egin zen, eta milia batetik gorako diametroa zuen zirkulu bat eratu zuen. Apar distiratsuzko eraztun zabal batek osatzen zuen zurrunbiloaren ertza; baina haren tantarik ez zen batere erortzen inbutu beldurgarriaren ahora, zeinaren barrenaldea, begiak iristen ziren lekuraino, urezko horma leun, distiratsu eta beltz-beltza baitzen, ostertzari buruz berrogeita bost bat graduko angeluan makurtua, kulunka zalapartariez abiada eroan biraka eta biraka zebilena, ahots beldurgarri bat, erdi garrasi, erdi orro, bidaliz haizetara, Niagarako ur-jauzi indartsuak berak ere, bere hiltzorian, zerura jaurtikitzen duena ez bezalakoa.

Oinarrietaraino dardaratzen zen mendia, eta harkaitzek zabu egiten zuten. Buruz behera etzan nintzen, eta belar eskasei heldu nien arrunt larrituta.

—Hau —esan nion azkenean agureari—, hau Maelströmgo zurrunbilo handia da inondik ere.

—Hala esaten zaio batzuetan —esan zuen—. Guk, norvegiarrok, Moskoe-ström deitzen diogu, erdibideko Moskoeko uharteagatik.

Zurrunbilo hari buruz esaten zirenek ez ninduten inola ere prestatu ikusi berri nuenerako. Jonas Ramusen kontakizunak, horixe baita agian denetan xeheena, aztarnarik ere ez du ematen ez ikuskariaren handitasunaz, ez izugarriaz, ez behatzailea nahasten duen *berritasun* kutsu asaldagarriaz. Ez dakit ziur nondik ikusi ote zuen idazle hark zurrunbiloa, ez zein unetan. Baina ez Helseggenen gailurretik, ez behinik behin ekaitzak jotzen zuenean. Badira hala ere deskribapen horretan, xehetasunei dagokienez, hona ekar daitezkeen pasarte batzuk, oso motelak badira ere ikuskariak eragiten duen zirrara adierazterakoan.

«Lofoden eta Moskoe bitartean» dio, «hogeita hamasei edo berrogei besokoa da uraren sakona; baina beste aldean, Ver (Vurrgh) aldera, asko gutxitzen da sakontasun hori, hainbesteraingo non itsasontzi bat ezin baita igaro, ez behintzat harkaitzetan apurtzeko arriskurik gabe, ezta eguraldi ona egiten duenean ere. Itsasgora

denean, habailetan egiten du itsaslasterrak Lofoden eta Moskoe arteko bitartea; ur-jauzi ozen eta beldurgarrienak nekez berdintzen ditu uraren itsasorako itzuliak; zenbait legoa urrutira ere entzuten da zarata, eta zurrunbiloak edo osinak hain izaten dira zabalak eta sakonak, non itsasontziak, haren erakarmenaren barruan sartzen baldin badira, erremediorik gabe gertatzen baitira irentsiak eta hondoratuak, beheko harkaitzen kontra txiki-txiki egiteraino; eta ura baretzen denean, gora igotzen dira ostera ere ontzien puskak. Baina itsasaldiaren aldaketaren unean bakarrik gertatzen dira soseguzko tarteak, eguraldi ona bada, eta ordu laurden bat baino ez dute irauten, itsasoa berriz ere harrotzen hasten baita pixkana-pixkana. Itsaslasterra gogorrean dagoenean, eta ekaitz batek areagotzen badu lasterraren indarra, arriskutsua izaten da norvegiar milia bat baino barrurago sartzea. Txalupak, yateak eta itsasontziak eraman izan ditu lasterrak haren eraginpera iritsi baino lehen kontuz ez ibiltzeagatik. Era berean, noiznahi gertatzen da baleak ur-lasterretik gertuegi iritsi, eta uraren bortiztasunak menderatzea; eta halakoe-

tan ezin esan dira nolako oihuak eta intziriak egiten dituzten, libratzeko eginahal alferrekoetan. Behin artz bat harrapatu zuen itsaslasterrak Lofodendik Moskoera igeri joan nahian, behera eramane zuen, eta artzak ikaragarritzko orroak egiten zituen, lehorrean ere entzuten zirenak. Izei eta pinu enborrak, itsaslasterrak urperatuta, erruz azaleratzen dira, baina txiki-txiki eginda denak, ezpal mordo baten gisara. Horrek argi adierazten du hondoa harkaitz zorrotzezkoa dela, eta zuhaitzak-eta haien artean jirabiran ibiltzen direla. Itsaslaster hau itsasoaren gorabeherak arautzen dute, alegia, sei orduz behin izaten diren itsasgora eta itsasbeherak. 1645. urtean, emakunde-igandeko goizean, hainbeste-ko zarataz eta indarrez jo zuen non kostaldeko etxeetako harriak berak ere lurrera erori baitziren».

Uraren sakontasunari dagokionez, ezin ulertu nuen nola neur zitekeen zurrunbiloaren inguruan. «Berrogei beso» horiek Moskoeko zein Lofodengo kostaldetik gertuko kanalaren parte batzuei buruzkoak izango dira. Moskoe-strömek erdian duen sakontasunak ezin neurtuzkoa izan

behar du; aski da Helseggenko harkaitz garaie-
netik ikusten den zurrunbiloaren osinari axaleko
begiratu bat egitea hortaz jabetzeko. Beheko
Flegeton ibai hartara gure gailurretik begiratzuz,
irribarre baino ezin egin izan nuen, gogoratu
nuenean nolako xalotasunaz jasotzen dituen
Jonas Ramus zintzoak, sinesgaitzak direlakoan,
balea eta artzen pasadizoak; izan ere, guztiz
ageriko gauza iruditzen baitzitzaidan, erakar-
men hilgarri horren eraginpean gertatuz gero,
gaurko itsasontzi handiena ere luma bat uraka-
naren kontra bezain babesgabe legokeela, eta
berehala desagertuko litzakeela oso-osorik.

Fenomeno hau esplikatzeke ahaleginak —eta
batzuk, gogoan dut, aski egokiak iruditu zitzaiz-
kidan irakurri nituenean—, oso bestelakoak ger-
tutzen zitzaizkidan amildegiaren gailurretik iku-
sita, ez ninduten asetzen. Onespen zabalena
duen ideia da ezen zurrunbilo honek, eta orobat
Feroe uhartea arteko beste hiru zurrunbilo txi-
kiagoek, «beste jatorririk ez dutela, itsasgoran
eta itsasbeheran, gorakako eta behearakako ola-
tuek harkaitz eta hondarrezko uharri baten kon-
tra jotzen duten kolpea baino, zeren halako

moduan geratzen da ura han itxita, non ur-jauzi bat bezala erortzen baita; hortaz, zenbat eta goragoa itsasaldia, orduan eta beherago joaten da ura bere erorian. Zurrumbilo edo ur-zirimola bat da horren guztiaren emaitza, zeinaren xurgatze indar harrigarria, beste saio batzuei esker, aski ondo ezagutzen baita». Horiexek dira *Encyclopædia Britannicaren* hitzak. Kircher eta beste zenbaiten aburuz, Maelström-en kanalaren erdian ba omen da osin bat Lurrean sartu, eta beste nonbait, oso urrun, ateratzen dena; irtezen den lekuari dagokionez, Botniako Golkoa aipatzen dute idazle gehienek. Iritzi horri lotu zitzaion berehala nire irudimena, berez funtsik gabea zen arren; eta, nire gidariari aipatu niolarik, harrituta geratu nintzen entzun nionean esaten, nola, horixe bazen ere gai honi buruz norvegiarrek zuten ideia, berak ez zuen halakorik uste. Aurreko ideari dagokionez, ez zuela ulertzen aitortu zuen; eta horretan ados nengoen berarekin, zeren, paperean argia izanik ere, guztiz ulertu ezinezkoa bihurtzen baitzen, eta baita zentzugabea ere, osinaren trumoi haren pean.

—Ikusi duzu zurrunbiloa —esan zidan agureak—. Zatoz orain harkaitz honen atzera, eta babesean eseriko gara, hala motelagoa izango da eta itsasoaren orroa. Istorio bat kontatuko dizut, Moskoe-ström horri buruz nik ere zer edo zer badakidala sinets dezazun.

Eseri nintzen agureak esan bezala, eta istorioa kontatzen hasi zen.

—Nik eta nire bi anaiek izan genuen behin belaontzi bat, goleta modura tresnatua, hirurogeita hamar bat tonakoa. Ontzi hartan ibiltzen ginen arrantzan Moskoeren atzealdeko uhartertan, Vurrgh-tik gertu. Itsasaldi harroa den guztietan izaten da arrantza ona, une egokietan, saiatzeko kemena izanez gero; baina Lofodengo arrantzaleen artean, hirurok bakarrik joaten ginen maiz uharteetara, esan dizudan bezala. Ohiko arrantza lekuak askoz ere urrutiago daude, hegoalderantz. Han noiznahi egin daiteke arrantzan, arrisku handirik gabe. Baina inguru honetan dauden aukerako lekuetan, harkaitzen artean, askoz arrain gehiago dago, eta ugaria goa da gainera; eta hala, egun bakar batean harrapatzen genuen guk beste batzuek, halako

ausardiarik gabe, aste betean ere bilduko ez luketena. Izan ere, ausarkeria zen geurea, lana egin ordez bizitza arriskatzen baikenuen, eta kemena hartzen kapital bakartzat.

»Hemendik bost bat milia gorago dagoen badia txiki batean edukitzen genuen ontzia; eta, eguraldi ona zenean, itsasaldien arteko hamabost minutuez baliatuz, Moskoe-strömgo kanal nagusia gurutzatu eta osina baino askoz harantzago, Otterholm edo Sandflesen inguruan geratzen ginen ainguratuta, han zurrunbiloak ez baitira izaten beste lekuetan bezain bortitzak. Hantxe geratzen ginen, harik eta ia itsasaldi bitartea ailegaten zen arte, eta orduan aingura jaso eta etxera abiatzen ginen. Ez ginen inoiz itsasortzen joaterakoan nahiz etortzerakoan alboko haizerik ez bagenuen —bueltan ere faltako ez genuela ziur ez baginen—, eta gutxitan nahasten ginen horretan. Sei urtean, itsasoaren baretasuna zela-eta, bi bider geratu behar izan genuen gau osoaz aingura botata, barealdiak ez baitira askotan gertatzen hemen; behin kasik aste betez geratu behar izan genuen arrantza lekuan, goseak akabatzen, bertara ailegatu eta

berehala altxatu zen haize eraso bat zela-eta. Arriskua hain zen handia, non erokeria baitzen gurutzatzen hastea. Orduko hartan, itsasoan barneratuko gintuen itsaslasterrak (zeren zurrunbiloek jira eta jira ibili baikintuzten, eta halako indarrak, non azkenean aingura askatu, eta herrestan eraman baikenuen), baldin eta zeharka doazen itsaslaster ugarietako batean sartu ez bagina —hemen da gaur, eta joana da bihar—; harexek eraman gintuen Flimengo babeslekuraino, eta han, Jainkoari eskerrak, gelditu ahal izan ginen.

»Gure arrantza lekuan aurkitzen genituen arazoen hamarrena ere ezingo nizuke kontatu. Oso leku txarra da bertan egoteko, baita eguraldia ona denean ere; baina beti moldatzen ginen Moskoe-strömen erronka istripurik gabe gaintzitzeko, nahiz eta batzuetan bihotza ere estaturik izaten nuen, barealdia baino minutu bat lehena-go edo geroago iristen ginenetan. Haizea batzuetan ez zen izaten hasieran iruditu bezain indartsua, eta halakoetan nahi baino bide laburragoa egiten genuen, itsaslasterraren indarratik ontzia gobernatu ezin da. Anaia zaharre-

nak bazuen hemezortzi urteko seme bat, eta neuk ere banituen bi mutil galant askoak. Ederki lagunduko ziguten halakoetan, bai arraunean, bai arrantzan; alabaina, geure buruak arriskatu bai, baina bihotzik ez genuen gazteei arriskura joaten uzteko; zeren, esan dizudanagatik ere, izugarrizko arriskua *baitzen* hangoa, eta gezurra litzateke besterik esatea.

»Egun batzuk falta dira kontatu behar dizudana gertatu zenetik hiru urte betetzeko. Uztailaren hamarra zen, 18...go urtean, munduaren parte honetako jendeak inoiz ahaztuko ez duen eguna, sekula zeruetatik etorri den urakan ikaragarrienak jo baitzuen. Baina goiz osoan, eta arratsaldean berandu arte, hego-mendebaldeko haize gozo leuna izan zen eta eguzkiak distiratsu argitzen zuen. Gure arteko itsasgizon zaharrenak ere ez zuen iragarriko ondoren zetorrena.

»Eguerdiko ordubiak aldera abiatu ginen hirurok —bi anaiak eta neu— uharteetara, eta arrain ederrez bete genuen berehala ontzia; inoiz ikusi genuena baino arrain gehiago zegoen egun hartan, hirurok esan genuen. Strömgo parterik txarrena itsasaldien artean egiteko asmoa

hartuta, zazpiak-edo izango ziren —nire erlojuan—, aingura jaso eta etxerako bidea hartu genuenean, bai baikenekien zortzietan izango zela itsasaldi bitartea.

»Istriborko haize ederra genuela itsasoratu ginen, eta puska batean bizi-bizi joan ginen, arriskuaz akordatu ere gabe, ez baikenuen sumatzen arriskuaren arrastorik batere. Bat-batean, aurrez aurre jo gintuen Helseggendik zetorren haize bolada batek. Oso gauza bitxia zen —sekula ez zitzaigun halakorik gertatu—, eta larritzen hasi nintzen, zergatik ondo jakin gabe ere. Ontzia haize kontra jarri genuen, baina, bareguneak zirela-eta, ahaleginak eginda ere ezin genuen aurrera egin. Ainguratuta egondako lekura itzultzea proposatzekotan nintzela, txopara begiratu, eta abiada txundigarriaz altxatzen zen hodei kobre-kolore bitxi batek estalia ikusi genuen ostertza.

»Bitarte horretan, desagertu egin zen bultzatzen gintuen haizea, eta bare-bare geratu ginen, batera eta bestera kulunkan. Egoera horrek, nolana ere, ez zuen askorik iraun, ez behintzat hartan pentsatzeko beta izateko. Minutu bat

pasa baino lehen, gainean genuen ekaitza; bi minutu joan ez, eta zerua osorik zegoen estalia. Eta horrekin, eta itsasoaren aparrarekin, hainbeste ilundu zuen, non ontzikoek elkar ikusi ere ez baikenuen egiten.

»Alferrik da orduan jo zuena bezalako urakan bat deskribatzen saiatzea. Norvegiako itsasgizon zaharrenak ere ez du sekulan halakorik ikusi. Haizeak harrapatu baino lehen hedatu genituen bela guztiak; baina, aurreneko erasoaldian, han joan ziren zerratu balituzte bezala gure bi mastak itsasora... eta masta nagusiak berekin eramán zuen gure anaia gazteena, hari lotu baitzitzaien seguruago egotearren.

»Uretan ipini den lumarik arinena zen gure ontzia. Gaina erabat itxia zeukan; ataka bat besterik ez zegoen brankaren aldean, eta hura ondo-ondo ixten genuen beti Ströma gurutzatu behar genuenetan, itsaso harroaren kontra babesteko. Horregatik izan ez balitz berehala hondoratuko ginen, zeren zenbait minutuz urpean egon baikinen osorik. Ezin esan dut anaia zaharrena nola libratu zen itotzetik, ikusteko betarik ere ez bainuen izan. Niri dagokidanez,

trinketa askatu bezain laster, luze-luze etzan nintzen ontzian, brankako karel estuaren kontra oinak ipini, eta, eskuekin, masta nagusiaren oinarritik gertu zegoen burdinazko uztai bati heldu nion. Sen hutsez jokatu nuen —horixe zen ordea egin nezakeen gauzarik hoberena—, pentsatzeko ere ikaratuegia nengoen-eta.

»Zenbait minutuz, esan dudan bezala, erabat urperatuta egon ginen, eta denbora horretan guztian arnasari eutsi nion, uztaiari helduta. Gehiago ezin iraun izan nuenean, eskuak askatu gabe, belauniko jarri nintzen, eta, hala, burua atera ahal izan nuen. Une hartan gure ontzitzoak astindu bat egin zuen, zakur batek uretatik ateratzean egiten duen bezalakoxea, itsasoaz apur bat libratzeko. Ahaleginean ari nintzen gaineratu zitzaidan sorgortasuna gainditu nahian, nire onera etorri eta zer egin pentsatzeko, eta hartan norbaitek besotik heltzen ninduela sentitu nuen. Anaia zaharrena zen, eta bihotzak pozez jauzi egin zidan, etsita bainengoen itsasoan zela; baina hurrengo unean izu-laborri bihurtu zen poz hura, zeren ahoa nire belarrian ipini,

eta, garrasika, hitz hau esan baitzidan: *Moskoe-ström!*

»Sekula inork ez du jakingo nolako zirrara sentitu nituen une hartan. Burutik oinetara hasi nintzen dardarka, sukarraldi gogor batek jota bezala. Ondo asko ezagutzen nuen hitz haren esanahia. Banekien zer adierazi nahi zidan anaiak. Une hartan bultzatzen gintuen haizearekin, zuzenean gindoazen Strömgo zurrunbilora, eta ezerk ezin gintuen salbatu.

»Konturatuko zinenez, Strömgo kanala gurutzatuz zurrunbiloa baino askoz gorago joaten ginen beti, baita eguraldi bareenarekin ere, eta zain geratzen ginen gero, kontuz eta arretaz, barealdia noiz iritsiko; baina orduko hartan zuzen-zuzen gindoazen zurrunbilora... Noiz eta hura bezalako urakan batek jotzen zuenean! «Seguru aski, pentsatu nuen, lasaialdiaren unean iritsiko gara hara... eta horrekin izan dezakegu itxaropenik». Baina hurrengo unean neure burua madarikatu nuen, itxaropenean pentsatzeko bezain ergela izateagatik. Bai bainekien, ondo asko gainera, galduak ginela, baita

itsasontzi hamar aldiz handiago batean egon bagina ere.

»Joana zen ordurako ekaitzaren lehen erauntsia, edo beharbada ekaitzaren aurretik gindoa-
zelako ez genuen hainbeste sentitu; nolana-
hi ere, lau eta apartsu eduki zuen haizeak hasieran
itsasoa, baina gero mendi eskergetan hasi zen
altxatzen. Zeruan ere aldaketa bitxi bat gertatu
zen. Oraindik bel-beltza zegoen, baina, guztiz
bat-batean, oskarbi agertu zen gure gainean,
sekulan ezagutu dudan zerurik argiena, urdin
kolore bizi-bizikoa, eta hantxe ageri zen ilargi
betea, ikusi gabea nintzen bezalako distiraz.
Zehaztasunik handienaz argitzen zuen gure
inguru guztia. Baina, Jainkoa, hura ikuskaria argi-
tzen zuena!

»Anaiarekin hitz egiten ahalegindu nintzen;
baina, ezin ulertu nuen modu batez, hainbeste-
raino handitu zen burrunba non ez baitzidan
hitzik aditzen, belarrira ikaragarritzko garrasiak
eginagatik ere. Halako batean buruari eragin
zion, heriotza bezain zurbil, eta hatz bat luzatu
zuen, esateko bezala: *entzun!*

»Hasieran ezin nuen ulertu zer esan nahi zidan, baina ideia gaizto bat bururatu zitzaidan segituan. Erlojua atera nuen sakelatik. Ez zebilen. Ilargiaren argitan erreparatu nuen, negarmalkoetan lehertu nintzen, eta itsasora bota nuen. *Zazpietan geratua zen! Pasea zen barealdia, eta furia bete-betean zegoen Strömgo zurrunbiloa!*

Itsasontzi bat ondo egina denean, ondo tresnatua badago, eta zama handirik ez badu, hai-zeak bultzatzen du ekaitz gogorra denean, eta olatuak ontziaren azpitik irristatzen direla ematen du beti (oso gauza bitxia iruditzen zaio hori lehorrekoari); zamalkatzea esaten zaio horri itsasoko hizkeran. Kontua da ordu arte oso ondo joan ginela olatuen gainean, zamalkatuz; baina une hartan ur puska erraldoi batek hartu gintuen beheko txopatik, eta berarekin eraman gintuen gora egin zuenean, gora eta gora, zeruraino igoko bagina bezala. Olatuak hain handiak izan zitezkeenik ez zitzaidan burutik pasa ere egingo. Eta gero behera joan ginen, abailetan, irristatuz eta murgilduz, eta, zorabioak hartuta, arrunt gaizkitu nintzen, mendi tontor handiren batetik

behera ametsetan eroriko banintz bezala. Goi-goian ginenean begiratu azkar bat egin nuen ingurura... eta aski izan nuen. Istant batean ikusi nuen zehatz-mehatz non ginen. Moskoe-strömgo zurrunbiloa milia laurden bat aurrerago zegoen; baina hura ez zen betiko Moskoe-ström, zuk hemen ikusten duzun zirimola hau putzu batekoa ez den bezala. Non ginen jakin ez banu, eta zer espero behar genuen, ez nuen leku hura eza-gutuko. Gauzak ziren bezalakoak izanik, izumenez itxi nituen begiak. Betazalak elkarrekin lotzen zitzaizkidan, espasmoak jota bezala.

»Ez ziren bi minutu baino gehiago pasatuko, eta bat-batean olatuak txikiagotzen ari zirela sumatu genuen, eta aparrak inguratzen gintuela. Ontziak bira erdi bat egin zuen ababor aldera, eta tximista bezala abiatu zen gero norabide hartan. Une hartan bertan, ulu zorrotz baten moduko zarata batek ito zuen uraren orroa... Ehunka lurrin baporek beren lurrina batera botata egingo luketenaren moduko zarata zen. Iritsiak ginen zurrunbiloa inguratzen duen aparrezko eraztunera; eta pentsatu nuen, jakina, osinean murgilduko ginela ondoren. Osinaren

barrenaldea ezin genuen ondo ikusi, bultzatzen gintuen lastertasun txundigarria zela-eta. Belaontzia ez zirudien urperatuko zenik, aldiz, airezko burbuila bat bailitzan zihoan olatuen gainetik, irristadan bezala. Itriborra zegoen zurrunbiloaren aldean, eta ababorretik altxatzen zen utzi berria genuen itsas zabala. Horma eskerga bat dardarka jarri, eta halaxe altxatzen zen itsaso gu eta ostertzaren artean.

»Harrigarria emango du, baina une hartan, osinaren ahoan bertan ginela, lasaiago sentitu nintzen inguratzen ari ginenean baino. Itxaropenik gehiago ez izatea erabakita, joan egin zitzaidan hasieran zoratuta eduki ninduen izuaren parte handi bat. Etsipenak sosegatuko zizkidan noski nerbioak.

Harrokeria dirudi —bene-benetan ari natzaizu ordea—, baina gogoetan hasi nintzen zeinen gauza handia zen modu horretan hiltzea, eta zorakeria zela nire bizitza bezalako huskeriaz arduratzea, Goikoaren ahalmenen erakusgarri hain zoragarria ikusteko aukera izanik. Uste dut lotsaz gorritu ere egin nintzela ideia hori bururatu zitzaidanean. Zirimolari berari buruzko jakin-

min handi batek hartu ninduen geroxeago. Sentitu nuen, benetan, haren zokoak esploratzeko *desira*, baita egin behar nuen sakrifizioa ordainduz ere; eta lehorreko lagun zaharrei ikustekotan nintzen misterioen berri eman ezina, horixe nuen penarik handiena. Ideia horiek, dudarik ez dago, bitxiak dira gizon batek noiz eta halako egoera batean buruan ibiltzeko; orduz geroztik sarritan pentsatu izan dut burua ez ote zidaten arindu ontziak osinaren inguruan egiten zituen itzuliek.

»Beste gauza bat ere izan zen, berriz ere neure onera ekarri ninduena; haizea geratu egin zen, ezin baikintuen harrapatu une hartan geunden lekuan. Izan ere, zerorrek ikusten duzunez, aparrezko eraztuna askoz ere beherago dago itsasoaren maila baino; une hartan ordea gure gainetik zegoen, horma altu, beltz, eskerga bihurtuta. Ekaitz gogor batean ez bazara itsasoa sekula suertatu, ezin zara konturatu zenbaterainoko buru nahasketa sortzen duten haizeak eta aparrak batera. Itsutu egiten zaituzte, gortu, ito, eta ezer egiteko edo pentsatzeko ahalmena kentzen dizute. Baina orduan, neurri batean

behintzat, libre ginen horrelako eragozpenetik, heriotzara kondenatutako gaizkileek litxarrera batzuk, kondena oraindik ziurra ez zenean debekatuak zituztenak, libre dituzten bezala.

Ezin esan da zenbatetan egin genuen eraztunaren buelta. Jira eta jira aritu ginen, ordubetez beharbada, itsas azaletik baino areago itsas gainetik hegan, indargunearen gero eta erdirago, haren barneko ertz beldurgarritik gero eta hurbilago. Denbora horretan guztian ez nuen uztaia askatu. Anaia beheko txopan zegoen, karelaren azpian ondo lotuta zegoen upel huts bati helduta, huraxe baitzen aurrenekoz harrapatu gintuenean ekaitzak eraman ez zuen gauza bakarra. Osinaren ertzer a hurbiltzen ari ginenean, upela askatu, eta uztaian lotzera etorri zen anaia; bere izumenaren hilzorian, nire eskuak apartatzeko ahaleginetan hasi zen, uztaia ez baitzen bioi helduleku segurua eskaintzeko bezainbestekoa. Sekulan ez dut min handiagorik sentitu ahalegin horretan ikusi nuenean baino, une hartan erotuta zegoela ondo nekien arren, beldurraren ikaragarriak guztiz zoratutako gizona zela. Baina borrokan hasi ere ez nintzen egin. Ederki asko

nekien ez zuela axola biotatik zeinek heltzen zion uztaiari; hortaz, nire lekua utzi nion eta txo-para joan nintzen, upelera. Ibiltzea ez zen gauza zaila; izan ere, ontzia seguru mugitzen baitzen, maila beti berean, zurrunbiloaren olatu eta mugimendu ikaragarriekin zabu eginez bakarrik. Ez al nintzen nire helduleku berrian kokatu, zabu ikaragarria egin genuen istribor aldera, eta zuze-
nean amildu ginen zulora. Otoitz isil labur bat egin nion Jainkoari, eta dena bukatu zela pentsatu nuen.

»Beheraldiaren zorabioarekin, oharkabean estutu nituen eskuak upelaren gainean, eta begiak itxi nituen. Zenbait segundoz, berehalako suntsitzea espero bainuen, ez nintzen begiak zabaltzen ausartu, eta harritu ere egin nintzen ez nebilelako uraren kontra heriozko borrokan. Baina han joan zen une bat bestearen ondoren, eta bizirik nengoen oraindik. Erortzearen senti-pena eten egin zen; eta ontziaren mugimenduak aurreko bera zirudien, alegia, aparrezko eraztunean geundenean bezalakoa, ontzia lehen baino makurtuago zegoela izan ezik. Adore hartu, eta begiak ireki nituen ostera.

»Inoiz ez dut ahaztuko nolako beldur, izumen eta miresmenez begiratu nuen nire ingurura. Ontzia zintzilik geratu zela zirudien, magia bezala, berehazko bidearen erdian, zirkunferentziaz izugarri handia eta sakonean harrigarria zen inbutu baten barruko azalean. Inbutuaren horma guztiz leunak ebanoarekin nahastuko ziren, baldin eta lastertasun beldurgarriaz jiratu-ko ez balira, eta argitasun dirdaitsu fantasmagorikoa igorriko ez balute, zeren ilargi betearen izpiak, lehenago deskribatu dudan hodeien arteko soilune biribiletik irtenda, urre kolorezko uholde loriagarri bat osatuz sartzen baitziren horma beltzen artetik, eta baita askoz beherago ere, osinaren bazter barrenekoetaraino.

»Ezeri erreparatzeko ere nahastuegia nengoen hasieran. Handitasun ikaragarri haren eztanda besterik ezin nuen ikusi. Neure onera itzultzen hasi nintzenean ordea, begiak berez joan zitzaizkidan beherantz. Osinaren azal makurtuan belaontzia zintzilik zegoen moduagatik, eragozpenik gabeko bista nuen norabide hartan. Gila galgatu zegoen, hau da, ontziaren gaina paralelo zegoen uraren planoari buruz, baina ura

berrogeita bost gradutik gorako angeluan zegoen makurtuta, eta, hortaz, alboratuta geundela ematen zuen. Alabaina, konturatu nintzen ez nuela askoz neke handiagorik hartu behar neure buruari eusteko ontzia zuzen balego baino; biratzearen lastertasunari zor zitzaion hori nik uste.

»Ilargiaren izpiek osinaren azken-azkenera iritsi nahi zutela irudi zuen. Hala ere, behea osorik biltzen zuen laino trinkoa zela-eta, ezin nuen ezer ondo bereizi. Ostadar bikain bat ageri zen lainoaren gainean, musulmanen ustez Denboraren eta Betikotasunaren arteko bide bakarra den zubi estu eta kulunkari hori bezalakoa. Laino hori, edo bitsa, inbutuaren pareta handien elkar jotzeak sortzen zuen dudarik gabe, behe-behean elkartzen baitziren denak; baina laino hartatik Zeruetara igotzen zen ulua, hori ez naiz deskribatzen ausartzen.

»Goiko eraztun aparrezkotik osinera bertara erori ginenean oso urruti joan ginen maldan behera; baina ondorengo beheraldia ez zen inola ere aurrenekoaren parekoa izan. Jira eta jira aritu ginen, ez mugimendu uniformeetan, zabu eta astindu zorabiozkoetan baizik. Zabu eta

astindu haiek iarda gutxi batzuk mugiarazten gintuzten zenbaitetan, eta besteetan berriz zurrunbiloaren jira osoa eginarazten ziguten ia-ia. Beherakada, bira bakoitzean, motela zen, baina erraz antzemateko modukoa halere.

»Era horretan gindoazen ebanozko isuri zabal hartara begiratzuz, laster konturatu nintzen gure ontzia ez zela zurrunbiloaren barruan zegoen gauza bakarra. Itsasontzi puskek ageri ziren gure gainetik nahiz azpitik, egur masa handiak eta zuhaitz enborrak, eta bestelako gauzak ere erruz, txikiagoak ordea, etxeko altzarien puskek, kutxa hautsiak, upelak eta oholak. Aipatu dut lehenago ere nire hasierako izu-laborrien lekua hartu zuen jakin-nahi naturaren kontrakoa. Nire patu beldurgarrira hurbildu ahala, jakin-nahi hori hazi egiten zela ematen zuen. Begira jarri nintzen, interes bitxiz, inguruan zebiltzan gauza ugarietara. Zoratuta *behar* nuen egon, zeren *dibertsioa* ere bilatzen bainuen, beheko apararren alderako jaitsialdien lastertasun erlatiboan gainean gogoetan. «Izei zuri horrek», aurkitu nuen halako batean neure burua esaten, «horre-
xek jauzi egingo du hurrena, eta horixe desager-

tuko da», eta gero zapuztuta geratzen nintzen, ikusirik lehenago desagertzen zirela, zuhaitzari aurrea hartuta, salgai-ontzi holandar baten hondakinak. Azkenean, era horretako hainbat saio egin ondoren, eta denetan huts eginik, hortaz ohartzeak —alegia, huts egiten nuela beti—, beste hausnarbide batean abiarazi ninduen, eta zangoak berriz ere dardarka jarri zitzaizkidan, eta taupada lasterrean hasi zitzaidan ostera bihotza.

»Ez zen ikara mota berri bat nigan hainbeste-ko eragina izan zuena, *itxaropen* zirraragarriago baten sorrera baizik. Itxaropen hori, partez, memoriatik sortzen zen, eta partez ikusten ari nintzenetik. Gogora etorri zitzaidan, nola, Lofodengo kostaldean barreiatuak, era askotako gauzak agertzen ziren, Moskoe-strömek bere-tuak aurrea eta egotziak gero. Gauza gehienak txiki-txiki eginda egoten ziren, modu harrigarrian: marraskatuta bezala eta ezpalduta irteten ziren, halako moduan non zotz mordoa baitziruditen; baina gero garbi-garbi gogoratu nuen nola izaten ziren *gauza batzuk* batere desitxuratu gabeak. Diferentzia hori ordea ezin nuen esplika-

tu, ez bazen pentsatuz *gutziz irentsiak* gertatu zirenak zirela gauza ezpalduak, eta besteak berriz itsasaldiaren beranduko aldi batean sartuko zirela zurrunbiloan, edota, zerbaitengatik, sartu eta hain mantso jaitsi zirela, non ez baitziren hondoa ukitzera iritsi itsasgora edo itsasbera baino lehen, zer tokatzen zen. Iruditu zitzaidan, kasu batean zein bestean, gauza haiek zurrunbiloak berak itzuli ahal izan zituela itsasaren azaleraino, eta ez zutela lehenago hondoratuak edo lasterrago irentsiak gertatu zirenen patu bera pairatu. Aldi berean, hiru gauza garrantzitsuz ohartu nintzen. Lehenik, arau orokor gisa, zenbat eta handiagoak gorputzak, lasterragoa izaten zen haien beheraldia; bigarren, neurri bereko bi masaren artean, esferikoa izanik bata, eta bestea *beste edozein formatakoa*, esfera jaisten zen beti lasterrena; hirugarren, neurri bereko bi masaren artean, bat zilindrikoa bazen, eta bestea beste edozein formatakoa, motelago hondoratzen zen zilindroa. Nire ihesaldiaz gero, frankotan hitz egin dut gai honen gainean gure barrutiko eskola-maisu batekin; eta harengandik ikasi dut nola erabiltzen diren “zilindri-

dro” eta “esfera” hitzak. Harexek esplikatu zidan —ahaztu zait ordea esplikazioa—, ur azalean zeuden pusken formaren berezko ondorioa zela nik antzeman nuena, eta erakutsi zidan nola zilindro batek, ur zurrumbilo baten azalean, erresistentzia handiagoa jartzen dion hondoratzeari, eta nekezago barneratzen den, neurri bereko gorputz batek baino, edozein delarik ere gorputz horren forma.

»Bazen beste gertaera harrigarri bat ideia horiek biziki sendotzen zituena, eta ziurtatzeko grina piztu zidana; izan ere, upela zirudien gauza bat gainditzen genuen jira bakoitzean, edo ontzi baten bela-zurruna edo masta, eta haien antzeko beste asko. Eta non konturatzen naizen ezen, zurrumbiloaren zoragarria ikusi nahian begiak zabaldu nituenean, lehen gure maila berean egondako gauzak, gu baino askoz ere gorago zeuden oraingoan, eta ez zuen ematen askorik mugitu zirenik hasieran zeuden lekutik.

»Ez nuen zalantzarik egin. Helduta nengon upelera estu lotzea erabaki nuen, hura karelpetik askatu, eta upelean lotuta uretara jauzi egin. Keinuka, gugandik hurbil zebiltzan upelak sein-

latuz, abisu egin nion anaiari, eta ahal nuen modu guztietan ahalegindu nintzen nire asmoak adierazten. Azkenean iruditu zitzaidan ulertu zuela nire ideia; baina, ulertu ala ez, etsipenez eragin zion buruari, eta uko egin zion uztaiaren ondoko leku hartatik mugitzeari. Ezin iritsi nintzen berarengana; larritasunak ez zidan atzerapenerako betarik ematen, eta hala, borrokaldi latz baten ondoren, bere patuari jarrai zekion utzi nion; upela karelpean estekatzen zuten uha-
lez baliatuz, upel hartan bertan neure burua lotu eta jauzi egin nuen itsasora, duda-mudatan ibili gabe.

»Espero nuen huraxe izan zen emaitza. Istorio hau neroni ari natzaizu kontatzen, ikusten duzu handik *ihes egin* nuela, eta nola ere bada-kizu. Aldez aurretik asmatuko duzu beraz esan behar dizudan guztia, eta, hortaz, labur amaitu-ko dut nire istorioa. Ordubete-edo pasatuko zen ontzia utzi nuenetik, eta halako batean, ni baino askoz beherago joan ondoren, ontziak lau edo bost bira egin zituen segidan, oso laster, eta, nire anaia maitea berarekin zeramala, zuzen-zuzen murgildu zen, bat-batean eta betiko,

beheko aparraren kaosean. Ozta-ozta jaitsia zen lotuta nengoen upela osinaren hondoaren eta ontzitik jauzi egin nuen lekuaren arteko distantziaren erdia baino beherago, eta, hartan, aldaketa handi bat gertatu zen zurrunbiloaren nola-koan. Gutxitzen hasi zen inbutu zabalaren alboen malda. Zurrunbiloaren birek indarra galtzen zuten pixkana. Mailaka-mailaka, aparra eta ostadarra desagertu ziren, eta osinaren behealdea goratzen ari zela irudi zuen. Zerua oskarbi zegoen, desagertua zen haizea, eta ilargi beteak distiratsu argitzen zuen mendebaldean, Lofodengo kostaldea begien bistan nuela, itsasoaren azalean agertu nintzenean, Moskoe-strömgo osina *egondako* lekuaren gainean. Barealdiaren ordua zen, baina, urakanaren ondorioz, olatu izugarrietan altxatzen zen oraindik itsasoa. Olatuek bultzatu ninduten Strömgo kanalera, eta minutu gutxian kostaldera heldu nintzen, arrantza lekura. Itsasontzi batek jaso ninduen, nekeak leher-tuta, eta (desagertua baitzen arriskua) izumena-ren oroitzapenarekin hitzik egin ezinik. Lankide zaharrak nituen ontzira igo nindutenak, egunero-ko lagunak; ez ninduten ezagutu ordea, espiri-

tuen mundutik etorria ezagutuko ez zuten bezala. Bezperan bel-beltza nuen ilea, eta orain ikusten duzun bezain zuria nekarren. Aurpegiera ere guztiz bestelakoa omen nuen. Kontatu nien nire istorioa, baina ez zuten sinetsi. Orain *zuri* kontatzen dizut, baina ez dut espero Lofodengo arrantzale alaiek baino errazago sinetsiko duzunik.

Erretratu obala

Gaztelu hura, nire zerbitzariak, nire zauri larri haiekin gaua kanpoan pasatzen utzi baino, oldarrean sartu nahiago izan zuena, iluntasuna eta handitasuna bateratzen dituzten eraikin erraldoi horietako bat zen, Apeninoetan han-hemen luzaro kopetilun egon direnetakoa, ez gutxiago errealitatean Radcliffe andrearen irudimenean baino. Itxura osoa zuen utzi berria zela,aldi baterako nonbait. Gela txikien eta altzari soile-neko batean hartu genuen egoitza. Gazteluko dorre urrun batean zegoen. Apaingarri aberatsak zituen, hondatuak eta zahartuak ordea. Hormak tapizez estaliak zeuden, eta era askotako armarriez apainduak; margolan modernoak ere asko zeuden, bizitasunez beteak, arabeskozko marko urre-kolore aberatsetan ipiniak. Margolan haiek —eta ez zeuden hormetan bakarrik zintzilika-tuak, aitzitik, baziren gazteluaren arkitektura bitxiak sorrarazten zituen zoko ugarietan ere—; margolan haiek biziki erakarri ninduten, nire eldarnio hasi berriagatik beharbada; gelako ate-

leihu astunak itxi zitzala eskatu nion, bada, Pedrori —gaua baitzen ordurako—, piztu zitzala nire ohearen burualdean zegoen argimutil luze baten kandela guztiak, eta zabal zitzala alderik alde ohea inguratzen zuten belus beltzezko errezel parpailadunak. Halaxe nahi nuen gela, gero, loak hartzen ez baninduen, besterik ezean, margolan haiei begiratu eta burkoaren gainean aurkitu nuen liburutxo bat, margolanak kritikatzin eta deskribatzen omen zituen, aztertu ahal izateko.

Luze, oso luze, aritu nintzen irakurtzen, eta arduraz, ardura handiz, begiratu nituen margolanak. Laster eta atsegin joan zitzaizkidan orduak, eta iritsi zen gauerdia. Argimutila ez zegoen lekuri egokienean, eta, nire zerbitzaria erdi lotan zegoenez, ez bainuen esnatu nahi, neke handiz eskua luzatu eta lekuz aldatu nuen, argiak liburu gainean beteago jo zezan.

Inola ere espero ez nuen ondorioa izan zuen ordea mugimendu hark. Kandelen argi izpiek (kandela asko baitzen), horma-zulo bat argitu zuten, ordu arte ohearen habeetako baten itzal ilunean ezkutaturik geratua. Era horretan ikusi

nuen garbi-garbi han zegoenik ere sumatu ez nuen margolan bat. Neska gazte baten erretratu zen, justu-justu emakumetzen ari zen unekoak. Margolanari begiratu arin bat egin, eta begiak itxi nituen. Zergatik itxi oten nituen, neronek ere ez nekien hasieran. Baina betazalak bilduta nituela, bururatu zitzaidan zergatia. Bere kasa itxi zitzaizkidan, pentsatzeko denbora irabazteko, begiek engainatu ez nindutela ziurtatzeko, irudimena baretu eta menderatzeko, eta, hala, sosegatuago eta ziurrago begiratu ahal izateko. Handik minutu gutxira berriz erreparatunon, zuzen-zuzenean, margolanari.

Orduko hartan ondo ikusten nuela, hortaz ezin nuen eta ez nuen dudarik egin; zeren ematen baitzuen oihala jo zuen lehen izpiak desagerarazi zidala zentzumen guztietara zabaldua nuen lozorro ameslari hura, eta berehalakoan esnatu ninduela.

Erretratu, esan dut lehen, neska gazte batena zen. Haren burua eta lepoaldea besterik ez zuen hartzen, eta teknikoki *vignette* deritzan moduan egina zen, Sullyren buru gogokoenen tankerara. Besoak, bularra, baita ile distiratsua-

ren ertza bera ere, ezin antzemateko moduan desagertzen ziren erretratuaren atzealdea osatzen zuen itzal lauso baina sakonean. Markoa obala zen, urre kolore aberatsekoa eta estilo moriskoko filigranez apaindua. Artelan zen neurrian, ezin zitekeen gauza miresgarriagorik izan margolan hura baino. Baina ez lanaren egikerak, ez begitartearen edertasun hilezkorrak, ezin izan ninduten hain bat-batean eta hain barruraino asaldatu. Are gutxiago izan zitekeen nire irudimenak, bere lozorrotik astinduta, buru hura pertsona bizi batenarekin nahastu izana. Berehala konturatu nintzen marrazkiaren berezitasunek, *vignette*arenak, eta markoarenak, sortu bezain laster uxatu zutela ideia hori, instant bakar batez ere halakorik pentsatzea eragotzi zutela. Pasatuko nuen ordu bete agian gauza horiez hausnarreran, erdi eserita, erdi etzanda, begiak erretratuan iltzatuta. Azkenean, margolanaren efektuaren benetako sekretuarekin lasaiturik, ohe gainean etzan nintzen osterera. Adierazpenaren *bizitasun itxura* erabatekoan aurkitu nuen margolanaren lilura, eta hasieran bizitasun hura harrigarria gertatu bazitzaidan ere, azkenean nahasi,

menderatu eta guztiz izutu ninduen. Zirrara sakon eta errespetuzko batez, lehengo lekuan jarri nuen berriz argimutila. Begien bistatik urrunduta beraz nire asaldura haren eragilea, margolanak eta haien historiak agertzen zituen liburura jo nuen larri. Erretratu obala izendatzen zuen zenbakira joan, eta hantxe irakurri nituen ondorengo hitz lauso eta bitxi hauek:

«Edertasun guztiz bereziko dontzeila zen, eta maitagarria bezain bizitasunez betea. Eta zoritxarrekoa izan zen margolaria ikusi, eta maitatu, eta esposatu zuen eguna. Gizona, suharra, jakin-zalea, zorrotza, eta Artearekin jada ezkondua; neska, edertasun berezieneko dontzeila, eta maitagarria bezain bizitasunez betea; oro argitasun eta irribarre, eta oreinkumea bezain jostaria; gauza guztiak maitatzen eta gozatzen zituena; Artea baino gorroto ez zuena, hura baitzuen are-rioa; bere maitearen begitarte lapurtzen zioten paletak eta pintzelak eta gainerako tresna gaiztoek bakarrik ikaratzen zutena. Hala bada, izugarria izan zen dama harentzat margolaria bere emazte gaztearen erretratua egiteko desioaz mintzatzen entzutea. Emakume apala zen ordea,

eta esanekoa, eta umil-umil eman zituen aste asko eta asko dorreko gela ilun, altuan eserita, argiak oihal zurixka goitik bakarrik jotzen zuen gela hartan. Baina bera, margolaria, bere lanaz loriatzen zen, eta orduak eta orduak, egunak eta egunak ematen zituen lanean. Eta gizon suharra zen, eta gogorra, eta haserrea, ametsetan galtzen zena; eta *ez zuen ikusi nahi* dorre bakartu hartan halako modu beldurgarrian jotzen zuen argiak nola hondatzen zituen bere emaztearen osasuna eta indarra, ahitzen ari baitzen bere senarraz beste guztien bistan. Hala ere emazteak irribarre egiten jarraitzen zuen, kexurik gabe, zeren ikusten baitzuen atsegin arras bizia hartzen zuela margolariak (zeinak ospe handia baitzuen) bere egitekoan, eta gau eta egun aritzen zela bere senarra hain maite zuen, baina hala ere egunetik egunera motelagotzen eta ahultzen zen hura margotzen. Eta erretratua ikusi zuten batzuek antza aipatzen zuten, isilka, mirarizko gauza bailitzan, eta margolariaren gaitasunaren froga bezainbeste, hain zoragarri margotzen zuen emaztearenganako maitasunaren froga balitz bezala. Baina azkenean, lana

bukatzen ari zenean, inori ez zioten uzten dorrean sartzen; erotu egin baitzen margolaria bere lanaren eginahalean, eta begiak ez zituen oihaletik ia apartatzen, ezta emaztearen begitar-teari so egiteko ere. Eta ez *zuen* konturatu nahi aldamenean eserita zeukan emakumearen masailetatik atereak zirela oihalean zabaltzen zituen koloreak. Eta aste asko iragan, eta egiteko gutxi geratzen zenean, ez bazen pintzelkada bat ahoan eta tanta bat begian, sugarra lanparen zuloan nola, hala dardaratu zen berriz damaren izpiritua. Eta orduan pintzelkada jo zuen margolariak, eta ipini zuen kolorea bere lekuan; eta, une batez, zurtuta geratu zen berak sortu zuen lan haren aurrean; baina hurrengo unean, lanari begira oraindik, dardarak hartu zuen eta guztiz zurbildu zen, eta, izaturik, oihuka “Bizitza bera da, bai, hau!”, bere maiteari begiratzerantz itzuli zen: ... *Hila zen!*»

Bihotz salataria

Egia da, bai! Urduria izan naiz beti, ikaragarri urduria, eta halakoxea naiz orain ere; baina eroa naizela, zergatik diozue hori? Eritasunak zentzuak zorroztu dizkit, ez ezabatu, ezta moteldu ere. Ororen gainerik, entzumena zorroztu dit. Gauza guztiak entzuten nituen, lurrekoak eta zerukoak. Infernuko gauza asko entzuten nituen. Nola izango naiz bada eroa? Entzun! Entzun zeinen osasuntsu, zeinen lasai kontatzen dizuedan istorio osoa.

Ezin esan dut ideia hura aurrenekoz nola etorri zitzaidan burura; baina behin sortuz gero, gau eta egun zebilkidan buruan. Helbururik ez nuen batere. Ez nuen grinarik sentitzen. Maite nuen agurea. Ez zidan sekula okerrik egin. Sekula ez ninduen iraindu. Ez nuen haren urrea desiratzen. Agurearen begia izan zela uste dut. Horixe izan zen, bai! Sai baten begia zuen: begi urdin argi bat, ganduak lausotua. Odola izozten zitzaidan begi hura nigan finkatzen zuenean; eta, hala, urratsez urrats, pixkana-pixkana, agurea hiltzera

deliberatu nintzen, begi hartatik betiko libratze-ko.

Horra bada. Burutik eginda nagoela pentsa-tuko duzue. Burutik eginda daudenek ezer ez dakite ordea. Baina ikusi behar ninduzuen. Zei-nen jakintsu jokatu nuen, nolako arduraz, nola prestatu nuen dena, nolako disimuluaz hasi nin-tzen lanean. Sekula ez nintzen adeitsuagoa izan agurearekin hil nuen aurreko astean baino. Eta gauero-gauero, gauerdi aldera, agurearen gela-ko ateko kisketa jiratu eta zabaltzen nuen, eta nolako arretaz gero! Ondoren, atea burua sar-tzeko adina zabaldua nuenean, kriseilu bat jaso-tzen nuen, itxi-itxia, ondo itxia, argirik batere ez zedin izan, eta orduan burua sartzen nuen. Ai, ikusi izan bazenute zeinen kontu handiz sartzen nuen burua, barre egingo zenuten! Poliki-poliki mugitzen nuen, oso poliki, agurea ez esnatzea-rren. Ordubete behar izaten nuen burua atetik sartu eta gizona bere ohean etzanda ikusteko. Ja! Burutik eginda dagoen bat nola izango da bada hain zuhurra? Eta orduan, burua osorik gelaren barruan neukanean, gontzek zarata ate-ratzen baitzuten, kontuz-kontuz hasten nintzen

kriseilua zabaltzen, pixka bat zabaltzen nuen, argi-izpi bakar batek jo zezan saiaren begia. Eta horixe egin nuen zazpi gau luzez —gauero gauerdian—, baina itxita aurkitzen nuen beti begia, eta ezin izaten nuen lana burutu; zeren agureak ez baitzidan okerrik egiten, haren Begi Gaiztoak baizik. Eta goizero-goizero, eguna argitzen zuenean, sartzen nintzen lasai agurearen gelan eta deliberamenduz mintzatzen nintzaion, bere izena adiskidetsu aipatuz eta zer moduz igaro zuen gaua galdetuz. Izan ere, oso ernea beharko zuen gizonak susmatzeko zer eta, gaue-ro-gauero, hamabietan justu, begira egoten nintzaiola lo zegoenean.

Zortzigarren gauean ohi baino arduratsuago ibili nintzen atea zabaltzerakoan. Lasterrago mugitzen da erloju baten orratza nire eskua mugitzen zena baino. Gau hura baino lehenago sekulan ez nuen *sentitu* zenbaterainokoak ziren nire ahalmenak, zenbateraino nintzen ernea. Pentsatzea ere han nengoela, poliki-poliki atea zabaltzen, eta ametsetan ere ez zitzaizkiola otuko agureari nire asmo eta pentsamendu sekretuak! Barre txiki bat egin nuen ideia hura

bururatu zitzaidanean; eta baliteke agureak entzun izana, zeren bat-batean ohean mugitu baitzen, aztoratuta bezala. Atzera egin nuela pentsatuko duzue agian, baina ez nuen halakorik egin. Ikatza bezain beltza zegoen logela iluntasun erabatekoan (zeren kontraleihoak ondo itxita baitzeuden, lapurren beldurrez), banekien agureak ezin zuela atearen irekidura sumatu, eta, hala, bultzaka jarraitu nuen, gozo-gozo.

Burua barruan neukala, eta kriseilua zabal-tzekotan nintzela, hatz lodia irristatu zitzaidan itxitura metalikoan, eta agurea ohe gainean eseri zen, oihuka: «Zein dabil hor?»

Geldi-geldik geratu nintzen, ezer esan gabe. Ordu oso batez ez nuen gihar bat bera ere mugitu, eta denbora horretan guztian ez nuen agurea etzaten entzun. Ohean eserita jarraitzen zuen, adi, nik gauero hormako erloju heriotza-iragarleak aditu nituen bezalaxe.

Halako batean intziri arin bat entzun nuen, eta heriozko izuaren intziria zela konturatu nintzen. Ez zen oinazezkoa edo penazkoa, ez; hots mehe itoa zen, ikarak arima hartu duenean sako-nenetik irteten dena. Ederki asko ezagutzen

nuen hots hura. Maiz atera zen neure bularretik, gauaren erdi-erdian, mundua osorik lo dagoe-
nean, bere oihartzun ikaragarriaz erotzen nindu-
ten ikarak areagotzeko. Ondo ezagutzen nuela
diot. Banekien zer sentitzen zuen agureak, eta
erruki nintzaion, bihotz-bihotzean barre egiten
banuen ere. Banekien esna egona zela aurrene-
ko hots arina entzun zuenetik, ohean jiratu
zenez geroztik. Harrezkero areagotu baino ez
ziren egin agurearen ikarak. Saiatu zen arrazoi-
rik gabeak zirela sinesten, baina ezin zuen. Esan-
go zuen bere artean: «Tximiniako haizea beste-
rik ez da... Gela zeharkatu duen sagu bat da»,
edo «Kilker bat da, behin bakarrik kantatu
duena». Bai, uste horiekin saiatuko zen bere
burua lasaitzen: baina alferrik zuen dena. *Alfe-
rrik dena*; zeren Heriotzak, isilik inguratuta, bere
itzal beltzean bildu baitzuen biktima. Eta ezin
sumatuzko itzalaren eragin heriozkoak sentia-
razten zion —nahiz eta ez ninduen ez ikusten ez
entzuten—, *sentiarazten zion* nire burua han,
gelaren barruan.

Luzaroan zain egon ondoren, pazientzia han-
diaz, eta berriz etzaten zenik ez bainuen aditzen,

kriseilua pixka bat zabaltzea erabaki nuen, pixka-pixka bat besterik ez. Hortaz, zabaldu nuen —ez dakizue zeinen mantso—, harik eta, azkenean, izpi mehe bakar bat, armiarma baten haria bezalakoxea, irekiduratik atera eta sai begia bete-betean jo zuen arte.

Zabalik zegoen begia, zabal-zabalik, eta haserreak hartu ninduen begira nengokiola. Argi eta garbi ikusi nuen: urdin sorra, eta hezurak muineraino izozten zizkidan gandu gorrotagarri hark estalia; baina ezin nuen agurearen aurpegiaren edo gorputzaren beste parterik ikusi: zeren, senez bezala, leku madarikatura gidatu bainuen argi-izpia.

Ez al dizuet lehen ere esan zuek eromentzat hartzen duzuen hori ez dela izaten zentzumenen zorrotasun gehiegia baino? Une hartantxe, izan ere, hots apal, sor, laster bat iritsi zitzaidan belarrietara, erlojuek kotoian bilduta daudenean egiten dutena bezalakoa. Ederki ezagutzen nuen hots *hura* ere. Agurearen bihotzaren taupada zen. Hotsak nire haserrea handitu zuen, danborraren soinuak soldaduaren adorea handitzen duen bezala.

Baina orduko hartan ere neure buruari eutsi nion, eta ez nintzen mugitu. Ahal nuen tinkoena eutsi nion argi-izpiari agurearen begia bete-betean jo zezan. Bitarte hartan indartzen ari zen bihotzaren taupada. Lasterragoa egiten zen, eta ozenagoa, unean-unean. Izugarria izan behar zuen agurearen ikarak! Gero eta ozenagoa egiten zen, esan dudan bezala, unean-unean ozenagoa! Konturatzen al zarete? Esan dizuet pertsona urduria naizela: urduria naiz, bai. Eta une hartan, gaueko ordu hilean, etxe zahar hartako isiltasun beldurgarrian, hots hark, hain bitxia izanik, ezin menderatuzko izu-laborria sortu zidan. Hala ere, batere mugitu gabe jarraitu nuen beste zenbait minutuz. Baina taupada ozenagoa egiten zen, gero eta ozenagoa! Bihotza lehertuko zitzaidala iruditzen zitzaidan. Eta beste kezka bat bururatu zitzaidan orduan: auzokoren batek ere entzun zezakeen hots hura! Iritsia zen agurearen ordua! Oihu ozen batez, kriseilua erabat zabaldu eta gelan sartu nintzen. Behin egin zuen agureak garrasi, behin bakarrik. Segundo batean arrastatu nuen lurrera, eta haren gainera bultzatu nuen ohe astuna. Pozaren pozez, irribarre egin nuen,

egina baitzen egitekoa. Baina, zenbait minutuz, hots ito batez taupadaka jarraitu zuen agurearen bihotzak. Horrek ez ninduen ordea kezkatzen, hormaren bestaldean ez baitzen entzungo. Isildu zen azkenean. Hila zen agurea. Ohea mugitu eta gorpua aztertu nuen. Bai, hilda zegoen, ondo hilda. Eskua agurearen bihotzean jarri, eta hantxe eduki nuen zenbait minutuz. Ez zegoen taupadarik batere. Ondo hilda zegoen. Begi hark ez ninduen gehiago larrituko.

Oraindik ere burutik eginda nagoela uste baduzue, ez duzue halakorik gehiago pentsatuko, gorputza ezkutatzeko hartu nituen lan eta nekeen berri ematen dizuedanean. Gauak aurre-ra egiten zuen, baina ni gogor aritu nintzen lanean, txintik atera gabe. Aurrena gorputza laurdenkatu nuen. Burua, besoak eta hankak moztu nizkion.

Lurreko hiru ohol altxatu nituen gero, eta zulo hartan ezkutatu nituen gorpu hondakinak. Orduan beren lekuan utzi nituen berriz oholak, hain zuhur, hain egoki, non giza begiak ez baitzuen han arrarokeriarik batere igarriko, ezta agurearenak ere. Zer garbiturik ez zegoen, ez

zegoen inolako arrastorik, ez odol tantarik. Oso
erne ibili nintzen. Azpil batek jaso zituen denak.
Ja, ja!

Goizeko laurak baziren lan haiek guztiak
amaitu nituenerako, eta oraindik ere gauerdian
bezain ilun zegoen. Erlojuak ordua jo zuenean,
ate joka ari zirela entzun nuen. Lasai-lasai joan
nintzen atea zabaltzera. Izan ere, zeren beldur
izan behar nuen *orain*? Hiru gizon sartu ziren,
eta oso adeitsu aurkeztu zituzten beren buruak
poliziako ofizial gisa. Auzoko batek garrasi bat
entzun omen zuen gauerdi aldean, eta erasoren
bat-edo izan ote zen pentsatu zen. Informazio
hori polizia bulegora iritsi zenean, berak (ofizia-
lak) ikerketak egitera bidali zituzten.

Irribarre egin nuen; izan ere, *zeren* beldur
izan behar nuen? Ongietorria egin nien. Garra-
sia, esan nien, neuk egin nuen, ametsetan ari
nintzela. Agurea, esan nuen, kanpoan zen, men-
dialdean. Etxe osoa ikustera eramanez nituen nire
bisitariak. Etxea miatzeko esan nien, miatzeko
ondo. Gidatu nituen, azkenean, *agurearen* gela-
ra. Haren gauzak erakutsi nizkien, bere lekuan
denak, ukitu gabeak. Nire segurtasunaren poza-

rekin, eserlekuak hartu, gelara eraman, eta *hantxe* eskaini nien beren nekeen atsedena; eta nik, nire garaipen betearen ausarkerian, biktimaren gorpua zegoen lekuaren gain-gainean jarri nuen neure aulkia.

Lasaituta geratu ziren ofizialak. Nire *manerek* konbentzitu zituzten. Ni oso eroso nengoen. Hirurak lasai eserita, ohiko gauzez jardun ziren, eta nik gustura erantzuten nien. Baina, denbora puska baten ondoren, zurbiltzen ari nintzela konturatu nintzen, eta alde egin zezaten desiratu nuen. Buruko minak nengoen, eta burrundara moduko bat sentitzen nuen belarrietan: baina ofizialek eserita eta berriketan jarraitzen zuten. Burrunda zehatzagoa egin zen: hantxe zegoen, eta are zehatzagoa egin zen: ozenago mintzatu nintzen hots hartaz libratzeko; baina hotsak bere horretan jarraitzen zuen, gero eta zehatzago, harik eta azkenean konturatu nintzen arte, hots hura *ez zegoela* neure belarrien barruan.

Dударик gabe, zuri-zuri jarri nintzen; baina etorri handiagoaz mintzatu nintzen, eta ahots goragoaz. Baina hotsa indartzen ari zen; eta nik zer egin nezakeen? *Hots apal, sor, laster bat zen,*

erlojuek kotoian bilduta daudenean egiten dutena bezalako. Arnasestuka hasi nintzen, eta, hala ere, ofizialek ez zuten entzuten. Lasterrago hasi nintzen hizketan, biziago; baina hotsa ozenagoa egin zen. Zutitu eta huskeriez jardun nintzen, garrasi bizian eta sekulako imintzioak eginez; baina hotsa ozenagoa egin zen. Zergatik ez zuten alde egiten? Atzera eta aurrera hasi nintzen, urrats handiak eginez; baina hotsa areagotu egin zen. Jainkoarren! Zer egin *nezakeen?* Amorruren amorruez, aparra ateratzen zitzaidan ahotik, biraoka ere hasi nintzen! Atzera bota nuen eserita egon nintzen aulkia, eta arrastaka eramane nuen oholen gainean, baina hotsa denek gaintetik altxatzen zen, eta etengabe areagotzen zen. Ozenagoa, ozenagoa, *ozenagoa* egin zen! Eta hala ere lasai jarraitzen zuten gizonek berriketan eta irribarrez. Jainko ahaltsua! Ez, ez! Entzuten zuten! Susmatzen zuten gertatua! *Bazekiten!* Nire izumenari iseka egiten zioten! Horixe pentsatu nuen orduan bai, eta horixe pentsatzen dut orain ere. Baina edozer gauza zen agonia hura baino hobea! Edozer gauza, irri hura baino eramangarriagoa! Ezin nituen irriba-

rre faltsu haiek eraman! Garrasi egin behar
nuela sentitu nuen, hilko bainintzen bestela! Eta
orduan... Berriz! Entzun... Horra... Ozenago!
Ozenago! Ozenago! *Ozenago!*

—Ez itxurarik egin, nazkagarri horiek! Aitor-
tzen dut, hil egin dut! Altxa itzazue oholak! Hara
hor! Bihotz doilor horren taupada da!

Putzua eta pendulua

*Impia tortorum longos hic turba furores
Sanguinis innocui, non satiata, aluit.
Sospite nunc patria, fracto nunc funeris antro,
Mors ubi dira fuit vita salusque patent*

Arrunt gaizkiturik nengoen, hil beharrean gaizkiturik agonia luze hartan; eta azkenean askatu nindutenean, eta esertzen utzi, zentzumenek alde egiten zidatela sentitu nuen. Epaia —heriotzazko epai beldurgarria—, belarrietara heldu zitzaizkidan hitzetan azkena izan zen. Ondoren, ametsezko xuxurlo zehazgabe batean murgildua zirudien Inkisiziokoen ahotsen soinuak. *Iraultzaren* ideia ekarri zidan xuxurlo hark gorora, agian errota gurpil baten durundiarekin lotzen zelako nire fantasian. Aldi labur batez bakarrik ordea; ez bainuen gero besterik entzun. Alabaina, puska batez, ikusi egin nuen; nolako gehiegikeria izugarrizkoaz ordea! Arropa beltzez jantzitako epaileen ezpainak ikusi nituen. Zuriak iruditu zitzaizkidan —hitzok marrazten ari naizen

orri hau baino zuriago—, eta irrigarri izateraino mehe; mehe, sendotasunaren adierazpenaren intentsitateaz; erabaki aldaezinarenaz; giza torturaren mesprezio zinezkoarenaz. Ikusi nuen neure Patua izango zen dekretua ezpain haietatik ari zela oraindik jaulkitzen. Ikusi nituen mintzaera hilgarriaz bihurritzen. Ikusi nituen neure izenaren silabak taxutzen; eta, ez baitzen ondoren beste soinurik etorri, dardar egin nuen. Ikusi nuen, orobat, izumen zoroako istant batzuez, gelako hormak estaltzen zituzten oihal beltzen astindu txit leun eta ia igarri ezinezkoa. Eta mahaiaren gainean zeuden zazpi kandela luzetara joan zitzaizkidan orduan begiak. Lehen begiratuan karitatearen ikur iruditu zitzaizkidan, salbatuko ninduten aingeru lerden zuriak; baina gero, tupustean, goitinahi beldurgarriena gainerratu zitzaion nire gogoari, eta gorputzeko zuntz oro sentitu nuen ikara egiten batera galbanikozko hari bat ukitu banu bezala, aingeruen formak mamu zentzugabeak bihurtzen ziren artean, sugarrezko buruekin, eta ikusi nuen haiengandik ez zitzaidala laguntzarik etorriko. Eta orduan ia oharkabean bururatu zitzaidan, musikazko nota

aberatsa bailitzan, nolako atsedean gozoa izan behar duen hilobikoak. Poliki eta isilka etorri zitzaidan gogoeta hura, eta luze jo bide zuen erabat argitu zitzaidan arte; baina azkenean nire espirituak pentsamendu hura beretu zuenean, une hartan bertan, desagertu egin ziren epaileen irudiak, magia bezala, nire aurretik; ezerezean galdu ziren kandela luzeak; haien sugarrak gutiz itzali ziren; ilunaren belztasuna gaineratu zitzaidan; beheraldi ero zurrunbilotsu batean ziruditen irentsiak sentrazio guztiak, arima Hadesean bezala. Gero isiltasuna, eta gelditasuna, eta gaua izan ziren unibertsoa.

Kordea galdu nuen, baina ez dut halere esango kontzientzia osorik galdu nuenik. Hartatik geratzen zena ez naiz definitzen saiatuko, ezta deskribatzen ere; hala ere, ez zegoen dena galdua. Lozorrorik pisuenean... Ez! Eldarnioan... Ez! Korde galtzean... Ez! Heriotzan... Ez! Hilobian bertan ere, ez *dago* dena galdua. Ez baitago bestela gizonarentzat hilezkortasunik. Lozorro sakonenetik ateriaz, ametsen baten sare fina urratzen dugu. Hala ere, hurrengo segundoan (hain izan baitzitekeen mehea sare hori), ez dugu

gogoratzen amets egin dugunik. Korde gabezia-
tik bizitzara itzultzean bi aldi izaten dira: lehen-
bizi, adimenaren edo espirituaren zentzuarena;
bigarren, existentzia fisikoarena. Litekeena diru-
di, baldin eta, bigarren aldia iritsirik, aurreneko-
aren aztarnak gogoratzen baditugu, aztarna
horiek atzeragoko leizeko oroitzapenen adieraz-
le gertatzea. Eta leize hori da... Zer da? Nola
bereizi ahal izango ditugu, besterik ez bada ere,
hango itzalak eta hilobikoak? Baina lehen aldia
izendatu dudan horretako aztarnak ez badira
nahierara gogoratzen, hala ere, denboraldi luze
baten ondoren, ez al zaizkigu bada beren kabuz
etortzen, guk miresmenez nondik datozen galde-
giten dugun artean? Kordea inoiz galdu ez due-
nak nekez aurkituko ditu jauregi bitxiak eta aur-
pegi harrigarriki ezagunak hausberoan distiraka;
nekez ikusiko ditu airean hegan gehienek ezin
sumatu dituzten ikuskari tristeak; nekez jardun-
go da gogoetan lore berriren baten perfumeaz...
Nekez asaldatuko du haren gogoia sekulan ardu-
ratu ez zitzaion musikazko kadentziaren baten
esangurarekin.

Gogoratzeko ahalegin sarri eta burutsuen artean; nire arima eroria zen itxurazko ezerezeko egoeraren seinaleren bat antzemateko borroka latzen artean, izan dira arrakastaren ametsa izan ditudan uneak; izan dira aldi labur batzuk, aldi laburrak oso, oroitzapen batzuk erdietsi ahal izan ditudanak, geroztiko arrazoi argitu batek itxurazko oharkabetasun horri baizik ezin zegozkiokeela ziurtatzen dizkidanak. Memoriaren itzal horiek, oso modu lausoan, hartu eta isil-isilik berekin ninderamaten irudi luzeak erakutsi dizkirate, beherantz beti, beherago oraindik, harik eta beheraldiaren azkengabearen ideia hutsak zorabio ezin jasanezko bat gaineratu zidan arte. Orobat erakusten didate bihotzean nuen izumen lauso bat, hain zuzen ere bihotzaren gelditasun ezohikoagatik. Gauza oro hartzen duen bat-bateko higimen falta dator gero; berekin naramaten haiek (hura bai jarraigo izugarritzkoa!), beren jaitzieran, mugarik ezaren muga gainditu, eta beren egitekoaren unagarriaz atsedetera gelditu balira bezala. Horren ondoren axolagabekeria eta hezetasuna datozkit gogora; eta, gero, ero-

mena da dena: gauza debekatuetan diharduen memoriaren eromena.

Tupustean etorri zitzaizkidan berriz ere espiritura mugimendua eta soinua —bihotzaren mugimendu zalapartaria, eta, belarrietan, haren taupaden hotsa—. Eten bat gero, dena hutsa zena. Eta gero berriz hotsa, eta mugimendua, eta ukimena —gorputz osora zabaldutako xinurritu sentipen bat—. Existentziaren ezaguera hutsa gero, gogoetarik gabea —luzaro iraun zuen egoera—. Eta gero, guztiz bat-batean, *pentsemendua*, eta ikarazko izumena, eta nire benetakako egoeraz jabetzeko ahalegin bizia. Gero, sentikortasunik ezean erortzeko desira handia. Gero arimaren berpizte lehiatsu bat eta mugitzeko ahaleginak, mugitzea lortu nuen arte. Eta orduan epaiketaren oroitzapen osoa, hormetako oihal beltzena, epaiarena, zorabioarena, korde galtzearena. Eta gero, epaiketaren ondoren etorri zen guztiaren ahanztura erabatekoa; geroak eta ahalegin handiek, modu lainotsuan bada ere, gogora ekarri didaten guztiarena.

Artean begiak zabaldu gabea nintzen. Bizkarez etzanda nengoela sentitzen nuen, eta loka-

be. Eskua luzatu nuen, eta astun erori zen gauza heze eta gogor baten gainean. Saiatu nintzen eskua zenbait minutuz han uzten, non ote nengoen eta *zertan* ote nintzen asmatzeko ahaleginetan. Desiratzen egon arren, ez nintzen ausartzen begiak zabaltzera. Beldurtu egiten ninduen nire inguruko objektuak aurrenekoz ikusteak. Ez gauza beldurgarriak ikusteak, aitzitik, ikusteko ezer ez izateak beldurtzen ninduelako. Azkenean, erabateko etsimenez beterik bihotza, bat-batean zabaldu nituen begiak. Nire uste okerre-
nak egiaztatu ziren orduan. Betiereko gauaren ezerezak inguratzen ninduen. Arnasa hartzen ahalegindu nintzen. Iluntasunaren intentsitateak zapaltzen eta itotzen ninduela zirudien. Eramanezina zen giroaren astuna. Geldi-geldi jarraitu nuen, arrazoitzeko ahaleginetan. Inkisizioaren epaiketa ekarri nuen gogora, eta hartatik abiatuta nire benetako egoeraren berri izaten saiatu nintzen. Iragana zen epaiaren unea; eta iruditzen zitzaidan denbora luzea joana zela ordudunik. Hala ere, instant batez ere ez nuen uste izan hila nengoenik. Uste hori, fikziozko liburuetan irakurtzen duguna gorabehera, ez da batere

adosten benetako existentziarekin; baina non eta zein egoeratan nengoen? Hiltzera kondenatuak, banekien, *autos da fé*-etan hil ohi ziren, eta halakoxe bat izan zen nire epaiketaren gauean bertan. Nire ziegara bidali ote ninduten berriz, hurrengo sakrifizioa noiz izango, hartarako hila-bete asko falta zen arren? Berehalaxe konturatu nintzen ezin zitekeela halakorik izan. Biktimak segituan eramaten zituzten. Areago, nire ziegak, Toledoko kondenatuen ziega guztiek bezala, harrizko lurra zuen, eta argia ez zuten erabat ezabatzen.

Halako batean burutazio beldurgarri batek odola turrustaka jarri zidan bihotzean, eta, une labur batez, soraio geratu nintzen berriz ere. Neure onera etorri nintzenean, kolpetik zutitu nintzen, zuntz guztiak konbultsioz dardarka. Eroaren gisan luzatu nituen besoak alde guztietara. Ez nuen ezer sentitu; hala ere, pauso bat bera egiteko beldur nintzen, *hilobi* baten hormak oztopo izango nituelakoan. Izerdia tontorka zerien nire poro guztiei, eta anpulu handi hotzetan geratzen zitzaidan kopetan itsatsita. Ezjakitearen agonia jasan ezinezkoa gertatu zitzaidan

azkenean, eta arduraz mugitu nintzen aurreraka, luze-luze besoak eta begiak beren zuloetatik atera beharrean, argi-izpi meheren bat atzema-teko itxaropenaz. Zenbait urrats egin nuen modu horretan; baina beltza eta hutsa zen oraindik dena. Askeago hartu nuen arnasa. Ageriko gauza zirudien behintzat ez zela, neurea, patuetan izugarriena.

Eta orduan, oraindik ere kontu handiz aurreraka nindoala, Toledoko izugarrikerien gaineko ehunka zurrumurru gogoratu zitzaizkidan oldeka. Gauza bitxiak kontatzen ziren ziegez —nik beti ipuintzat hartu nituenak— baina bitxiak hala ere, eta ikaragarriegiak berriz esateko, isilka ez bada. Goseak hiltzen utziko al ninduten lurpeko mundu iluntasunezko hartan; edo nolako patua, agian oraindik ere beldurgarriagoa, ote nuen zain? Ondo asko ezagutzen nituen neure epai-leak, eta ez nuen beraz zalantzan jartzen heriotzara kondenatu nindutela, eta ohikoa baino heriotza latzagora gainera. Modua eta ordua ziren arduraz betetzen eta burua galarazten zidaten gauza bakarra.

Nire eskuek, luze-luze eginda, aurkitu zuten azkenean oztopo gotor bat. Horma bat zen, harriz egina itxuraz, oso leuna, irristakorra eta hotza. Horma hari jarraitu nion, antzinako zenbait kontakizunetatik ateratako konfiantza falta erneaz mugituz. Bide horrek, nolana ere, ez zidan nire presondegiaren neurriak jakiteko modurik eskaintzen; izan ere, jira osoa egin nezakeen eta, oharkabean, aterea nintzen puntu berera itzuli; hain zirudien guztiz berdina paretak. Hala bada, Inkisizioko aretora eramanez nindutenean sakelari neraman labanaren bila hasi nintzen, baina desagertua zen; nire arropen ordez artile lakarrezko jantzi bat nuen soinean. Labanaren ahoa harrizko paretako arrakala txikiaren batean sartzea neukan pentsatua, nire abiapuntua markatzeko. Arazo hori, izan, ez zen batere garrantzitsua; nire irudimenaren nahasmen hartan ordea, ezin gaituzteko iruditu zitzaidan hasieran. Jantziaren pusketa bat urratu eta luze-luze jarri nuen angelu zuzenean paretaren kontra. Presondegiaren jira osoa egin eta itzulia bukatzean nahitaez aurkitu behar nuen pusketa hura. Pentsatu, hori pentsatu nuen:

baina ez nuen kontuan hartu presondegiaren neurria, ezta neure ahultasuna ere. Lurra hezea eta irristakorra zen. Puska batean aurrerantz joan ondoren, halako batean balantzaka hasi eta erori egin nintzen. Nekearen gehiegiak lurrean mantentzen ninduen; eta, etzanda nengoela, loak laster hartu ninduen.

Esnatu, eta beso bat luzatu nuenean, ogi puska bat eta pitxer bat ur aurkitu nituen neure aldamenean. Nekatuegia nengoen gorabehera horiez gogoetan hasteko, baina gogo biziz jan eta edan nuen. Handik gutxira, berriz hasi nintzen presondegiaren itzulia egiten, eta, eginahalean, iritsi nintzen azkenean oihal puscara. Erori nintzen arte berrogeita hamabost urrats nituen kontatuak, eta beste berrogeita zortzi kontatu nituen berriz ibiltzen hasi nintzenetik; eta orduantxe iritsi nintzen piltzarrera. Guztira, beraz, ehun bat urrats ziren; eta, iardako bina urrats kontatuz, kalkulatu nuen berrogeita hamar iardako jira izango zuela ziegak. Nolanahi ere, angelu asko aurkitu nuen horman, eta, hortaz, ezin asmatu nuen nolakoa izan zitekeen

kriptaren forma; zeren hura kripta zela baino ezin bainuen pentsatu.

Helburu zehatzik ez nuen —ez behintzat itxaropenik— bilaketa haietan; baina jakin-min lauso batek bultzatzen ninduen jarraitzera. Hormatik aldenduta, itxituraren eremua gurutzatzera deliberatu nintzen. Ardura handienaz mugitzen nintzen hasieran, zeren lurra, ekai gotorrez egina bazirudien ere, zikinagatik baitzen arriskutsua. Azkenean, nolana ere, adore hartu, eta urrats sendoz abiatu nintzen, eremua ahalik eta lerro zuzenenean gurutzatzeko ahaleginean. Aurreratu nintzen hamar edo hamabi urrats, eta hartan zangoen artean trabatu zitzaidan jantziaren urratua. Hura zapaldu, eta ahuspez erori nintzen.

Erorikoaren nahasmenean, ez nuen berehala antzeman xehetasun harrigarri samar bat, baina, segundo batzuk geroago, eta lurrean erorita nengoela oraindik, nire arreta erakarri zuen. Hau zen: presondegiko lurraren kontra neukan kokotsa, baina ezpaineak eta buruaren goialdeak, itxuraz kokotsa baino beheraxeago egon arren, ez zuten ezer ukitzen. Aldi berean lurrin likatsu

batek kopeta bustitzen zidala zirudien, eta onddo ustelen usain berezia iritsi zitzaidan sudur zuloetara. Besoa luzatu nuen, eta ikaraz konturatu nintzen putzu biribil baten ertzera eroria nintzela; une hartan ordea ez nekien zenbateraino zen sakona. Ertzaren azpi-azpiko horma haztatuz, lortu nuen pusketa bat askatzea, eta amildegira erortzen utzi nuen. Segundo asko eman nituen haren oihartzuna entzuten, beherako bidean leizearen alboak jotzen baitzituen harriak; azkenean entzun zen nola murgiltzen zen bat-batean uretan, eta ondoren oihartzun ozenak etorri ziren. Une hartan bertan ate baten zabaltze lasterraren hotsa zirudiena etorri zen nire gainera, eta hura bezain ate-ixte bizkor batena; aldi berean argi-izpi mehe baten distira bereizi zen ilunean, eta agertu bezain azkar desagertu zen.

Garbi ikusi nuen niretzat prestatua zuten patua, eta neure burua zoriondu nuen, istripuaren une egokiari esker ihes egin ahal izan nielako. Erori aurretik beste urrats bat egin, eta munduak ez ninduen gehiago ikusiko. Eta Inkisizioari buruzko istorioetan nik hain fantasiako eta fri-

bolotzat jo nuen bezalakoxea zen itzuri berria nuen heriotza. Haren tiraniaren biktimentzat, bazen heriotza mota bat herstura fisiko beldur-garrienez betea, baina bazen beste bat ere, izugarrikeria moral are higuingarriagoak zekartzana. Azken heriotza horretarako nengoen ni gordea. Sufrimendu luzeen ondoren hain nituen nerbioak jota, non neure bozaren beraren soinuak dardarka jartzen baininduen, eta, hortaz, edozein alderditatik begiratuta ere, subjektu guztiz egokia bihurtuta nengoen zain nituen torturatarako.

Burutik oinetaraino dardarka, haztamuka egin nuen atzera hormarainoko bidea, deliberaturik nahiago nuela han hil putzuetako izugarrikerien arriskupean jarri baino, putzu bat baino gehiago marrazten baitzuen nire irudimenak, presondegiaren leku desberdinetan jarriak. Bestelako gogo egoera batean egonez gero izango nuen kemenik haietako leize batean murgilduz nire miseriak behingoan bukarazteko; baina koldarretan koldarrena nintzen ni une hartan. Era berean ezin ahaztu nuen putzu haiei buruz irakurri nuena, alegia, bizitzaren *bat-bateko* iraungi-

tzea ez zela haien helburu ikaragarrietan sartzen zen gauza.

Ordu askoan eduki ninduen esna espirituaren asaldurak; baina azkenean lokartu nintzen ostera ere. Esnatu ondoren, aurreko aldian bezala, ogi puska bat eta pitxer bat ur aurkitu nituen aldamenean. Egarrri kiskalgarri batek itotzen ninduen, eta zurrutada batez hustu nuen edontzia. Drogaren bat eduki behar zuen; izan ere, edaten hasi, eta guztiz logaletuta sentitu bainintzen. Lo sakon batek hartu ninduen berehala, heriotzarena bezalako loak. Zenbat irauin zuen, hori ez dakit; baina, begiak berriz zabaldu nituenean, ikusgai ziren nire inguruko gauzak. Distira sulfuroso bati esker, hasieran nondik zetorren jakite-rik izan ez nuen arren, presondegiaren neurria eta itxura ikusi ahal izan nituen.

Oso nahastuta ibilia nintzen neurri kontuan. Hogeita bost iarda baino gehiago ez zuen hormen itzuli osoak. Zenbait minutuz alferreko ardura sortu zidan datu horrek; alferrekoa, izan ere! Zeren, nire egoera hartan, zerk izan zezakeen bada garrantzi gutxiagorik presondegiaren neurriak baino? Baina nire espirituak ardura

harrigarria jartzen zuen huskerietan, eta neurketan zer akats egin ote nuen jakiten saiatu nintzen. Azkenean argitu zitzaidan egia. Esplorazio-ko lehen ahaleginetan, berrogeita hamabi urrats kontatu nituen erori nintzen unea arte; oihal pusketatik urrats batera edo bira egon behar nuen orduan; hortaz, ia osorik egina nuen presondegiaren itzulia. Gero lo geratu nintzen, eta esnatzean, lehen egindako bide beretik joan nintzen ostera ere; horregatik uste izan nuen itzulia benetan zena baino bi bider handiagoa zela. Gogoaren asaldurak ez zidan konturatzen utzi ezkerrean nuela horma itzulia egiten hasi nintzenean, eta bukatzean berriz eskuinean.

Nahastuta nenbilen, orobat, itxituraren formari zegokionean. Bidea haztamuka bilatuz, angelu asko aurkitu nuen, eta hartatik atera nuen lekua formaz oso irregularra zela; izan ere, hain baita indartsua letargiatik edo lozorrotik esnatzen denarengan iluntasun erabatekoaren eragina! Sakonune txiki batzuk besterik ez ziren angeluak, edo horma zuloak, tarteka-tarteka ipiniak. Presondegiaren forma karratua zen oro har. Nik harria zela uste izan nuena burdina zen,

edo beste metalen bat, xafla handi-handietan ipinia, eta haien josturek, edo loturek, sortzen zituzten sakonuneak. Itxitura metalikoaren gain osoa zirriborroez beteta zegoen, fraideen sineskeria zitalak sorrarazitako irudi gorrotagarri eta nazkagarriez. Deabruen irudi mehatxuzkoek, hezurdurek eta beste imajina are beldurgarriagoek estaltzen eta desitxuratzen zituzten paretak. Munstro haien formak aski ongi taxututa zeudela ikusi nuen, baina koloreak lausotuak eta galduak zeuden, giro heze batek eraginda edo. Konturatu nintzen halaber lurra harrizkoa zela. Salbatu berria nintzen putzu biribilaren barailak logalez bezala zabaltzen ziren ziegaren erdi-erdian; baina beste putzurik ez zegoen presondegian.

Hori guztia lauso samar ikusi nuen, eta ahalegin handiak eginda; lozorroan nengoen artean zeharo aldatu baitzen nire egoera. Oraingoan ahoz gora nengoen, luze-luze etzanda zurezko egitura moduko baten gainean. Egitura hari estu lotuta nengoen, gerriko baten antzeko xingola luze baten bitartez. Xingolak, itzuli asko eginez, zango-besoak eta gorputza inguratzen zizkidan,

eta burua bakarrik uzten zidan libre, eta baita ezkerreko besoa ere, ozta-ozta, eginahalean, aldamenean neukan lurrezko platereko janaria hartzeko moduan. Ikusi nuen, guztiz izuturik, pitxerra kendu zidatela. Guztiz izuturik diot; egarriak itotzen bainengoen. Nire egarria piztea zen nonbait torturatzailen asmoa, haragi min-mina baitzen platerean zegoen janaria.

Gora begiratzuz, nire presondegiko sabaia aztertu nuen. Hogeita hamar edo berrogei bat oin altu zen, eta alboetako hormen modu berean zegoen eraikia. Hango xafletako batean ageri zen irudi guztiz berezi batek zur eta lur utzi ninduen. Denbora irudikatzen zuen, normalean egin ohi den moduan; baina, segaren ordeztan, begiratu arin batean pendulu handi bat zirudiena zera-man eskuan, antzinako erlojuetan ikusi ohi ditugunak bezalakoa. Arreta handiagoz begiratzera bultzatu ninduen zerbait bazuen, nolana ere, makina haren itxurak. Zuzenean gora begiratu nuenean (zeren nire gain-gainean baitzegoen), mugitzen ikusten nuela iruditu zitzaidan. Ondorengo unean egiaztatu egin zen nire irudipena. Itzulia laburra zen, eta, jakina, motela. Zenbait

minutuz hari begira egon nintzen, ikaraz edo, baina harrimenez gehiago. Mugimendu aspergarrri hari beha egoteaz nekatuta, gelako beste gauzetara begira jarri nintzen.

Hots arin batek hartu zuen nire arreta, eta, behera begiratuta, arratoi izugarri batzuk ikusi nituen lurra zeharkatzen. Putzutik atera berriak ziren, zeina ozta-ozta nire eskuinean ikusten bainuen. Begira nengokien arren, saldoka ateratzen ziren arratoiak, presaka, begi gosetiez, haragiaren usainak erakarrita. Ahalegin handiak egin behar izan nituen plateretik uxatzeko.

Joango zen ordu erdi edo, ordu bete ere baiagian (ezin bainuen denbora zehatz neurtu), ostera gorantz begiratu nuen arte. Ikusi nuenak nahastu eta guztiz harritu ninduen. Ia iarda batez handitua zen penduluaren ibilbidea. Horren ondorioz, lastertasuna ere askoz handiagoa zuen. Alabaina, gehiena asaldatu ninduena nabarmen *jaitsi* zelako ideia zen. Konturatu nintzen —nolako izuaz esan beharrik ere ez dago— altzairu distiratsuzko ilargierdi batez osatua zela penduluaren behealdea, eta oin bat inguru luze zela mutur batetik besterako distantzia; mutu-

rrak goraka zeuden makurtuak, eta argi zegoen bizarra mozteko labana bezain zorrotza zela azpiko ertza. Orobat bizarra mozteko labana bezala, penduluak trinkoa eta astuna zirudien, eta ertzetik gora mehetu egiten zen, goiko egitura sendo eta zabalerraino. Brontzeko zurtoin astun bati zegoen lotua, eta airean kulunkatzean *txistu egiten zuen* tresna osoak.

Ezin nuen jada batere zalantzarik egin fraideen torturarako trebetasunak niretzat prestatua zuen etorkizunaz. Ondo asko zekiten Inkisiziokoek ezagutzen nuela putzua —ni bezalako uko egile setatientzat prestaturiko *putzua*—, *putzua*, infernuaren ikurra, esamesek ziotenez zigor guztien azken Tulea zen hura. Istripu batek libratu ninduen putzu hartan erortzeaz, eta banekien ustekabea, edo estiran oharkabean erortzea, osagai garrantzitsua izaten zela espetxeko heriotza haietako bitxikerietan. Ez nintzen erori, eta deabru haiek ez zuten jadanik ni amildegian murgilarazteko asmorik; eta horregatik (ez baitzegoen beste irtenbiderik) bestelako suntsipen bat, lasaiagoa, neukan zain. Lasaiagoa!

Nire hilzorian, irribarre egitekotan egon nintzen hitz horren halako erabileran pentsatu nuenean.

Zertarako eman heriozkoak baino izugarriagoak izan ziren ordu luze, luze haien berri; altzairuaren zabu durundiatsuak kontatzen eman nituen ordu haiek, zertarako aipatu! Ontzaz ontza, mantso-mantso, urteak ziruditen tarteen ondoren bakarrik sumatzen zen jaitsialdian, behera zetorren pendulua, eta beherago! Egunak igaro ziren —egun asko ere igaro bide ziren— harik eta penduluaren arnasa garratza hain gertu pasatzen zitzaidan arte non haize egiten zidala irudi baitzuen. Altzairu zorrotzaren usaina sartzen zitzaidan sudurrean. Errezatu egin nuen, zeruak ere nekatu nituen errezoka lasterrago jaits zedin. Guztiz erotuta, burua zimitarra beldurgarriaren pareraino jasotzeko ahaleginean aritu nintzen. Eta gero bat-batean lasaitu, eta —haur bat litxarrerria bitxi bati bezala— geldi-geldi geratu nintzen heriotza distiratsuari irribarreka.

Sorgortasunezko beste tarte bat etorri zen gero; laburra izan zen; zeren, berriz piztu nintzenean, pendulararen beheraldi nabarmenik ez

bainuen sumatu. Baina tarte luzea ere izan zitekeen; ondo asko bainekien bazirela nire lozorroz ohartzen ziren deabru batzuk, eta beren nahierara eten zezaketela penduluaren balantza. Berriz neure onera etorri nintzenean, gainera, arrunt gaizkiturik eta ahul sentitu nintzen, ezin adierazizko moduan ondoezik, ahuleria luze baten ondorenean bezala. Baina hilzori hartan ere jana desiratzen zuen giza naturak. Eginahal mingarriez, lokarriek uzten zidateneraino luzatu nuen ezkerreko besoa, eta arratoiek utzitako apurrak neureganatu nituen. Haietako bat ezpainen artean jartzen ari nintzela, pozezko, itxaropenezko pentsamendu bat, erdizka taxutua, bururatu zitzaidan bat-batean. Baina zer zerikusi nuen *nik* itxaropenarekin? Esan dudan bezala, erdizka gauzatutako pentsamendua zen; horrelakoak asko izaten baititu gizonak, inoiz osatzen ez direnak. Sentitu nuen pozezkoa zela, itxaropenezkoa; baina sentitu nuen halaber gauzatu ahala suntsitu egin zela. Alferrik saiatu nintzen osatzen, berreskuratzen. Sufrimendu luzeek ezabatuak zituzten ia osorik nire adimenaren ohiko ahalmenak. Ergela nintzen, inozo hutsa.

Penduluaren zabua angelu zuzenean zetorren nire gorputzari buruz. Ikusi nuen bihotzaren alde gurutzatzeko xedeaz pentsatua zegoela ilargierdia. Nire jantziaren oihala urratuko zuen... atzera itzuli eta berriz urratuko zuen... eta berriz... eta berriz... Altzairuak egiten zuen ibilbidearen luzera ikaragarria alde batera utzita ere (hogeita hamar bat oin edo gehiago), eta orobat bartezturik beheraldiaren bortiztasun txistukaria, burdinazko horma haiek berak pitzatuko zituen, zenbait minutuz nire jantzia urratu besterik ez zuen egingo. Eta eten bat egin nuen pentsamendu horretan. Ez nintzen ausartzen ideia hori baino harantzago joaten. Arreta egoskor batez aritu nintzen hura hausnartzen —hausnarketan ari nintzela, altzairuaren beherakada *hantxe* geraraziko banu bezala—. Ilargierdiak oihala urratzean egingo zuen hotsean gerarazi nuen neure burua, oihalaren igurtziak nerbioetan eragiten duen larritasun horretan. Halako fribolitateen gainean hausnarrean aritu nintzen, ozkiak hortzak erabat hartu zizkidan arte.

Behera, etenik gabe zetorren behera. Plazer zoroa sentitu nuen beheranzko lastertasuna eta

albokakoa parekatzean. Eskuinera... ezkerre-
ra...; urruti, zabal, espiritu madarikatu bat beza-
la intzirika; bihotzeraino, tigrea bezala urrats isi-
laz. Aldizka barre egiten nuen eta aldizka marru,
idea bat zein bestea nagusitu.

Behera... ziur, bai, nekerik gabe behera! Nire
bularretik hiru hazbetera mugitzen zen! Gogor
borrokatu nintzen, amorratuta, ezkerreko besoa
libratzeko. Ukondotik eskuraino bakarrik neukan
libre. Ahalegin bizian, ondoan nuen plateretik
ahoraino luza nezakeen, baina ez urrunago. Bal-
din eta ukondoaz gaineko lokarriak hautsiko
banitu, besoa jaso eta saiatuko nintzen pendulua
gerarazten. Hura eta elur jauzi bat geraraztea,
gauza bera ziren ordea!

Behera... etenik gabe orain ere... ezinbestean
behera orain ere! Arnasestuka eta askatzeko
lehian hasten nintzen penduluaren zabu bakoit-
zear. Ezin adierazizko etsipen eta larritasunaz
jarraitzen zieten nire begiek penduluaren atzera
eta aurrerako mugimenduei; espasmoka ixten
zitzaizkidan betazalak beheraldi bakoitzean,
heriotzak atsedena ekarriko zidan arren, eta
nolakoa, ai! Baina nerbio guztiak dardar-ikaretan

jartzen zitzaizkidan pentsatzen nuenean zeinen arina izango zen aizkora zorrotz, distiratsu hura neure bularrean sarraraziko zuen makinaren mugimendua. *Itxaropenak* ematen zidan dardar egiteko adorea, kuzkurtzeko kemena. *Itxaropena* zen, oinaze estiran gailentzen den itxaropen hori, Inkisizioaren leotzetan ere heriotzara kondenatuei belarrira mintzatzen zaiena.

Ikusi nuen beste hamar edo hamabi zaburen ondoren altzairuak nire oihala ukituko zuela, eta horretaz ohartzean etsipenaren baretasun trinakoak hartu zidan bat-batean espiritua. Aurreneko aldiz ordu askoan, edo egun askoan behar bada, *pentsatu nuen*. Biltzen ninduen zerrenda edo xingola *pieza-bakarra* zela bururatu zitzaidan. Bakarra zen lotzen ninduen lokarria. Altzairuaren irtenunearen lehen ukituak, xingolaren edozein gunetan gertaturik ere, ebaki egingo zuen, eta ezkerreko eskua erabiliz askatu ahal izango nuen gorputzetik. Baina, kasu horretan, bai bel-dugarria altzairuaren gertutasuna! Zeinen hilgarria borrokaldirik laburrenaren emaitza! Baina nola ez ohartu aukera hartaz torturatzaillearen morroiak, ez ote zuten kasu horretarako ezer

prestatu? Penduluak egin beharreko bide beretik gurutzatuko ote zuen xingolak nire bularraldea? Nire itxaropen eskas eta itxuraz azkena galtzeko ikaraz, bularraldea ikusteko moduan jaso nuen burua. Noranzko guztietan biltzen zituen xingolak nire gorputz adarrak eta enborra, *altzairu suntsitzaileak egin beharreko bidekoan izan ezik.*

Ez al nuen burua atzera erortzen utzi, hantxe gogoratu zitzaidan, hobeto ezin deskribatu dezakedan askapenaren ideia erdi osatu hura, lehengo aipatu dudana, haren parte bat bakarrik baitzebiltzidan buruan bueltaka janaria nire ezpain erresuminduetara jaso nuenean. Oraingoan ordea pentsamendu osoa zegoen han — ahula, justu-justu zentzuzkoa, justu-justu zehatza—, baina osoa hala ere. Etsipenaren indarraren laguntzaz, hura betetzera jarri nintzen berehala.

Ordu asko zeramatzan etzanda nengoen zureriaren inguruak arratoiez bete-betea. Arratoi basatiak ziren, ausartak, goseak amorratuak; nire gelditasunaren zain baleude bezala distiratzten zuten nire gainean haien begi gorriek,

beren harrapakin noiz bihurtuko. «Nolako janaritara», pentsatu nuen, «ohitu ote dira putzuan?»

Janak zituzten, nire kontrako ahalegin guztiengatik ere, platereko eduki guztiak, apur batzuk izan ezik. Oharkabean ia, eskuari eragiten nion, plateraren gainean etengabe atzeraurrera eginez; baina, azkenean, beti-bateko mugimendu oharkabe hark hasieran zuen eragina galdu zuen. Gose izugarri hartan, piztiak hatzetan iltzatzen zizkidaten sarritan beren hortz zorrotzak. Geratzen ziren haragi oliotsu eta minaren apurrak hartu, eta osorik igurtzi nuen xingola, heltzen nintzen lekuraino; gero, eskua lurretik jasota, geldi-geldi geratu nintzen, arnasari eutsiz.

Hasieran animalia gosetuak ikaratu egin ziren aldaketarekin, mugimenduaren etetearekin. Atzera egin zuten gero, larriturik; askok putzuaren babesa bilatu zuten. Baina une batez bakarrik. Ez nuen alferrik gogoan hartu haien gose izugarria. Mugitu gabe jarraitzen nuela ohartuta, bat edo bi zureriara igo ziren, ausartek, eta usain egin zioten xingolari. Oldarraldi orokor baten seinalea izan zen nonbait hura.

Oste freskoak zetozen presaka putzutik gora. Zurari heldu, hura gainditu eta ehunka etorri zitzaizkidan gainera. Penduluaren mugimendu neurtuak ez zien inolako trabarik egiten. Haren kolpeak saihestuz, saldoka biltzen ziren janariz igurtzitako xingolan. Eztarriaren gainean bihurritzen zitzaizkidan; nire ezpainak bilatzen zituzten haien ezpain hotzek; pisuak itotzen ninduen, gero eta handiago; munduak izendatzen ez dakien nazka batek puztu zidan bularra, eta izoztu zidan, heze eta astun, bihotza. Baina beste minutu bat igaro, eta banekien hartan bukatuko zela borroka. Argi antzeman nuen hasia zela lasaitzen lokarria. Banekien leku batean baino gehiagotan egongo zela ordurako hautsia. Gizatiarra baino gehiago ere bazen erabakitasunaz, geldirik jarraitu nuen.

Ez nituen kalkuluak erratu, ez nuen hura guztia alferrik pairatu. Azkenean *libre* nengoela sentitu nuen. Xingola guztiz urratua zegoen, gorputzetik zintzilik neukan. Baina bularraren gain-gainean neukan ordurako pendulua. Jantziaren oihala zatitu zuen. Ebaki bat egin zuen azpiko atorrean. Beste bi bider kulunkatu zen, eta oina-

zezko sentipen zorrotz batek hartu zizkidan nerbio guztiak. Iritsia zen ordea ihesaren unea. Eskuari eragin nion, eta kanpora oldartu ziren nire askatzaileak. Mungimendu sendo batez — arretazko, albokako, atzeranzko mugimendu motel batez—, xingolaren loturatik apartatu nintzen, zimitarraren helmena baino harantzago. Une hartan behintzat, *libre* nengoen.

Libre! Eta Inkisizioaren eskuetan! Ez al nintzen izumenaren egurrezko ohe hartatik presondegiko lur harrizkora atera, eten zen infernuko makinaren mugimendua, eta sabaraino goratzen ikusi nuen, indar ikusezin batek eraginda. Etsipeenez gogoratu beharreko irakaspena izan zen hura. Nire mugimendu oro behatzen zuten, ez zegoen dudarik. Libre! Itzuri berria nintzen tortura modu bateko heriotzatik, eta heriotza bera baino okerragoa izango zen beste tortura baterako gordetzen ninduten. Pentsamendu hori nerabilela buruan, larrituta begiratu nuen preso nindukaten burdinazko hesietara. Ezohiko gauzaren bat —aldaketaren bat, hasieran zehaztasunez ezin antzeman izan nuena—, gertatua zen gelan, argi zegoen. Zenbait minutuz, abstrakzio

ameslari eta dardartietan galduta, alferrik saiatu nintzen ideiaren bat osatzen. Orduan ikusi nuen, aurreneko aldiz, zein zen gela argitzen zuen sufre argitasunaren jatorria. Zabalean hazbete erdi-edo izango zuen arrakala batetik zetorren; arrakala hura, hormen oinarrian barna, presondegi osora luzatzen zen, eta era horretan lurretik banaturik ikusten ziren hormak, eta halaxe zuden gainera. Saiatu nintzen, baina alferrik noski, irekiduratik zerbait ikusten.

Berriz zutitu nintzenean, bat-batean argitu zitzaidan gelako aldaketaren misterioa. Esan dut lehen, hormetako irudien marrak aski zehatzak ziren arren, koloreek nahasiak eta lausoak ziruditela. Kolore horiek distira harrigarri eta guztiz indartsu bat ematen zieten oraingoan irudi mamuzko eta deabruzko haiei, gero eta distira indartsuagoa, nireak baino nerbio sendoagoak ere ikaratuko zituzkeena. Deabruzko begiak, bizitasun basati eta heriozko batez, begira-begira neuzkan milaka lekutatik, lehen batere ikusten ez zen tokietatik, eta nire irudimenak gauza irreala bailitzan ezin ikusi zuen su baten gar ozarraz distiratzen zuten.

Irreal! Arnasa hartzean sudur-zuloetara iristen zitzaidan-eta burdin gorituaren lurrina! Usain itogarri batek betetzen zuen nire kartzela! Gero eta distira sakonagoa zuten begi haiek, nire oinazeei erreparaka denak. Gorrimin biziago batek hartu zituen izuzko irudi odoltsuak. Arnastuka hasi nintzen... albetan nengoen. Ezin nuen nire torturatzailen asmoez dudarik egin... Ai, gupidagabeak! Ai, deabruzko gizon madarikuak! Metal distiratsutik gelaren erdira egin nuen jauzi. Suzko suntsitze berehalako haren pentsamendua nuela gogoan, baltsamoa bezala iritsi zitzaidan arimara putzuaren hoztasunaren ideia. Bizkor inguratu nintzen heriozko ertzera. Behera zuzendu nuen nire begiratu nekatua. Sabai piztuaren argitasunak ikusgai bihurtzen zituen zokorik ezkutuenak. Hala ere, zoramenezko une batez, nire espirituak uko egin zion ikusten nuen hura ulertzeari. Azkenean, indarrez, eginahalean, ulermenak bidea zabaldu zuen nire ariman, nire arrazoi dardartian kiskali zen. Oi! Zein bozek hura adierazi? Hura izua! Edozer gauza, baina hori ez! Intzirika aldendu nintzen

ertzetik, eta, negar saminez, esku ahurretan ezkutatu nuen aurpegia.

Berotasuna laster areagotu zen, eta putzura begiratu nuen ostera, sukarrak jota bezala dardarka. Bigarren aldaketa bat gertatua zen gelan, eta aldaketa hura, argi eta garbi, formari zegokion. Lehen bezala, alferrik zen orduan ere han gertatzen ari zena berehalakoan asmatzen edo ulertzen ahalegintzea. Baina ez nintzen luzaroan zalantzan egon. Nire bi ihesaldien ondoren laster-rago zetorren Inkisizioaren mendekua, eta Izua-ren Erregek ez zuen denbora gehiago alferrik galduko. Lehen karratua zen gela. Konturatu nintzen zorrotzak zirela orain burdinazko angelueta-ko bi, eta, hortaz, kamutsak beste biak. Desberdintasun beldurgarri hura azkar ari zen handitzen, zarata isil, marru antzeko batez. Une batean gelaren forma erronboarenera aldatu zuen. Baina aldaketa ez zen hartan geratu —eta nik ere ez nuen espero ez desio hartan geratzetik. Besarkada bat ere emango nien horma gorri haiei, betiko bakearen ikur. «Heriotza», esan nuen, «edozein heriotza, baina ez putzukoa!» Inozo galanta! Ez al nintzen konturatzen ni

putzura bultzatzea zela burdin goriaren helburua? Pairatuko ote nuen kiskaltzea? Baina, hura pairatuko banu ere, nola eutsi bultzadari? Kamutsago eta kamutsago zetorren erronboa, begiratzeko astirik ere uzten ez zidan lastertasunaz. Erdialdea, jakina, hura baitzen zabalerarik handiena, amildegi irekiaren gain-gainera zetorren. Atzera egin nuen, baina ixten ari ziren hormek aurrerantz bultzatzen ninduten. Azkenean ez zitzaion geratu nire gorputz kiskali bihurrituari oin bat ere jartzeko lekurik presondegiko lurrean. Ez nuen borrokan jarraitu, baina etsipenezko deiadar ozen, luze eta atzeneko batean aurkitu zuen hustubidea nire arimaren agoniak. Sentitu nuen balantzaka nindoala ertzera. Begiak apartatu nituen.

Giza ahotsen zarata nahasia entzun zen! Tronpeta askoren soinu ozena! Milaka trumoiaren kirrinka latza! Atzera egiten zuten horma kiskalgarriek! Beso luzatu batek heldu zion nireari, kordea galduta zuloan amiltzen ari nintzen unean. Lasalle jeneralarena zen; Toledon sartu berria zen frantses armada. Etsaien eskuetan zegoen Inkisizioa.

Amontillado upela

Ahal nuen ondoena eramaten nituen Fortuna-tok egiten zizkidan erasoak; iraintzera ausartu zitzaidanean ordea, mendeku hartuko niola zin egin nuen. Hala ere, zuek, nire arimaren barrena hain ondo ezagutzen duzuen horiek, ez duzue pentsatuko noski mehatxurik egin nionik. *Azke-nean* aseko nuen mendekua; erabaki hori sendoa zen, zinez; baina erabakiaren sendotasunak berak bazterreratzen zuen arrisku aukera oro. Zigorra burutu behar nuen, baina ez hori bakarrik, arriskurik batere gabe behar nuen ibili. Kalte bat ez da ordaintzen ordainak mendekatzailea bera ere harrapatzen badu, eta orobat geratzen da kaltea ordaindu gabe baldin mendekatzaileak kalte egilearen aurrean mendekatzaile gisa agertzerik lortzen ez badu.

Adierazi behar dut ez hitzez ez egitez ez niola eman Fortunatori nire asmo onaz duda egiteko motiborik. Jarraitu nuen, horixe nahi nuen-eta, Fortunatoren aurrean irribarre egiten, baina ez

zen konturatzen bere heriozko oparia gogora ekartzeak sortua zela *orduan* nire irribarrea.

Bazuen Fortunato honek ahulgune bat, nahiz eta gainerakoan errespetatzeko moduko gizona zen, baita ikara sortzeko modukoa ere. Ardoetan aditua izateaz harrotzen zen. Italiar gutxik dute benetako birtuosoaren espiritua. Abagunea baliazera egokitzen dituzte gehienetan beren ahalegin guztiak, britainiar eta austriar dirudunei iruzur egiteko ondoren. Margolan eta bitxi kontuetan, Fortunato, bere herrikideak bezala, gezurti bat zen, baina zintzoa ardo zaharren auzian. Puntu horretan ez nintzen ni oso bestelakoa: neu ere trebea bainintzen italiar mahatsaldietan, eta ardoa gogotik erosten nuen aukera nuen guztietan.

Ilunabarra zen, inauterietako eromen handieneko egunaren arratsa, nire adiskidearekin topo egin nuenean. Berotasun handiegiaz agurtu ninduen, edaten ibilia baitzen. Bufoiez mozorrotuta zetorren; jantzi marradun estu bat zeraman soinean, eta kono formako txano kaskabiloduna buruan. Hain nengoen pozik ikusi nuelako, non ez bainuen inoiz etengo esku estutzea.

—Fortunato maitea —esan nion—, hau zortea zu aurkitu izana. Horixe da itxura ona gaur duzuna! Upel bat iritsi zait Amontilladoa omen dena, baina zalantzan nabil hala ote den.

—Zer? —esan zuen—. Amontilladoa? Upel bat? Ez da posible! Eta inauterietan gainera!

—Ez baitakit —erantzun nion—; eta Amontilladoaren prezioa ordaintzeko bezain inozoa izan naiz, zuri galdetu ere egin gabe. Ezin zintudan aurkitu, eta beldur nintzen ez ote nuen mauka bat galduko.

—Amontilladoa!

—Ez baitakit.

—Amontilladoa!

—Eta jakin beharra dut.

—Amontilladoa!

—Zu lanpetuta ibiliko zinela-eta, Luchesirenera nindoan. Inor baldin bada ardoari antzematen dionik, huraxe da. Hark esango dit...

—Luchesik ez ditu Amontilladoa eta Jereza bereizten.

—Eta hala ere badira haren dastamena zurearen parekoa dela dioten zoroak.

—Tira, goazen.

—Nora?

—Zure sotora.

—Ez, adiskidea, ez; ez dut zure borondate onaz baliatu nahi. Konturatzen naiz hitzordu bat duzula. Luchesi...

—Ez dut hitzordurik; goazen.

—Adiskide hori, ez. Kontua ez da hitzordua, ezagun duzun hotzeria gogor hori baizik. Soto horiek izugarri hezeak dira. Gatzuz estalita daude.

—Ez dio axola, goazen. Hotzeria ez da ezer. Amontilladoa! Iruzur egin dizute. Eta Luchesi horrek, horrek ez ditu Amontilladoa eta Jereza bereizten.

Hizketan oraindik, besotik heldu ninduen Fortunatok. Zeta beltzeko mozorro batez estal nuen aurpegia, *roquelaure* batean bildu soina, eta nire jauregira eraman nitzan utzi nion.

Zerbitzaririk ez zen etxean; alde eginak ziren jaiak behar bezala ospatzeko. Goiza arte ez nintzela itzuliko esan nien, eta etxetik ez mugitzeko agindua eman nien. Aski ziren agindu horiek, ondo asko nekienez, ni beste aldera jiratu eta zerbitzari guztiak segituan desagertzeko.

Atera nituen bi zuzi beren euskarrietatik, Fortunatori bat eman, eta geletan barrena eramaneu sotoetara zihoan korridoreraino. Zurubi kiribil luze batetik behera abiatu nintzen, Fortunatori nire atzetik kontuz etortzeko gogorarazi ondoren. Azkenean iritsi ginen zurubiaren oinera, eta hantxe ginen biak, Montresortarren katakonben lur hezearen gainean.

Balantzaka zetorren nire laguna. Txanoko kaskabiloek zarata ateratzen zuten mugitzen zenean.

—Upela —esan zuen.

—Urrutiago dago —esan nion—; baina begira armiarma-sare zuri horiek, nola distiratzen duten kobazuloko hormetan.

Nigana jiratu zen, eta begietara erreparatu zidan, pozoidura zerien begi-nini lausotuez.

—Gatzua? —galdetu zuen azkenean.

—Gatzua —erantzun nion—. Noiztik duzu eztul hori?

Eztulaldi gogor batek eraso ziolarik, zenbait minutuz ezin izan zuen erantzun nire lagun gizarajoak.

—Ezer ez da —esan zuen azkenean.

—Tira —esan nion deliberamenduz—, itzuli egingo gara; zure osasuna da garrantzitsuena. Aberatsa zara, errespetagarria, miretsia, maitatua; zoriontsua zara, ni behinola izan nintzen bezala. Asko nabarituko da zure falta. Niregatik ez dio axola. Itzuli egingo gara; gaixotu egingo zara, eta nik ez dut horrelako erantzukizunik nahi. Gainera, Luchesik...

—Aski da —esan zuen Fortunatok—; eztul hau ez da ezer; ez naiz hilko. Eztulaldi batek ez nau hilko.

—Egia da, bai —erantzun nion—; eta, gainera, ez zaitut alferrik larritu nahi. Hala ere, zaindu beharko zenuke zeure burua. Medoc honen zurrutada batek on egingo digu hezetasunaren kontra.

Lurrean zegoen mota bereko botila sail luze batetik bat hartu eta lepoa hautsi nion.

—Edan —esan nion, ardoa eskainiz.

Soslaiez begiratzen zidala, ezpainenara eraman zuen. Edateari utzi eta, kaskabiloek hots egiten zutela, keinu adiskidetsu bat egin zidan buruaz.

—Gure inguruan atseden hartzen duten lurperatuengatik edaten dut.

—Eta nik zure bizitza luzeagatik.

Berriz ere besotik hartu ninduen, eta aurrera egin genuen biok.

—Soto hauek —esan zuen—, oso handiak dira.

—Familia handia eta ugaria ziren Montresor-tarrak —erantzun nion.

—Ahaztua dut zuen armarria.

—Urrezko giza oin erraldoi bat, zelai urdin batean; oinak herensuge bat zanpatzen du, eta herensugeak oinaren orpoan dauzka atzaparrak sartuta.

—Eta ikur-hitza?

—*Nemo me impune lacessit.*

—Ondo!

Ardoak begietan distiratzen zion eta kaskabi-loek hots egiten zuten. Neure irudimena ere berotu zuen Medoc-ak. Hezur pilatuez beteta zeuden hormen ondotik igaro ginen —haien artean ere ageri ziren, tarteka-tarteka, botilak eta upelak—, eta katakonben barreneneko parteraino iritsi ginen. Berriz geratu nintzen, eta

orduan Fortunatori besotik heltzen ausartu nintzen, ukondoaren gainetik.

—Gatzua! —esan nuen—, begira, hemen gehiago dago. Lizuna bezala sortzen da sotoen sabaian. Ibaiaren azpian gaude, eta hezurren artean erortzen dira hezetasunaren tantak. Zatoz, itzuli egingo gara, bestela beranduegi izango da-eta. Eztul hori...

—Ezer ez da —esan zuen—; goazen aurrera. Baina, lehenbizi, edan dezagun beste zurrutada bat.

De Grave botila bat hartuta, lepoa hautsi eta eskaini egin nion. Zurrutada batez hustu zuen. Argitasun bortitza zuen orain begietan. Barre egin zuen, eta, ulertu ez nuen imintzio bat eginenez, gora bota zuen botila.

Harriturik begiratu nion. Berriz egin zuen mugimendua, mugimendu irrigarri bat.

—Ez al duzu ulertzen? —galdetu zidan.

—Ez.

—Orduan ez zara anaidikoa.

—Zer?

—Ez zara masoia.

—Bai, masoia naiz —esan nion—, masoia naiz.

—Zu? Ez da posible! Masoia?

—Masoia —esan nuen berriz.

—Seinale bat —eskatu zidan—, seinale bat.

—Hara hemen —erantzun nion, eta pala bat atera nuen nire *roquelairearen* tolesen artetik.

—Txantxetan ari zara —esan zuen, urrats batzuk atzera eginez—. Tira, goazen Amontillado hori ikustera.

—Goazen bada —esan nion.

Sartu nuen berriz lanabesa jantziaren azpian, eta berriz eskaini nion besoa. Astun makurtu zen nire besoaren gainera. Aurrera jarraitu genuen Amontilladoaren bila. Arku sail baten azpitik igaro ginen, behe-rago jaitsi, aurrera jo, eta berriz ere behera eginez, kripta sakon batera iritsi ginen. Haizea hain zen han gaiztoa non gure zuziek, sugarra galduta ia, ozta-ozta argitzen baitzuten.

Beste kripta bat ageri zen, txikixeagoa, kriptaren urruneneko partean. Giza hezurrez estalita zeuden hormak, goiko gangaraino elkarren gainean pilatuta, Parisko katakonba handietan

bezala. Barreneneko kripta horren hiru alde modu horretan zeuden oraindik apainduak. Lau garren aldean kenduta zeuden hezurak; lurrian nahasirik ageri ziren, eta multzo handi samar bat osatzen zuten bazter batean. Hezurak aterata agerian geratzen zen horma hartan, beste sakonune bat ikusi genuen, lau bat oin luze, hiru bat oin zabal eta sei edo zazpi oin garai. Sakonune hark ez zirudien berariaz egina, ez baitzen katakonbetako sabaiaren bi euskarri erraldoiren arteko barrunbea besterik, eta euskarri haiek inguratzen zituzten granito sendozko hormetako batek osatzen zuen atzealdea.

Alferrik saiatu zen Fortunato, bere zuzi motela jasoz, sakonunearen atzealdea bereizten. Argiaren ahultasunak ez zigun atzeneko partea ikusten uzten.

—Segi aurrera —esan nion—; hortxe dago Amontilladoa. Eta, Luchesi hori dela-eta...

—Ezjakin hutsa da —isilarazi ninduen nire adiskideak, aurrera eginez balantzaka, eta ni haren atzetik, pega-pega eginda. Segituan iritsi zen sakonunearen bukaerara, eta harkaitzak ez ziola jarraitzen uzten ikusirik, inozo bat bezala

geratu zen, zeharo txundituta. Hurrengo unean granitoan kateatua neukan. Baziren horma hartan burdinazko bi uztai, elkarrengandik bi oin edo aparte. Batetik kate labur bat zegoen zintzilik, bestetik giltzarrapo bat. Fortunatoren gerria kateaz inguratuz, segundo gutxiko lana izan zen nire adiskidea horman sendo kateatzea. Harrituegia zegoen kontra egiten hasteko. Giltza hartu eta atzera egin nuen sakonunean.

—Uki ezazu horma eskuaz —esan nion—. Gatzua sentitu beste erremediorik ez duzu. Egia da, bai, oso hezea dago. Berriz ere erregutzen dizut, alde egin dezagun hemendik. Ez? Orduan utzi egin beharko zaitut. Eskura ditudan zerbitzu txiki guztiak eskaini behar dizkizut lehenbizi ordea.

—Amontilladoa! —oihu egin zuen nire lagunak, bere txundimenetik atera ezinda.

—Egia da —erantzun nion—. Amontilladoa. Hitz horiek esatean, lehen aipatu dudan hezur pilarekin nenbilen lanpetuta. Hezurak alde batera boteaz, agerian utzi nituen eraikuntzako harria eta zementua. Haiekin eta nire pala-

ren laguntzaz, sakonunearen sarreran horma bat eraikitzeari ekin nion.

Oraindik lehen ilara osatzen ari nintzela, Fortunatok mozkorra joana zuela konturatu nintzen. Sakonunetik iritsi zen intziri apal bat izan zen lehen seinalea. Hura ez zen gizon mozkor baten oihua. Isilaldi luze setatsu bat etorri zen ondoren. Jarri nuen bigarren zerrenda, eta hirugarrena eta laugarrena; eta orduan katearen dardardaldi suminak entzun nituen. Soinuak zenbait minutu iraun zuen, eta minutu haietan, gusturoago entzuteagatik, lanari utzi eta hezurren gainean eseri nintzen. Soinua isildu zenean, berriz hartu nuen pala, eta etengabe egin nituen bostgarren ilara, seigarrena eta zazpigarrena. Nire bularraren pareraino iristen zen jada horma. Berriz ere gelditu nintzen, eta zuziei hormaren gainetik eutsiz, barruko irudirantz bideratu nituen izpi ahul batzuk.

Garrasi ozen eta zorrotz batzuek, bat-batean lehertu baitziren irudi kateatuan, atzerantz bota ninduten ia. Une labur batez duda egin nuen, dardarka hasi nintzen. Ezpata zorrotik aterata, sakonunea haztatzen hasi nintzen; baina buruta-

pen bakar bat aski izan nuen sosegatzeko. Katakonben hesi sendoan ipini nuen eskua, eta lasaituta geratu nintzen. Hurbildu nintzen hormara; garrasika ari zenaren oihuei erantzun nien. Oihartzun egin nien, lagundu nien, oihuen bolumena eta indarra gainditu nituen. Hori egin, eta oihularia isildu egin zen.

Gauerdia zen, eta bukatzen ari nintzen egitekoa. Osatuak nituen zortzigarren, bederatzigarren eta hamargarren ilarak. Bukatuta neukan hamaikagarren eta azkenaren parte bat; harri bat baino ez zitzaidan geratzen ipini eta finkatzeko. Harri haren zamarekin borrokatu nintzen; erdizka jarri nuen behar zuen lekuan. Baina une horretan buruko ileak lastu zizkidan barre apal bat atera zen sakonunetik. Ahots triste bat etorri zen hurrena, Fortunatoren ahotsa zela nekez ezagutu nuena.

—Ja, ja! Ja, ja! Oso ona zure adar jotze hau, izugarri ona, bai. Barrea gogotik egingo dugu honen kontura jauregian! Ja, ja! Gure ardoa edanez gainera! Ja, ja!

—Amontilladoa! —esan nuen.

—Ja, ja! Bai horixe, Amontilladoa. Baina ez al da berandutzen ari? Nire emaztea eta gainerakoak ez al ditugu jauregian zain edukiko? Tira, goazen.

—Bai —esan nion—, goazen.

—Jainkoaren izenean, Montresor!

—Bai, Jainkoaren izenean!

Baina alferrik egon nintzen hitz haien erantzunaren zain. Pazientzia galtzen hasi nintzen. Ozen deitu nuen.

—Fortunato!

Erantzunik ez. Berriz deitu nuen.

—Fortunato!

Erantzunik ez ordukoan ere. Suzi bat sartu nuen irekita geratzen zen zulotik, eta barrura bota nuen. Kaskabiloen hotsa izan zen erantzun bakarra. Gaizkitzen hasi nintzen katakonbetako hezetasun hartan. Presaka jarri nintzen lana bukatzera. Ipinu nuen azkeneko harria bere lekuan eta zementua erantsi nion. Berriz osatu nuen hezurren multzoa horma-lan berriaren kontra. Gizaldi erdi batez ez da izan hura ukitu duen kristaurik. *In pace requiescat!*

Marie Rogêten misterioa

«Morgue kaleko hilketak»en jarraipena

Es giebt eine Reihe idealischer Begebenheiten, die der Wirklichkeit parallel läuft. Selten fallen sie zusammen. Menschen und zufälle modifizieren gewöhnlich die idealische Begebenheit, so dass sie unvollkommen erscheint, und ihre Folgen gleichfalls unvollkommen sind. So bei der Reformation; statt des Protestantismus kam das Lutherthum hervor.

«Izaten dira gertaera sail idealak benetako gertaeren pare joaten direnak. Gutxitan etortzen dira bat. Gizonek eta zirkunstantziak aldatzen dute gehienetan gertaeren ibilbide ideal hori, eta, hortaz, ez da ibilbide perfektua gertatzen, eta, modu berean, haren ondorioak ere ez dira perfektuak izaten. Halaxe gertatu zen Erreformarekin; luteranismoa etorri baitzen protestantismoaren ordeaz.» — NOVALIS. *Moralische Ansichten.*

Pertsona gutxi da, baita pentsalari sosegatuenen artean ere, izadiaz gaindikoaren erdi-sineste lauso baina hala ere zirrargarri batek inoiz asaldatu ez duena, *kointzidentzia* hain zoragarriak gertatzen baitira, non, kontzidentzia *huts* gisa, adimenak ezin baititu ulertu. Sentimendu horiek —zeren aipatu ditudan erdi-sineste horiek ez baitute sekulan izaten *pentsamenduaren* indar betea—, sentimendu horiek nekez desagertuko dira, baldin eta ez bada zoriaren dotrinara jotzen, edo, teknikoki esaten zaion bezala, Probabilitateen Kalkulura. Baina kalkulu hori, berez, matematikoa da huts-hutsik; eta era horretan bitxikeria batera iristen gara, alegia, zientziarik zehatzen eta zurrunena aplikatzen zaiola espekulazio ukiezinenaren lanbro eta espiritualtasunari.

Kaleratzeko eskatu dizkidaten xehetasun harrigarriek, denboraren sekuentziari dagokionez, nekez uler daitekeen *kointzidentzia* sail baten adar nagusia osatzen dute; eta sail horren bigarren mailako adarra, edo azkena, irakurle guztiek ezagutuko dute, New Yorken gertatu zen Mary Cecilia Rogers neskatxaren hilketan.

Duela urtebete edo, *Morgue kaleko hilketak* izeneko artikulu batean nire adiskide Auguste Dupin jaunaren adimenaren ezaugarri aipagarri batzuk deskribatzen ahalegindu nintzenean, ez zitzaidan burutik pasa gai berari helduko nionik berriz ere. Dupinen ezaugarri horiek deskribatzea zen nire asmoa; eta asmo hori osorik bete zen Dupinen nolakotasuna agerian jarri zuten zirkunstantzia sail lazgarri hartan. Banuen beste adibide batzuk aipatzea, baina gehiagorik ez nuen frogatuko. Geroago gertatuek, nolana ere, beren bilakaera txundigarrian, bestelako xehetasunetara eraman naute, eta xehetasun horiek indarrez ateratako aitorpenen itxura izango dute. Azkenaldi honetan entzun dudana entzun ondoren ordea, harrigarria litzateke isilpean uztea aspaldi entzun eta ikusi nuena.

Madame L'Espanaye eta haren alabaren heriotzen tragedia argitu ondoren, Dupin jaunak berehala galdu zuen gertaera hari buruzko interesa, eta segituan itzuli zen bere ameskeria tristen usadio zaharretara. Abstrakziorako joera bainuen neuk ere, berehala egin nintzen usadio haien kide; eta, Faubourg Saint Germaineko gela

beretan jarraitzen genuelarik, etorkizunari buruzko kezka baztertu, eta lasai-lasai murgildu ginen orainean, gure inguruko mundu aspergarria ametsetan bilbatzen jarraitzeko.

Amets haiek ordea eten egiten ziren noizean behin. Aise ulertuko da Morgue kaleko dramaren nire adiskideak izan zuen eginkizunak zenbaterainoko zirrara eragin zion paristar poliziari. Guztiz ezaguna egin zen Dupinen izena poliziako kideen artean. Misterioaren hariak lotzeko erabili zituen indukzioen nolakoa ez baitzion inoiz agertu Prefektuari, ezta beste inori ere —niri izan ezik—, ez da noski harrigarria jendeak auzi hau ia-ia miragarritzat jotzea, edota Dupinen gaitasun analitikoak intuizioaren sona hartzea. Zintzotasunak, berez, aurreiritzi hori zuen ororigia esatera bultzatzen zuen Dupin; baina nagitasunak galarazten zion berarentzat interesa aspaldi galdua zuen gai bati berriz ere heltzea. Horrela bada, poliziaren begiratuen objektu bihurtu zen Dupin; eta ez ziren gutxi izaten Prefekturan haren zerbitzuak eskatzen zituzten kasuak. Marie Rogêt izeneko neska gazte baten hilketa izan zen kasu aipagarrienetako bat.

Kasu hau Morgue kaleko izugarrikeria gertatu eta bi urte geroago izan zen. Marie —izen-abi-zenek berehala gogoraraziko dituzte, antzaren-gatik, neska zigarro-saltzaile zoritxarrekoarenak—, Estelle Rogêt alargunaren alaba bakarra zen. Txikitan hil zitzaion aita, eta haren heriotzaz geroztik eta gure kontakizunaren ardatza osatzen duen asasinatzea baino hemezortzi hilabete lehenago arte, elkarrekin bizi izan ziren ama-alabak Rue Pavée Saint André-n, amak, Marieren laguntzarekin, ostatu bat gobernatzen baitzuen han. Horrelaxe egon ziren gauzak, harik eta neskatxak hogeita bi urte bete, eta haren edertasunak lurringile baten arreta erakarri zuen arte. Lurringileak denda bat zeukan Palais Royalgo behealdean, eta auzoa betetzen duten abenturazale amorratuek osatzen zuten gehienbat haren bezeria. Monsieur Le Blanc ondo asko konturatzen zen zer-nolako abantailak zekarzkion Marie ederra bere dendan saltzaile edukitzeak; eta neskak gustura hartu zuen gizonaren eskaintza eskuzabala, ez ordea neskaren amak, hark zalantzak zituen-eta harreman hartaz.

Dendariak pentsatu bezala joan ziren gauzak, eta laster famatu zuen denda *grisette* biziaren xarmak. Emango zuen neskak urtebete-edo han lanean, eta halako batean dendatik desagertu zen, haren miresleen txundimenerako. Monsieur Le Blanc-ek ezin zuen neskaren desagertzea esplikatuz, eta larritasunak eta izuak erotu beharrean zeukaten Madame Rogêt. Egunkiariek berehala heldu zioten gaiari, eta, polizia ikerketak egiten hastekotan zela, han agertu zen ostera Marie, aste bete igaro ondoren, goiz eder batean, bere ohiko salmahaian, osasuntsu baina nolabaiteko aire tristeaz. Berehalakoan eten ziren galdeketa guztiak, pribatuak izan ezik. Monsieur Le Blanc-ek erabateko ezjakintasuna argudiatu zuen, lehen bezala. Mariek, eta orobat amak, galdetzen zitzaizkionean, gauza bera erantzuten zuten beti, landaldean eman zuela azkeneko astea, ahaide baten etxean. Era horretan pixkana-pixkana isildu zen auzia, eta ahaztu zitzaizen gehienei; zeren neskak, lotsagabeen jakin-minetik libratzeko noski, agur egin baitzion lurrin saltzaileari, eta amaren egoitzaren babe-

saren bila joan zen berriz Rue Pavée Saint Andrée-ra.

Etxera itzuli eta handik bost bat hilabetera, neskaren adiskideak guztiz larritu ziren hura bigarrenez desagertu zenean. Hiru egun igaro ziren, eta inork ez zekien ezertxo ere neskari buruz. Laugarren egunean Sena ibaiko uretan aurkitu zen gorpua, Rue Saint Andréko auzoaren ibaiertzetik gertu, Barrière du Rouleko auzo bakartutik oso urruti ez dagoen gune batean.

Hilketa honen izugarrikeriak (zeren berehala ikusi baitzen hilketa kasua zela), biktimaren gaztetasun eta edertasunak, eta, ororen gainetik, ezaguna izateak, bat egin zuen denak paristar sentikorren gogoan zirrara sakona eragiteko. Hainbestearainoko eragina, hain zabala eta sakona, izan duen antzeko gertaerarik ez dut gogoratzen. Zenbait astez, une hartako politika gaiak ere ahantzarazi zituen gai erakargarri honen gaineko eztabaidak. Prefektuak ohiz kanpoko lana egin zuen; eta, esan gabe doa, Parisko poliziaren indar guzti-guztiak jarri ziren kasu hau argitzera.

Gorpua aurkitu zen unean, ez zen pentsatu hiltzailea gai izango zenik, ez denbora askoan

behintzat, berehala abian jarri zen ikerketari itzuri egiteko. Astebete igaro ez zen arte ez zen beharrezkotzat jo sari baten eskaintzea; eta hasieran mila libera baino ez zen eskaini. Bitartean ahaleginean jarraitu zuen ikerketak, ez beti zuhur, eta jende askoren galdeketa egin zen, xede jakinik gabe ordea; eta bitarte horretan, misterioaren argibiderik ez baitzen batere aurkitzen, herritarrak nabarmen hasi ziren larritzen. Hamargarren egunean pentsatu zen komenigarria izango zela hasieran proposaturiko kopurua bikoiztea; eta, azkenean, aurkikuntzarik batere erdietsi gabe igaro baitzen bigarren astea ere, eta kontuan izanik kaleko istilu larri samarretan gauzatzen hasi zela paristarrek poliziaren kontra beti izaten duten iritzi txar hori, bere gain hartu zuen Prefektuak hogeita mila liberaren eskaintza egitea “hiltzailearen salaketa” lortzeko, edo, frogatzen bazen pertsona batek baino gehiagok izan zuela hartan zerikusia, “edozein hiltzailearen salaketa” lortzeko. Sari horrekin batera zetorren adierazpenean, barkamen osoa agintzen zitzaion hiltzailearen kontrako deklaraziorik egingo zuen konplizeari. Prefektuaren iragar-

kiak, agertzen zen leku guztietan, hiritar batzorde baten idazki pribatua zekarren erantsita, Prefekturak agintzen zuen kopuruaz gainera beste hamar mila libera eskaintzen zituena. Hogeita hamar mila liberatik gorakoa zen beraz sari osoa, izugarritzko dirutza, kontuan hartzen badugu neskaren jatorri apala, eta deskribatu den bezalako izugarrikeriek hiri handietan izaten duten maiztasuna.

Ziur zeuden denak berehala argituko zela hil-keta honen misterioa. Baina, argitasuna ekarriko zutela ziruditen bizpahiru atxiloketa egin ziren arren, ezer ez zen atera susmagarri ziren petsonak inplika zitzakeenik; eta berehala askatu zituzten. Harrigarria ematen badu ere, gaiari buruz argitasunik eskaini zezakeen daturik batera gabe igaro zen gorpuaren aurkikuntzaren ondorengo hirugarrenengo astea, eta hala ere ez zen ez Dupinen ez neure belarrietara jendearen buruak hainbestera berotu zituen gertaera haren aipamenik iritsi. Gure arreta osoa hartzen zuten ikerketetan sartuta geundelarik, ia hilabete osoa joan zitzaigun ez bata ez bestea kalera atera ez ginena, ez genuen bisitaririk hartu, eta

egunkariak irakurtzerakoan politikazko artikulu nagusiei begiratu arin bat baino gehiago ez genien egiten. G...k berak ekarri zigun hilketa-
ren aurreneko albistea. 18...ko uztailaren hamahiruaren arratsaldeko lehen orduan etorri zitzaigun, eta berandu arte geratu zen gurekin. Haserre zegoen hiltzaileak aurkitzeko ahalegin guztiek huts egin ziotelako. Bere ospea —halaxe esan zuen, bere paristar doinu berezi harekin— kinka larrian zegoen. Ohorea bera ere auzitan zeukan. Beragan finkatuak zituen jendearen begiak; eta ez omen zegoen egin nahi ez zuen sakrifiziorik, baldin eta misterioaren argitzeko bazen. Bukatzeko, hizketaldi xeble samarra egin zuen, Dupinen *zuhurtzia* izendatu zuenari kunplitu bat eginez, eta zuzenean egin zion hari proposamen dudarik gabe eskuzabal bat, zehatz agertzeko libre sentitzen ez naizena, nire kontakizunaren mamiarekin, berez, zerikusirik ez baitu gainera.

Kunplituari ahal izan zuen ondoena uko egin zion nire adiskideak, baina proposamena segituan onartu zuen, nahiz eta haren abantailak guztiz behin-behinekoak izan. Puntu hori eraba-

kita, hizketan jarraitu zuen Prefektuak, bere ikuspuntua agertuz, aldizka poliziak jasotako lekukotasunei buruzko iruzkin luzeak tartekatuz, lekukotasun haiek ez baikenituen oraindik esku-
ra. Luze mintzatu zen, eta, dudarik gabe, oso modu jakingarrian; nik noizean behin iradokizun-
nen bat egiten nuen, gauak mantso-mantso aurrera egiten zuen artean. Dupinek, bere ohiko besaulkian eroso eserita, errespetuzko arretaren irudi betea eskaintzen zuen. Elkarrizketak iraun zuen artean jarrita eduki zituen betaurrekoak; eta haien kristal berdeen atzealdera egin nuen begiratu bat aski izan nuen jakiteko lotan eman zituela, gustura bezain isilik, Prefektuak alde egin zuen arteko zazpi edo zortzi ordu astunak.

Goizean, Prefekturan, behar genituen deklarazio guztiei buruzko txosten oso bat eskuratu nuen, eta, zenbait prentsa bulegotan, gertaera triste honi buruzko informazio interesgarria argitaratu zuten egunkari guztien kopia bana. Bate-re zalantzarik gabe bazter zitekeena kenduta, hauxe zen, osorik, informazioa:

Marie Rogêt 18...ko ekainaren hogeita biko igande goizeko bederatziak aldean atera zen

bere amaren etxetik, Rue Pavée St. André kalean. Etxetik ateratzean, Monsieur Jacques St. Eustache delako bati, eta harixe bakarrik, Rue des Drômes-en bizi zen izeba batekin eguna igarotzeko asmoa zuela adierazi zion neskak. Rue des Drômes hori kalekka labur eta estu bat da, baina jende asko bizi dena; ez dago ibai ertzetik urruti, eta bi milia inguruko distantziara dago Madame Rogêten ostatutik, biderik zuzenena hartuta. St. Eustache hori Marieren senargai ofizialtzat onartua zen, ostatuan bizi zen, eta hantxe egiten zituen jatorduak ere. Ilunabarrean emaztegaiaren bila joatekoa zen, etxera laguntzeko gero. Arratsaldean euria gogor bota zuen ordea; eta, Mariek gaua izebaren etxean pasatuko zuela pentsatuz (halakoetan lehenago ere egin izan zuen bezala), St. Eustacheri ez zitzaion beharrezko iruditu agindutakoa betetzea. Gauzen hasi zuenean, Madame Rogêti (edadeko andre eria zen, hirurogeita hamar urtekoa), entzun omen zioten esaten “Marie ez zuela berriz ikusiko”, baina hitz haiei orduan ez zien inork jaramonik egin.

Astelahenean jakin zen neska ez zela Rue des Drômesera joan; eta eguna neskaren arrastorik aurkitu gabe joan zenean, beranduko bila-keta bat egin zen hiriko zenbait tokitan eta hiri inguruan. Alabaina, neska desagertu eta laugarren eguna arte ez zen aurkitu neskari buruzko datu baliagarriarik. Egun hartan (asteazkena, ekainaren hogeita bosta), Monsieur Beauvais delako batek, Marieri buruzko galderak egiten ibilia baitzen adiskide batekin Barrière du Roule-ren inguruan, alegia, Rue Pavée St. Andréren aurrez aurre dagoen Senaren ertzean, jakin zuen arrantzaleek gorpu bat aurkitu zutela uretan, eta ibai ertzera atera berria zutela. Gorpua ikusi zue-nean, Beauvaisek, hasieran duda egin bazuen ere, lurrin dendako neska zela adierazi zuen. Lagunak Beauvaisek baino lehenago ezagutu zuen gorpua.

Aurpegia odol gatzatuaz zikindua zuen, eta ahotik ere bazerion odol pixka bat. Aparrik ez zitzaion ikusten, itoengan gertatu ohi den bezala. Zelula ehunek ez zuten kolorea galdua. Ezta-ri aldean ubelduak zituen, eta hatzen markak. Bularraren gainean gurutzatuak zituen besoak,

eta zurrunduta zeuden. Eskuineko eskua itxita zegoen; ezkerrezkoa erdizka irekia. Ezkerreko eskumuturrean bi azal-urratu zituen, biribilak, soken ondoriozkoak itxuraz, edo behin baino gehiagotan bildutako soka batek eraginak. Eskuineko eskumuturraren parte batean ere urratu handiak ageri zituen, eta orobat bizkarralde osoan, omoplatoetan bereziki. Arrantzaleek soka batez lotu omen zuten gorpua, lehorrera ateratzeko, baina azaleko urradurak ukitu gabe. Lepoko haragia oso hazia zuen. Ebakirik ez zegoen itxuraz, ezta kolpeen ondoriozko izan zitekeen ubeldurarik ere. Kordoi puska bat aurkitu zitzaion lepoan, hain estu lotua non ikusi ere ez baitzen egiten, eta ezkerrezko belarriaren azpian geratzen zen korapilo batez lotua. Aski zen kordoi hura heriotza eragiteko. Sendagileen lekukotasuna segur mintzatzen zen zenduaren bertuteaz. Eragin omen zioten neskari, hala zioen txostenak, bortizkeriarik gogorrena. Aurkitu zutenean, gorpuaren egoera ez zen oztopo izan adiskideek ezagut zezaten.

Soinekoa guztiz urratua zegoen, eta nahasia. Gonaldeko zerrenda bat, oin bat zabal, erauzia

ageri zen beheko azpilduratik gerri alderaino, baina guztiz puskatu gabe. Gerriaren inguruan zegoen, hiru bider tolestua, eta korapilo moduko batez atzealdean lotua. Soinekoaren azpiko jantzia muselina finezkoa zen; eta hartatik zortzi hatz zabaleko zerrenda bat zegoen kendua, ardura handiaz eta oso modu erregularrean. Zerrenda hura lepoaren inguruan lotuta aurkitu zuten, ez estu, baina bai korapilo sendo batez segurtatua. Muselinazko zerrenda honen eta kordioaren gainean, txano baten hariak zeuden erantsita, eta haietatik zintzilik ageri zen txanoa bera. Txanoaren hariak lotzen zituen korapiloa ez zen emakumeek egin ohi duten modukoa, aldiz, marinel korapiloa zen.

Identifikatu ondoren, gorpua ez zuten eraman, egiten den bezala, gorputegira (betebehar hori ez baitzen beharrezko ikusi), aldiz, berehala lurperatu zuten, lehorrera atera zuten lekutik ez urruti. Beauvaisen ahaleginei esker, ahalik eta luzaroena gorde zen auzia isilpean, eta zenbait egun pasa zen jendearen interesa piztu aurretik. Astekari batek, nolana ere, heldu zion azkenean gaiari; atera zuten lurpetik gorpua, eta

berriz aztertu zuten; baina ezer ez zen aurkitu lehendik ezagutzen ez zenik. Oraingoan, nolahi ere, zenduaren amari eta adiskideei erakutsi zitzaizkien jantziak, eta haiek berretsi zuten Mariek etxetik alde egin zuenean soinean zermatzen jantzi berak zirela.

Bitartean, ordutik ordura areagotzen zen nahasmena. Pertsona bat baino gehiago atxilotu eta utzi zuten libre. St. Eustache bereziki susmagarri gertatu zen; izan ere, hasieran, ezin izan zuen Marie etxetik desagertu zen igandean egin zituen joan-etorrien berri zehatzik eman. Geroago, ordea, idatzi batzuk eman zizkion Monsieur G...ri, xehe-xehe delako eguneko ordu guztien berri zehatza ematen zutenak. Denbora pasa eta ez baitzegoen aurkikuntzarik, ehunka zurrumuru zabaldu zen, elkarren kontrakoak, eta kaze-tariak gauza bat bestearen atzetik *iradokitzen* zuten. Haien artean, Marie Rogêt oraindik bizirik zegoela zioena eman zuen atentzio gehiena, alegia, zoritxarreko beste neskaren batena zela Senan aurkitutako gorpua. Egokiago dela uste dut aipatu iradokizuna agertzen du-ten zenbait pasarte irakurleari ezagutaraztea. Pasarte horiek

L'Etoileko artikulu batzuen hitzez-hitzezko itzulpenak dira, egunkari hori, normalean, nahiko txukun idatzia izaten baita.

«Mademoiselle Rogêtek igande goizean alde egin zuen amaren etxetik, 18... urteko ekainaren hogeita bian, bere izebari, edo beste ahaideren bati, bisita egiteko helburu aitortuaz, Rue des Drômes-en. Ordu horretatik aurrera, ez dirudi inork berriz ikusi zuenik. Ez dago neskaren ez aztarrenik ez albisterik batere... Inortxo ere ez da agertu ikusi zuenik, egun horretan, amaren etxea utzi zuenez geroztik... Baina, Marie Rogêt igandeko bederatziak ondoren bizien munduan zegoela dioen frogarik ez badugu ere, ordu horretaraino bizirik zegoelako frogak baditugu. Asteazken eguerdian, hamabietan, emakume baten gorpua aurkitu zen Barrière de Roule-ko ibai ertzean, uretan igeri. Hala, amaren etxea utzi eta hurrengo hiru orduetan jaurtiki zutela Marie Rogêt ibaira pentsatuta ere, hiru egun baino ez ziren pasa etxetik atera zen uneaz geroztik, hiru egun, orduren bat gorabehera. Baina zentzurik ez du pentsatzeak hilketa, baldin eta hil bazuten, hiltzaileek gauerdia baino lehe-

nago gorpua ibaira jaurtitzeko aukera izateko bezain goiz egin zela. Halako krimen izugarrien errudun direnek, nahiago izaten dute iluntasuna argia baino... Konturatzen gara beraz, ezen, Marie Rogêtena balitz ibaian aurkitu zen gorpua, bi egun eta erdi emango zituela uretan, hiru gehienera jota. Esperientziak erakusten duenez, itotakoen gorpuk uretara jaurtitzen badira, edota pertsona bat bortxaz hil eta haren gorpua berehala uretara jaurtitzen bada, seitik hamar egunerako bitartea behar izaten du gorpuk usteltzen hasi eta, usteltze horren ondorioz, ur azalera igotzeko. Kanoikada bat tirata ere gorpu bat dagoen lekuan, bost edo sei egunez urpean egon ondoren azaleratzen bada, berriz murgilduko da, bere horretan utziz gero. Baina, galdetzen dugu guk, zer zuen bada kasu honek izadiaren ohiko bideetatik apartatzeko? Egoera lazgarri horretan, astearte gaua arte eduki izan balitz gorpua ibai ertzean, aurkituko zen hiltzaileen aztarrenen bat. Dudazko puntua da orobat gorpua hain azkar azaleratu izana, baita bi egunez hilda egon ondoren jaurtiki bazuten ere. Eta, areago, gauza nekeza dirudi krimen honen

tamainako gauza bat egiteko gai diren pertsona doilorrek, uretan murgilaraziko zuen zamarik ipini gabe jaurtikitzea gorpua ibaira, zama erans-tea oso erraza zutenean».

Ondoren argudiatzen du kazetariak gorputzak egon behar zuela uretan «ez hiru egun bakarrik, baizik eta, gutxienez, bost aldiz hiru egun», zeren, hain baitzegoen usteldua, non Beauvaisek oso nekez ezagutu baitzuen. Azken puntu hori, nolana ere, ez zen inondik inora onartu. Itzultzen jarraitzen dut:

«Zertan oinarritzen da beraz M. Beauvais gorpu hura zalantzarik gabe Marie Rogêtena zela esateko? Soinekoaren mahuka jaso zuen, eta esan zuen aurkitu zituela neskaren nortasunaz zalantzarik uzten ez zioten marka batzuk. Jendeak, oro har, marka horiek orbainenak-edo izango zirela pentsatu zuen. M. Beauvaisek gorpuaren besoa igurtzi eta *ilea* aurkitu zuen —pentsa daitekeenez, guk uste, batere erabakigarria ez den gauza—, mahukaren barruan beso bat aurkitzea bezain froga eskasa. M. Beauvais ez zen ostatura itzuli gau hartan, aldiz, arratsaldeko zazpitan, asteazkenean, abisua bidali zion

Madame Rogêti bere alabari buruzko ikerketetan ari zirela. Onartzen badugu Madame Rogêt, adina eta pena zirela-eta, ez zela identifikaziora joateko gai (eta hori asko onartzea da), izan behar zuen baten bat bertara joan eta ikerketen berri jakitea merezi zuela pentsatuko zuena, baldin eta uste bazuen gorputza Marierena zela. Inor ez zen agertu. Ezer ez zen esan ez entzun gai honi buruz Rue Pavée St. Andrén etxe bereko biztanleen belarrietara iritsi zenik. M. St. Eustachek, Marieren senargaiak, haren amaren etxean ostatzuz baitzegoen, hurrengo goiza arte ez zuela ezer entzun bere emaztegaiaren gorpuaren aurkikuntzaz deklaratu du, orduan joan omen zitzaion M. Beauvais gelara eta eman baitzion albistea. Halako albistea izateko, oso hotz hartu zuela iruditzen zaigu».

Modu horretan, Marieren ahaideen aldetik axolagabe jokatuko zutelako ideia sortzeko ahalgina egiten zuen aldizkariak, ahaideek gorpua neskarena zela pentsatzearekin adosten ez zena. Hona kazetariaren iradokizunak: Mariek, bere adiskideen laguntzarekin, hiritik alde egin zuen kastitatearen kontrako kargu ziren arra-

zoiengatik; eta adiskide horiek, Senan gorpu bat aurkitu zelarik, bai baitzuen nolabaiteko antzik neskarekin, hartaz baliatu ziren Marieren heriotza jendeari sinestarazteko. *L'Etoile* ordea lasterregi zebilen berriz ere. Argi frogatu zen ez zela izan, pentsatu zen bezala, axolagabekeriarik batere; atsoa ikaragarri ahul zegoela, eta hain zegoela asaldatua, non ezertaz arduratzeko ez baitzen gai, eta St. Eustache, albistek hotz jasotzetik urrun, minak guztiz jota utzi zuela, eta hain aztoratuta zegoela, non adiskide eta ahaide zuen bati eskatu behar izan baitzion M. Beauvaisen har zezala St. Eustacheren ardura, eta ez zion utzi gorpua lurpetik atera ondorengo azterketara joaten. Areago, nahiz eta *L'Etoilek* baies-ten zuen gastu publikoen kargura lurperatu zela bigarrenez gorpua, familiak uko egin ziola hilobi pribatu baten eskaintza onuragarri bati, eta ahaiderik ez zela batere agertu elizkizunetara, nahiz eta, esan dudan bezala, horiek denak ziurtatzen zituen *L'Etoilek* zabaldu nahi zuen ideia azpimarratzeko xedeaz, hala ere, argi frogatu zen hura *guztia* ez zela hala gertatu. Aldizkari beraren hurrengo ale batean, Beauvaisen bera-

ren gainean susmoa sortzeko ahalegina ageri da. Honela dio idazleak:

«Hala bada, aldaketa bat gertatu da auzian. Esan digutenez, behin, Madame B... bat zegoela Madame Rogêt-en etxean, M. Beauvaisek, kalera ateratzekotan baitzen, esan omen zion andreari jendarme bat etorriko zela, baina hark, Madame B.k alegia, ez ziola ezer esan behar bera itzultzen ez zen arte, eta berak esango zizkiola jendarmeari esan beharreko guztiak... Gauzak dauden bezala, badirudi M. Beauvais-ek aurrez pentsatua zuela auzi osoa. Ezin da urrats bat ere egin M. Beauvais gabe; zeren, edozein bide hartuta ere, harekin topo egingo baituzu... Zerbaitengatik ere, berak izan ezik, inork ez duela ikerketan ezer egin behar erabaki du, eta gizonezko ahaideak apartatzen moldatu da, oso modu bitxian gainera, haien kexuek adierazten dutenez. Bereziki ahalegindu da nonbait ahaideek ez dezaten gorpua ikusi».

Ondoren gertatuak kolore pixka bat eman zien Beauvaisengana modu horretan zuzendu ziren susmoei. Neska desagertu baino egun batzuk lehenago Beauvaisen bulegora joan zen

bisitari batek, nagusia kanpoan zela, *arrosa* bat ikusi omen zuen ateko sarrailan, eta *Marie* izena sarrailaren ondoan zintzilik zegoen arbel batean idatzirik.

Aldizkarietatik atera genuenaren arabera, Marie gaizkile talde baten biktima izan zela zen nonbait jendearen susmoa, haiek eraman zutela ibaira, haiek eraso ziotela eta hil zutela. *Le Com-merciel*, nolana ere, oso eragin handia zuen aldizkaria, gogor saiatu zen ideia horren kontra. Hango zutabeetako pasarte bat edo bi aldatuko dut hona:

«Ziur gaude orain arteko ikerketa, Barrière du Roule aldera zuzendua izan den neurrian, aztarren faltsu baten bidetik egin dela. Ezinezko gauza da Marie bezalako emakume bat, ehunka lagunek ondo ezagutzen zutena, inork ikusi gabe hiru etxe multzotatik igaro izana, zeren ikusi zuenak ondo gogoan izango baitzuen, Marie eza-gutzen zuten guztiei interesatzen baitzitzaien. Kaleak jendez beterik zeudenean atera zen etxetik... Dozena bat pertsonak ezagutu gabe, ezinezkoa da neska Barrière du Roule-ra edo Rue des Drômes-era joan izana; hala ere, inor ez da

agertu amaren etxetik kanpo ikusi zuenik, eta neska kalera atera zelako frogarik ere ez dago, ez bada hark *adierazitako asmoekin* zerikusia dutenak. Soinekoa urratua zuen, gorputzaren inguruan bildua, eta lotua; eta era horretan eraman zuten gorpua, fardel bat balitz bezalaxe. Baldin eta hilketa Barrière du Roule-n egin bazen, ez zen horrelako gauzaren beharrik izango. Gorpua Barrièretik gertu aurkitu izana ez da uretara jautiki zen lekuaren erakusgarria... Zoritarreko neskaren azpiko gona baten zati bat, bi oin luze eta oin bat zabal, erauzia zegoen eta neskaren kokotzaren azpian lotua, buruaren atzealdetik, garrasirik egin ez zezan seguraski. Musuzapirik ez zuten morroiek egina da hori».

Prefektua gugana etorri baino egun bat edo bi lehenago, alabaina, informazio garrantzitsua iritsi zitzaion poliziarri, itxuraz *Le Commercial*-en argudioen parte nagusia ezeztatzen zuena. Bi mutil kozkor, Madame Deluc baten semeak, Barrière du Rouletik gertuko basoan jolasean zebiltzala, arboladi sarri batean sartu ziren uste-kabea; ba omen dira han hiru edo lau harri handi, eserleku moduko bat osatzen dutenak,

beren atzealde eta aulkitxoarekin. Goiko harriari gonazpiko zuri bat zegoen; bigarrean, lepoko zapi bat, zetazkoa. Eguzkitako bat, eskularruak eta sakelako zapi bat ere aurkitu zituzten. Zapiak *Marie Rogêt* izena zuen brodatua. Soineko baten puskak agertu ziren inguruko sasieta. Lurra zanpatua zegoen, sasiak hautsiak zeuden, eta nonahi ageri ziren borrokaldi gogor baten erakusgarriak. Leku haren eta ibaiaren arteko bidean, hesiak altxata zeuden, eta lurrian berriz zama astunen bat arrastaka eramana izan zelako seinaleak ageri ziren.

Astekari batek, *Le Soleilek*, komentario hauek egiten zituen aurkikuntzaz, Parisko aldirikari guztien sentimenduaren oihartzun zirenak:

«Gauza haiek, argi dago, gutxienez azken hiru edo lau asteak zeramatzen han; euriaren eraginez hondatuak eta lizunduak zeuden, eta lizunak elkarri erantsiak. Belarra hazia zegoen haien inguruan eta gainean. Eguzkitakoaren zeta gogorra zen, baina barrutik elkarri itsatsita zeuden izpiak. Goialdea tolestua zegoen, osorik lizundua eta usteldua ageri zen, eta hautsi egin zen zabaltzean. Sasiak urratutako soinekoaren

puskak hiru bat hatz zabal eta sei hatz luze ziren. Puska bat soinekoaren azpildurarena zen, eta pasaratua zegoen; gonaren zatia zen beste puska, ez azpildurarena. Erauzitako puskek ematen zuten, eta sasi arantzatsuan zeuden, lurretik oin bat gora edo... Dudarik ez dago, beraz, aurkitu dela doilorkeria beldurgarri honen gertalekua».

Aurkikuntza haren ondoren deklarazio gehiago etorri zen. Madame Deluc-ek adierazi zuen errepideko ostatu baten jabe zela. Ostatura ibaia-
ren ertzetik bertan samar zegoen, Barrière du Roule-ren aurrez aurreko aldean. Auzoa bakartia da oso. Hiriko jenderik bihurriena igandeetan joaten den ohiko lekua da, eta ibaia txalupetan gurutzatuz iristen dira hara. Delako igandearen arratsaldean, hirurak inguruan, neska gazte bat iritsi omen zen ostatura, azal iluneko gizon gazte bat lagun zuela. Ostatuan egonaldi bat egin ondoren, inguruko baso ilunen aldera abiatu omen ziren. Madame Deluc-i atentzioa eman zion neskak zeraman soinekoak, hila zen familiar-teko batek eramane ohi zuen baten antza zela-eta. Lepoko zapi bat gertatu omen zitzaion bere-

ziki nabarmena. Bikoteak alde egin eta handik gutxira, gizatxar batzuk azaldu omen ziren, lainezaz beteta; jan eta edan ondoren, ordaindu gabe, gizonaren eta neskaren bide beretik alde egin omen zuten, ilunabarrean itzuli ziren ostatura, eta atzera gurutzatu zuten ibaia, ikaragarriko presaz nonbait.

Ilundu eta handik gutxira, arratsalde hartan bertan, emakume baten garrasiak entzun zituzten Madame Deluc-ek eta haren seme zaharrenak ostatutik gertu. Garrasiak ozenak ziren, baina berehala isildu omen ziren. Madame Deluc-ek, basoan aurkitu zen lepoko zapia ez ezik, gorpuan aurkitu zen soinekoa ere ezagutu zuen. Valence izeneko omnibus gidari batek adierazi zuen halaber Senako ferry batean ikusi zuela Marie Rogêt, delako igandean, gazte azalilun batekin. Berak, Valencek, ezagutzen omen zuen Marie, eta ezin zuen nahastuta ibili neska-
ren nortasuna zela-eta. Basoan aurkitutako gauza guztiak identifikatu zituzten Marieren familiartekoek.

Beste puntu bati ere bazegozkien Dupinek eskatuta egunkarietatik bildu nituen deklarazio

eta datuak; baina puntu horren ondorioak garrantzitsuagoak ziren nonbait. Deskribatu berri dudan arropen aurkikuntzaren ondorenean, segituan, Marieren senargai St. Eustacheren gorpu bizigabea, edo kasik bizigabea, aurkitu zen ordurako denek laidoaren gertalekutzat zuten hartatik gertu. *Laudanum* idazkia zuen botilatxo bat, hutsik, azaldu zen gizonaren ondoran. Pozoiaren kiratsa zerion gizonaren arnasari, eta hitzik egin gabe hil zen. Gutun bat aurkitu zitzaion gorputzean, labur-laburra, Marieganako maitasuna berresten eta bere burua hiltzeko asmoa adierazten zuena.

—Esan beharrik ere ez dago —adierazi zuen Dupinek, nire oharren azterketa amaitu zue-nean—, Morgue kalekoa baino askoz ere kasu zailagoa dela hau; puntu garrantzitsu batean da haren desberdina. Krimen hau, higuingarria bada ere, *arrunta* da. Ez du ezer berezirik. Konturatuko zara, arrazoi horrexengatik, kasu erraza zela uste izan dela, baina, arrazoi horrengatik beragatik, zaila gertatu behar zuen. Hasieran, adibidez, ez zen pentsatu saria eskaini beharra zegoenik. G...ren agenteek berehala ulertu ahal

izan zuten nola eta zergatik *egin izan zitekeen* tamaina horretako doilorkeria. Modu bat —modu asko— bururatu zitzaien, eta arrazoi bat —arrazoi asko—; eta ez baitzen ezinezko gauza modu eta arrazoi ugari horietako bat izatea benetakoa, segurutzat jo zuten haietako batek izan *behar* zuela. Baina ideia horiek hain erraz bururatu zitzaizkien, eta hain gertagarriak ziren denak, non erraztasun eta gertagarritasun horiek kasuaren zailtasunaren seinale gisa hartu behar baitzituzten, ez erreztasun seinale gisa. Lehena-go ere esan izan dut arrunta denaren mailatik gora eginez aurkitzen duela arrazoiak bere bidea, baldin aurkitzen badu, egiaren bilaketan. Izan ere, halakoetan ez da “zer gertatu da?” egin beharreko galdera, aitzitik, “zer gertatu da orain-goan sekulan gertatu ez zena?” Madame L’Españayeren etxeko ikerketetan, kasuaren *ezohikoak* zeuzkan etsita eta nahastuta G...ren agenteak, eta, hain zuzen ere, horrexek eman behar zion adimen behar bezala arautu bati soluziobidearen seinalerik sendoena; eta adimen arautu hori etsipenean murgilduta geratuko zen baldin eta ikusiko balu zenbateraino den ohikoa lurrin denda-

ko neskaren kasuan aurkitu den guztia, Prefekturako funtzionarioentzat soluzio erraz baten adierazgarri baino ez zen hori.

»Madame L'Españaye eta haren alabaren kasuan, ez zen batere dudarik izan, ezta ikerketaren hasieran bertan ere, hilketa gertatua zela. Berehala baztertu zen suizidioaren ideia. Oraingoan ere, hasieratik bertatik baztertu da neskak bere burua hil zuenik. Halako egoeran zegoen Barrière du Roulen aurkitu zen gorpua, non puntu garrantzizko honi buruz dudarik egiteko betarik ere ez baitzuen ematen. Iradoki da ordea aurkitu den gorpua ez dela Marie Rogêtena, eta Marie Rogêten hiltzailea edo hiltzaileak salatzeagatik eskaini da oparia, eta Marie Rogêti buruz egin dugu guk Prefektuarekin akordioa. Ondo ezagutzen dugu biok gizon hori, eta ederki dakiugu ezin dela beragan konfiantza handirik izan. Baldin eta aurkitu den gorputik bideratzen badi-tugu geure ikerketak, eta bide horretatik jarraituko bagenio hiltzailearen aztarrenari, gorpua beste neskaren batena delako ondoriora iritsi arte, eta ez Marierena, edota Marie bizirik zegoen unetik hasi eta neska ez dutela hil jakingo

bagenu... Kasu batean zein bestean, geure nekeen saria galduko genuke, Monsieur G...rekin moldatu behar baitugu. Geure mesederako beraz, ez bada justiziaren mesederako, gure lehen urratsak, ezinbestean, gorpuaren nortasuna eta galdu den Marie Rogêt horrena bat bera ote diren finkatzea izan behar du.

»Irakurleei dagokienez, *L'Etoileren* argudioak pisukoak gertatu dira; eta, gai honi buruzko saio-etako bat hasten den moduagatik beragatik, argi ageri da egunkaria bera ere haien garrantziaz sinetsita dagoela: “Goizeko egunkari batzuk”, dio, “asteleheneko *L'Etoile*ko artikulu *erabakigarriaz* mintzatzen dira gaur”. Niretzat, delako artikulu hori ezertan ez da erabakigarria, ez bada idazlearen kartsutasunean. Kontuan izan behar ko genuke gure egunkarien helburua, oro har, areago dela txundimena eta oihartzuna sortzea —egunkariek arrakasta izatea—, egiaren alde egitea baino. Aurreneko helburuekin bat egiten duenean bakarrik iritsi nahi izaten da azken puntu hori. Besterik gabe iritzi orokorrarekin bat datorrenak (baita iritzi horrek oinarri sendoa badu ere), horrek ez du masaren konfiantza lor-

tzen. Ideia orokor horri buruz *kontraesan larriak* iradokitzen dituen egunkaria bakarrik hartzen du jendeak sakontzat. Literaturan bezainbeste arrazoibideetan, epigrama da onespén errazena eta zabalena duen generoa. Eta literaturan zein arrazoibidean, epigramak du merituaren mailarik apalena.

»Alegia, Marie Rogêt oraindik bizirik dagoelako ideiak berez duen epigrama eta melodrama nahasketak, horrek erakarri du *L'Etoile*, ez ideia horren egiantzekotasunak, eta horrexek segurtatu dio irakurleen harrera ona. Azter ditzagun egunkari horren argudioen oinarriak, eta saia gaitzen jatorrizko testuak duen koherentzia falta saihesten.

»Idazlearen aurreneko helburua, Mariaren desagertzearen eta gorpuaren ibaiko aurkikuntzaren bitarte laburrean oinarriturik, gorpu horrek ezin duela Mariarena izan frogatzea da. Bitarte hori ahalik eta gehien murriztea da beraz argudiatzailearen lehen egitekoa. Helburu hori lortu nahirik, abiapuntutik bertatik suposizio hutsetara jotzen du kazetariak. Baina “Zentzurik ez du pentsatzeak”, dio, “hilketa, baldin eta hil

bazuten, hiltzaileek gauerdia baino lehenago gorpua ibaira jaurtikitzeko aukera izateko bezain goiz egin zela”. Eta ondoren galdetzen dugu guk, eta arrazoi osoz gainera, *zergatik?* Zergatik ez du zentzurik pentsatzeak neska amaren etxetik joan eta hurrengo *bost minutuetan* gertatu zela hilketa? Zergatik ez du zentzurik pentsatzeak egun hartako edozein unetan gerta zitekeela? Edozein ordutan gertatu izan dira hilketak. Baina, igande goizeko bederatziak eta gaueko hamabiak laurden gutxi arteko edozein unetan gertatu baldin bazen, oraindik ere bazen aski denbora “gauerdia baino lehenago gorpua ibaira jaurtikitzeko”. Suposizio horren ondorioa da, hortaz, hilketa ez zela igandean gertatu; baina, onartzen badugu horixe dela *L’Etoileren* ideia, orobat onartu beharko dugu egunkaria edozer gauza asmatzeko libre dela. “Zentzurik ez du pentsatzeak, etab.” hasten den paragrafoa, *L’Etoilen* idatzia ageri den moduan, *honetaxe* egon zitekeen irudikatua idazlearen buruan: “Zentzurik ez du pentsatzeak, hilketa, baldin eta hil bazuten, hiltzaileek gauerdia baino lehenago gorpua ibaira jaurtikitzeko aukera izateko bezain

goiz egin zela; zentzurik ez du, diogu guk, hori guztia suposatzeak, eta aldi berean ez du zentzurik (guk horixe uste baitugu), gorpua gauerdia *ondorena* arte ez zutela ibaira jaurtiki suposatzeak”, berez aski esaldi ilogikoa, baina ez da ordea idatzirik dagoena bezain barregarria.

—*L’Etoileren* pasarte horren kontrako *argudioak ematea* balitz nire helburua —jarraitu zuen Dupinek—, banuke bere horretan uztea, eta kitto. Baina auzia ez da *L’Etoilerekin* eztabaidan jardutea, egiara iristea baizik. Delako esaldi horrek, adierazia dagoen moduan, esanahi bat besterik ez du, jadanik agertu dudana: baina gaiaren mamira jo behar dugu, hitzak baino harantzago, hitz horiek ideia bat baitzuten atzean, adierazten asmatu ez dutena. Kazetariak aditzera eman nahi zuen ezen, igande gaueko edo eguneko edozein unetan gertatuta ere hilketa, ez dela uste izatekoa hiltzaileak gauerdia baino lehen gorpua ibaira eramaten ausartuko zirenik. Eta hortxe dago, benetan, nik onartzen ez dudana suposizioa, alegia, halako lekutan eta halako modutan egin zela hilketa, eta gorpua

gero ibaira *garraiatu* behar izan zela. Izan ere, litekeena da hilketa ibaiaren ertzean gertatu izana, edo ibaian bertan; eta, era horretan, gorpua ezkutatzeko, uretara jaurtikitzea zen gauzarik logikoena eta egiten errazena, eguneko nahiz gaueko edozein unetan. Konturatuko zara noski nik ez dudala hori gertagarri ikusten, eta ez datorrela neure iritziarekin bat. Nire asmoak, honaino, ez du zerikusirik kasuan *gertatuekin*. *L'Etoileren iradokizun* horren tonuaren kontra gaztigatu nahi zintudan bakarrik, eta hasieratik erakutsi nolakoa den.

»Hortaz, muga egokia ipini ondoren berak asmatu dituen aurreiritziei, eta, aurkitu den gorpua Marierena bazen, oso denbora gutxi eman behar zuela uretan suposaturik, honela jarraitzen du kazetariak:

»"Esperientziak erakusten duenez, itotakoen gorpuak uretara jaurtitzen badira, edota pertsona bat bortxaz hil eta haren gorpua berehala uretara jaurtitzen bada, seitik hamar egunerako bitartea behar izaten du gorpuak usteltzen hasi eta, usteltze horren ondorioz, ur azalera igotzeko. Kanoikada bat tirata ere gorpu bat dagoen

lekuan, bost edo sei egunez urpean egon ondoren azaleratzen bada, berriz murgilduko da, bere horretan utziz gero”.

»Ideia horiek, aitortu gabe, Parisko egunkari guztiek onetsi dituzte, *Le Moniteur*ek salbu. Egunkari honek “itotako gorpuak” aipatzen dituen paragrafoaren parte hori bakarrik jartzen du auzitan, bost edo sei kasu aipatuz itotako pertsonen gorpuak *L’Etoile*ek aipatzen duen epea baino lehenago ur azalean aurkitu zirenak. Baina arrazoibide logikoaren kontra doa *Le Moniteur*en saio hori, *L’Etoiler*en argudioa osorik ezeztatzeko helburuaz, kasu partikularrak aipatzen dituenen. Bost kasuren orde, gorpuak bi edo hiru egunen buruan ur azalean aurkitu diren berrogeita hamar kasu aipatu izan balira ere, hala ere, berrogeita hamar kasu horiek, berez, *L’Etoiler*en arauaren salbuespen gisa baino ezingo lirateke har, araua bera gezurtatzen den unea arte. Araua onartzen bada (eta araua ez du ukatzen *Le Moniteur*ek, salbuespenak bakarrik azpimarratzen ditu), *L’Etoiler*en argudioak bere indar guztia gordetzen du; zeren argudio horren xedea ez baita gorpu batek hiru egun baino lehenago

azaleratzeko duen *probabilitatea* eztabaidatzea; eta probabilitate hori *L'Etoileren* ikuspuntuaren alde dago, *Le Moniteur*ek hain modu inozoan aipatu dituen kasuak kontrako arau bat osatzeko adinako kopurura iristen ez diren artean.

»Konturatuko zarenez, arauaren beraren kontrakoa izan beharko luke, ezer izatekotan, gai honi buruzko argudio orok; eta xede hori gogoan izanik, arauaren *funtsa* aztertu behar dugu. Giza gorputza, normalean, ez da izaten, ez Senako ura baino askoz arinagoa, ez askoz astunagoa; alegia, giza gorputzaren grabitate espezifikoa, ohiko egoeran, gorputz horrek kanporatzen duen ur bolumenarena adinakoa izaten da gutxi-asko. Pertsona gizen eta haragitsuen gorputzak, hezurak txikiak badira, eta emakumeenak oro har, arinagoak izaten dira pertsona argal eta hezur-luzeenak, eta gizonenak baino; eta, bestalde, ibaiko uraren grabitate espezifikoa itsasoaren gorabeheren eraginpekoa da. Baina, itsasaldiak alde batera utzirik, esan daiteke *oso gorpu gutxi* murgilduko dela, baita ur gezatan ere, *berez*. Pertsona bat, ia beti, ibaira erortzen bada, ur azalean geratuko da, baldin eta uraren

grabitate espezifikoa pertsona horrenaren parekoa gertatzen bada, hau da, gorputza osorik murgiltzen bada, ahalik eta gutxiena kanpoan utzita. Igerian ez dakienak, lehorrean dabilen ibiltariarena du posturarik hoberena, burua osorik atzera botata, eta uretan guztiz murgilduta, ahoa eta sudur-zuloak izan ezik. Modu horretan jarrita, konturatuko gara batere nekerik gabe eta mugitu beharrik gabe geratzen garela ur azalean. Ageriko gauza da orobat gorputzaren grabitatea, eta kanporatutako ur bolumenarena, oso estu orekatuak daudela, eta edozein huskeriak ekarriko lukeela bata besteari nagusitzea. Hala adibidez, beso bat uretatik ateratzea, bere euskarria galtzen duelarik, aski zama erantsia izaten da buru osoa murgil dadin; aldi berean, egur puska txikienaren ezusteko laguntzari esker, burua jaso eta ingurura begiratzeko gai izango gara. Baina igerian ez dakiena urpera ez joateko ahaleaginean hasten denean, besoak altxatzen ditu beti, eta burua bere ohiko posizio zutean edukitzen saiatuko da. Horren ondorioz, ahoa eta sudur-zuloak uretan murgilduko dira, eta, ur azalaren azpian ere arnasa hartzeko aha-

leginak egiten baitira, biriketan sartzen da ura. Urdailera ere ur asko iristen da, eta gorputz osoa astunagoa bihurtzen da, barrunbe horiek betetzen zuten airearen pisuaren eta orain betetzen duen isurkariaren arteko aldearen eraginez. Arau orokor gisa, nahikoa izaten da diferentzia hori gorputza uretan murgil dadin; baina hezur txiki eta gai koipetsu asko duten pertsonen kasuan hori ez da aski. Horrelakoak ur azalean geratzen dira, baita ito ondoren ere.

»Gorpua ibaiaren hondoan baldin badago, hantxe geratuko da, harik eta gorpu horren grabitate espezifikoak berak kanporatzen duen uraren bolumenarena baino txikiagoa bihurtzen den arte. Gorpua usteltzeak edo beste zerbaitek eragin lezake efektu hori. Usteltzearen ondorioz gasa sortzen da, gas horrek zelula ehunak eta barrunbe guztiak zabaltzen ditu, eta horrexek ematen dio gorpuari *buiatu* itxura hain ikaragarri hori. Dilatazioa hainbestetarikoa denean non gorpua bolumena handitzen baita, baina *masa* edo pisuaren beste horrenbesteko handitzerik gabe, grabitate espezifikoak kanporatutako urarena baino txikiagoa izaten da, eta, hortaz,

gorpua ur azalera igotzen da. Baina usteltzea gorabehera askoren mende dago eragile batzuek lasterragotu egiten dute eta besteek moteltzen: adibidez, sasoiko beroak edota hotzak, urak dituen edo ez dituen mineralek, uraren sakontasuna txiki ala handiak, ur geldia ala dabilena izateak, gorputzaren nolakotasunak, hil aurretik eritasunen bat izateak ala ez izateak. Hala bada, argi dago ezin esan genezakeela zehatz-mehatz usteltzearen ondorioz zein unetan azaleratuko den gorpu bat. Baldintza jakin batzuen pean, ordubetean gertatuko da; beste batzuetan, baliteke sekulan ez gertatzea. Badira kimika gaiak gorpua usteltzetik *betiko* gordeko dutenak; merkurio bikloruroa da horietako bat. Baina, usteltzeaz gainera, gerta daiteke, eta halaxe gertatzen da maiz, landare gaien hartzidura azetosoak urdailaren barruan gasa sorraraztea (edo beste barrunbeetan, bestelako arrazoiengatik), gorpua azaleraraziko duen dilatazioa sortzeko nahikoa dena. Kanoi baten tiroak eragindako efektua dardaraldi huts-hutsa da. Atxikita zegoen lohi edo lokatz bigunetik libratu eta gorpua ur azalera ateraraziko luke, baldin

eta bestelako faktoreen eraginez horretarako prest balego; edota gorpuak gaindi dezake zelula ehunen parte erdi ustelduen gogortasuna, eta era horretan barrunbeak errazago dilatutako dira gasaren eraginaren pean.

»Aurrean ditugularik orain gai honi buruzko datuak, *L'Etoileren* baiespenak frogatzeko erabil genitzake. “Esperientziak erakusten duenez”, hala dio egunkariak, “itotakoen gorpuak uretara jaurtikitzen badira, edota pertsona bat bortxaz hil eta haren gorpua berehala uretara jaurtitzen bada, seitik hamar egunerako bitartea behar izaten du gorpuak usteltzen hasi eta, usteltze horren ondorioz, ur azalera igotzeko. Kanoikada bat tirata ere gorpu bat dagoen lekuan, bost edo sei egunez urpean egon ondoren azaleratzen bada, berriz murgilduko da, bere horretan utziz gero”.

»Paragrafo hau, osorik, koherentzia eta sendotasun gabeko paper puska bat da orain guretzat. Gertaera guztiek ez dute erakusten “itotako gorpuek” sei egunetik hamarrerako bitartea *behar* izaten dutenik usteltzen hasi eta usteltzearen ondorioz ur azalera igotzeko. Zientziak

nahiz ezagutzen ditugun gertaerek, biek erakusten digute gorpuek azaleratzeko behar duten aldia ez dela beti bera, eta ezin duela izan. Arago, baldin eta gorpu bat kanoikada bat jo delako azaleratu bada, ez da “berriz murgilduko, bere horretan utziz gero”, harik eta usteltzea hainbesteraino zabaldu den non barruan pilatutako gasari ihes egiten uzten baitio. Baina “itotakoen gorpuek” eta “bortxaz hil eta berehala uretara jaurtikitzen direnak”, horien artean egiten den bereizketara erakarri nahi dut zure arreta. Bereizketa onartzen du kazetariak, baina sail berean ipintzen ditu denak. Esan dizut lehen ere, itotzeko zorian dagoen pertsona baten gorputza, gorputz horrek kanporatzen duen ur bolumena baino espezifikoki astunagoa bihurtzen da, eta ez litzateke inola ere urperatuko, baldin eta besoak azalaren gainetik jasotzen ahaleginduko ez balitz, eta orobat uraren azpian dagoenean arnasa hartzen saiatuko ez balitz, zeren arnasaldi horiek ura eramaten baitute biriketara, lehen airea zegoen lekura. Baina borrokaldi eta ahokada horiek ez dira gertatzen “bortxaz hil eta berehala uretara jaurtikitzen diren” horietan. Hala,

azken kasu horretan, *gorpua, arau orokor gisa, ez litzateke urperatuko*; eta, argi dago, hori *L'Etoilek* ez daki. Usteltzea asko zabaldu denean — haragiaren parte handi bat hezurretatik askatu denean—, orduan, hain zuzen ere, *baina ez ordu arte*, galduko genuke *gorpua* begien bistatik.

»Eta zer esango dugu beste argudio horri buruz, aurkitu den *gorpua* ez dela Marie Rogêtena, galdu eta handik hiru egunera *gorpua* ur azalean aurkitu zelako? Ito bazen, emakumea izanik, murgildu ere ez zen egingo beharbada; edo, murgilduz gero, hogeita lau orduren buruan ager zitekeen, edo lehenago. Baina inork ez du uste Marie ito egin zenik; eta, uretara jautikia izan baino lehen hila zelarik, une horretatik aurrera noiznahi aurki zitekeen.

»"Baina", dio *L'Etoilek*, "egoera lazgarri horretan, astearte gaua arte eduki izan balitz *gorpua* ibai ertzean, aurkituko zen han hiltzaileen aztarrenen bat". Hor, hasieran, ez da bate-re erraza argudiatzailearen asmoa jakiten. Aurrea hartu nahi dio bere teoriaren oztopo izan daitekeenari: hau da, *gorpua* bi egunez eduki zutela lehorrean, eta uretan murgilduta balego

baino *lasterrago* usteldu zela. Hau da, adierazi nahi du, hala balitz, asteazkenean atera *ahal izan zela* ur azalera, eta baldintza horietan *bakarrik* azaleratuko zela egun horretan. Hortaz, ibai ertzean ez zela eduki frogatu beharra du; zeren, hala balitz, “aurkituko zen han hiltzaileen aztarrenen bat”. Irribarre egingo duzu noski *sequitur* horrekin. Ezin asmatu duzu nola ekar dezakeen hiltzaileen *aztarrenak ugaltzea* gorpua ibai ertzean luzaroago egoteak. Nik ere ez.

»“Eta, areago, gauza nekeza dirudi”, jarraitzen du gure aldizkariak, “krimen honen tamainako gauza bat egiteko gai diren pertsona doilorek, uretan murgilaraziko zuen zamarik ipini gabe jaurtikitzea gorpua ibaira, zama eranstea oso erraza zutenean”. Hori bai arrazoibideen nahasketa barregarria! Inork ez du auzitan jartzzen, ezta *L’Etoile* berak ere, *aurkitutako gorpua* erail ez zutenik. Nabarmenegiak dira bortizkeriaren seinaleak. Gorpu hori ez zela Marierena frogatzea da gure argudiatzaileak duen helburu bakarra. *Marie* ez dutela hil frogatu nahi du, ez gorpu hori ez zutela hil. Hala ere, bigarren puntua baino ez du frogatzen ohar horrek. Zamarik

erantsi gabeko gorpu bat daukagu. Hiltzaileek, ibaira jaurtikitzean, ez zuten zamarik gabe utziko. Hortaz, ez zuten hiltzaileek jaurtiki. Hori da frogatu den guztia, ezer frogatu bada. Nortasunaren auzia ez da inola ere dudan jartzen, eta *L'Etoile*ek neke handiak ditu onartu berria duena ezeztatzeko. "Guztiz sinetsita gaude", dio, "aurkitu den gorpua eraildako emakume batena zela".

»Ez da hori gure argudiatzaileak, uste ez duela, bere buruaren kontrako argudioak ematen dituen aldi bakarra. Marieren desagerpenaren eta gorpuaren aurkikuntzaren arteko bitartea ahalik eta gehien laburtzeko asmo nabarmena du, esan dut lehen ere. Hala ere, ikusi dugu nola *azpimarratzen* duen amaren etxetik atera zenez geroztik ez zuela inork neska ikusi. "Frogarik ez dugu" dio, "Marie Rogêt igandeko bederatzia ondoren bizien munduan zegoela dioenik". Hobe zuen argudio hori, partziala denez gero, alde batera utzi, hori argi dago; izan ere, jakingo balitz baten batek ikusi zuela Marie, eman dezagun, astelehenean, edo astertean, asko murriztuko zen bitarte hori, eta, kazetaria-

ren beraren arrazoibidea aplikatuz, erruz gutxiagotuko ziren gorpua *grisette*arena izateko probabilitateak. Hala ere, entretenigarria da *L'Etoile*lek puntu hori nola azpimarratzen duen ikustea, bere oinarrizko argudioa sendotuko duelako uste osoaz.

»Azter ezazu orain berriz Beauvaisek gorpua nola identifikatu zuen kontatzen duen pasartea. Besoko *ileari* dagokionez, argi dago gezurrez jokatu duela *L'Etoile*lek. M. Beauvaisek, ez baita inozoa, ezin argudiatu zuen, gorpua identifikatzeko, *besoak ilea zuenik*. Ez dago *ilerik gabeko* besorik. Lekukoak esandakoaren interpretazio gaizto bat baino ez da *L'Etoileren* adierazmolde orokorra. Ilearen *berezitasunen batez* mintzatuko zen Beauvais. Kolore, ugaritasun, luzera edo banaketaren berezitasunen bat aipatuko zuen noski.

»"Oinak", dio egunkariak, "txikiak dira, eta halakoxeak dira ehunka oin. Galtzaria ez da inolako froga, oinetakoak ere ez, oinetakoak eta galtzariak sortetan saltzen baitira. Gauza berbera esan daiteke txanoko loreez ere. Puntu bat azpimarratzen du bereziki M. Beauvais-ek, gal-

tzarian aurkitu zen lokarria lekuz aldatuta zegoela, zankoa estutzearren. Horrek ez du ezer esan nahi; izan ere, emakume gehienek nahiago izaten dute galtzari berriak etxera eraman eta bertan egokitu beren zangoen neurrira, erosten dituzten dendan saiatzen hasi baino areago". Hemen nekez sinets daiteke argudiatzailea zintzo ari zenik. M. Beauvaisek, Marieren gorpuaren bilaketan, aurkitu izan balu neurritz eta itxuraz galdutako neskaren parekoa zen gorpu bat, orduan, arropak batere gogoan hartu gabe ere, bere bilaketak arrakasta izan zuela hasiko zen pentsatzen. Baldin eta, neurri eta formez gainera, aurkitu izan balu besoan Marierengan lehenetik ere ikusia zen ilearen berezitasunen bat, estuago lotuko zitzaion, arrazoiz, bere iritziari; eta, zenbat eta handiagoa izan ilearen berezitasuna edo ezohikoa, are seguruago egongo zen bere usteaz. Baldin eta, Marieren oinak txikiak izanik, gorpuarenak ere txikiak balira, gorpua Marierena zelako probabilitateak ez ziren proportzio aritmetikoan ugalduko, proportzio geometriko edo metatzailean ugalduko ziren. Erantsiezaiozu horri guztiari desagertu zen egunean

jantzirik zeramatzan zapatak, eta, zapata horiek ere sortetan saltzen badira ere, ziurtasunaren muga-mugaraino biderkatzen dituzu probabilitateak. Horra hor, berez nortasunaren froga ez zena, orain datuek berresten dutenez gero, frogarik ziurrena bihurtua. Hara hor, gero, galdutako neskak txanoan zeramatzan loreak, eta ez dugu besteren bila hasi beharrik. Lore *bat* izanda besteren bila hasten ez bagara, nola hasiko gara bi edo hiru, edo gehiago dugunean? Ondoren aurkitu den erakusgarria froga anitza da —ez froga bati *eransten* zaion beste froga bat—, aldiz, ehun edo mila aldiz *biderkatutakoa*. Azaltzen dira gero, zenduarengan, Mariek erabiltzen zituenak bezalako galtzariak, eta ia zentzurik ere ez du jarraitzeak. Baina galtzari horiek estutuak aurkitu dira, lokailu bat erantsita, Mariek berak etxetik alde egin baino lehenxeago estutzen zituen modu berean. Zorakeria edo hipokresia da orain duda egitea. Galtzariak txikitzea ohiko gauza dela-eta, *L'Etoilek* horretaz dioenak, ez du ezer erakusten, ez bada okerretik ez ateratzeko egunkariaren seta. Galtzariaren elastikotasunak berak erakusten du txikiagotze hori ez *dela*

ohiko gauza. Berez egokitzeke gauza denak gutxitan behar izaten du bestelako egokitzerik. Istripua izan behar zuen, hitzaren zentzurik her-tsienean, Marieren galtzariak estutu beharra izateak. Galtzariak berek finka zezaketen neskaren nortasuna. Baina kontua ez da aurkitu den gorpuan neska galduaren galtzariak agertzea, edo haren zapatak, edo haren txanoa, edo haren txanoko loreak, edo haren oinak, edo marka berezi bat besoan, edo haren neurria eta itxura oro har; kontua da horiek denak zeudela gorpuan, eta *denak batera*. *L'Etoile*ko zuzendariak hori guztia ikusi eta, *benetan*, dudaren bat izan zuela frogatzerik balego, ez zen beharrik izango, haren kasuan, *de lunatico inquirendo* batzorde bat eskatzeko. Oso trebea iruditu zaio legegizonen berriketak errepikatzea, haiek, beren aldetik, epaitegietako arau zurrinak errepikatu baino egiten ez dutenean. Hona iritsita, azpimarratu nahi nuke epaitegietan froga gisa onartzen ez den asko eta asko izaten dela adimenarentzat frogarik hoberena. Zeren legea, hastapen orokor-rak harturik gidari —hastapen onetsiak eta *liburuetan bilduak*—, kasu partikularren kariaz has-

tapen horietatik desbideratzearen kontrako izaten baita. Eta hastapenari estu lotu behar hori da, salbuespen nahasleei itzuri eginez, lor daitekeen egiaren parterik handienera iristeko modurik egokiena, edozein denbora bitarte luzetan. Praktika, *oro har*, arrazoizkoa da beraz; baina era berean da egia hutsegite partikular handien sorburu izaten dela.

»Beauvaisi buruz aditzera eman diren susmoei dagokienez, segituan baztertuko dituzu. Konturatuko zinen honez gero nolakoa den benetan gizon zintzo hau. *Kuxkuxeroa* da, fantasia asko eta buru gutxikoa. Eta era horretako pertsona batek berehala jokatuko du, egoera *benetan* aztoragarri batean, pertsona oso zorrotz edo borondate txarreko baten begietara susmagarri gertatzeko moduan. M. Beauvaisek (zure oharretan ageri denez) zenbait elkarrizketa egin zuen *L'Etoile*ko zuzendariarekin, eta hura gogaitzera ere iritsi zen gorpuari buruz bere iritzia behin eta berriz emanaz, alegia, zuzendariaren teoriengatik ere, gorpu hura, dudarik bateregabe, Marierena zela setatsu esanez. “Baiaesten du oraindik ere” dio egunkariak, “gorpua Marie-

rena dela, baina ezin du xehetasunik eman, lehen aipatu ditugunez gainera, gainerakook ere gauza bera sinets dezagun”. Alabaina, alde bate-ra utzita ere “gainerakooi gauza bera sinestaraz-teko” froga sendoagorik ez zegoela *inondik* ere ateratsetik, esan beharra dago, era honetako kasu batean, egon daitekeela bat gauza batez guztiz sinetsita, eta aldi berean beste bati hori bera sinestarazteko gai izan ez. Ez dago gauza lausoagorik pertsona baten nolakotasunari buruzko inpresioak baino. Gizon orok ezagutzen du bere auzoa, baina, hala ere, gutxitan izaten da ezagutza horren *zergatia* adierazteko gauza. *L’Etoileren* zuzendariak ez zuen zertan M. Beauvaisen uste arrazoigabearekin mindu.

»M. Beauvaisen inguruan sortzen diren susmo txarrak askoz errazago adosten dira nire *sudur-luze erromantikoaren* teoriarekin, errudun delako iradokizun horrekin baino. Behin interpre-tazio errukitsuena onartuz gero, ez dugu nekerik izango, ez ateko sarrailako arrosarena ulertzeko, ez arbeleko *Marie* hura, ez “gizonezko ahaideak apartatze” harena, ez zergatik ahalegindu zen “ahaideek ez zezaten gorpua ikusi”, ez zergatik

gaztigatu zion Madame B...ri “ezer ez esateko jendarmeari bera (Beauvais) itzultzen ez zen arte”, ezta ere, azkenik, erabaki sendo hori, alegia, “inork ez zuela ikerketan ezer egin behar berak ez bazen”. Dударик gabeko gauza iruditzen zait Beauvais Marieren senargaia zela, neska maitakerietan ibiltzen zitzaiola, eta Beauvais desiratzen zegoela nekaren konfiantza osoa eta harekiko harreman estua zuela pentsarazteko jendeari. Puntu honetaz ez dut besterik esango; eta, amaren eta gainerako ahaideen *apatia* hori dela-eta eskura ditugun frogak erabat ezeztan baitute *L’Etoilek* dioena —apatia hori ez baitator bat gorpua lurrin dendako neskarena zelako ustearekin—, *nortasunaren* auzia erabat finkatua balego bezala jardungo dugu hemendik aurrera.

—Eta zer deritzezu —galdetu nion—, *Le Commercielen* iritziei?

—Bada, funtsean, askoz arreta gehiago merezi dutela gai honi buruz esan diren beste gauza guztiek baino. Premisetatik atera diren dedukzioak logikoak eta zorrotzak dira; baina premisa horiek, bi puntutan behinik behin, beha-

keta okerretan oinarritzen dira. Marie bere amaren etxetik ez urruti harrapatu zuela gaizkile talderen batek aditzera eman nahi du *Le Commercialek*. “Ezinezko gauza da”, hala dio, “Marie bezalako emakume bat, ehunka lagunek ondo ezagutzen zutena, inork ikusi gabe hiru etxe multzotatik igaro izana”. Parisen aspalditik bizi den pertsona baten ideia da hori, hantxe baitu enplegua, eta, hirian mugitzen denean, bulego publikoen inguruan ibiltzen baita gehienbat. Badaki gutxitan joango dela ezagutua eta agurtua izan gabe bere bulegotik baino dozena bat etxe harantzago. Eta, jakinik zenbateraino ezagutzen dituen auzokoak, eta auzokoek bera, lurrin dendako neskarenarekin alderatzen du bere fama, ez du alde handirik aurkitzen, eta berehala iristen da ondorio jakin batera, alegia, neska hau, bere ibilaldietan, bera ezagutzen duten bezala ezagutuko duela jendeak. Halaxe izango zen, baldin eta neskaren ibilaldiak bereak *bezalakoak* balira, aldagabeak eta metodikoak, eta bereak bezala toki jakin batera mugatuak. Kazetaria bitarte erregularretan ibili ohi da, eremu mugatu batean, eta jende asko izaten da

erreparatzen diona, antzekoak baitira haren egitekoak eta bereak. Baina Mariaren ibiliak, hala pentsa daiteke, jomuga zehatzik gabeak izango ziren oro har. Eta kasu honetan, bere ohiko ibilbideetatik urruntzen zen bideren bat hartuko zuen Mariek seguraski. Hiri osoa gurutzatzen duten bi pertsonaren kasuan bakar-bakarrik gerta daiteke *Le Commercielen* ideiarekin atzean imajina dezakegun paralelotasun hori. Kasu horretan, ontzat ematen badugu parekoa dela ezagunen kopurua, parekoak izan daitezke pertsona kopuru bertsuarekin topo egiteko aukerak ere. Nire aldetik, ez bakarrik posible, aldiz, probablea ere badela esango nuke, edozein ordutan, bere etxearen eta bere izebaren arteko edozein bidetatik, berak ezagutzen zuen edo bera ezagutzen zuen pertsona bat bera ere topatu gabe ibil zitekeela Marie. Auzi hori behar bezala aztertzeke, ez dugu ahaztu behar Parisko pertsona famatuaren ezagunen eta Parisko biztanleria osoaren artean dagoen alde handia.

»*Le Commercielen* iradokizunaren balizko zuzentasunak ordea, asko galduko du kontuan hartzen bada neska kalera atera zen *ordua*.

“Kaleak jendez beterik zeudenean”, dio *Le Commercialek*, “atera zen etxetik... “. Halakorik ez zen ordea. Goizeko bederatzia ziren. Edozein astegunetako bederatzietan —*igandean izan ezik*—, hiriko kaleak, egia da, jendez gainezka egoten dira. Igande goizean, bederatzietan, etxe barruan dago jende gehiena, *elizarako prestatzen*. Pertsona behatzaile bat aise ohartuko da, igande batean, goizeko zortziak ingurutik hamarrak arte, hiriak duen itxura mortuaz. Hamarrak eta hamaikak bitartean kaleak leporaino egoten dira, ez ordea goizago.

»Beste puntu batean ere badu akatsen bat nik uste *Le Commercielen azterketaren* abiapuntuak. “Zoritxarreko neskaren azpiko gona baten zati bat”, hala dio, “bi oin luze eta oin bat zabal, erauzia zegoen eta neskaren kokotsaren azpian lotua, buruaren atzealdetik, garrasirik egin ez zezan seguraski. Musuzapirik ez zuten morroiek egina da hori”. Ideia horrek oinarri sendoak dituen ala ez, geroago aztertuko dugu; baina “musuzapirik ez zuten morroiek” esanez, klase apalenero gaizkilea adierazi nahi du kazetariak. Konturatuko zinen noski zeinen premiazko bihur-

tu zaien gaizkile guztiei, azken urteotan, sakelako musuzapia.

—Eta zer pentsatu behar dugu —galdetu nuen—, *Le Soleileko* artikuluz?

—Izugarrizko pena dela idazlea papagai jaio ez izana, zeren, hala izan balitz, bere arrazako papagai ospetsuena izango baitzen. Jadanik argitaratuta zeuden iritzien xehetasunak errepikatu besterik ez du egin, egunkari honetatik eta hartatik ardura handiz jaso ondoren. “Gauza haiek, argi dago”, dio, “azken hiru edo lau asteak zermatzaten han, eta *dударик ez dago* doilorkeria honen gertalekua aurkitu dela”. *Le Soleilek* hemen aipatzen dituen gertaerek, urrutitik ere ez dituzte gaiaren gainean ditudan dudak argitu. Baina gero aztertuko ditugu xeheago, gaiaren beste alderdi batekin duten loturaren ikuspuntutik.

»Beste puntu batzuez arduratu behar dugu orain. Konturatuko zinen noski zeinen arin egin den gorpuaren azterketa. Egia da nortasunaren auzia berehala finkatu zela, edo finkatu behar zela; baina beste puntu batzuk ere baziren egiaztatu beharrekoak. *Ezer falta al zuen*, edo-

zein gauza, gorpuak? Ba al zeraman zenduak bitxiren bat etxetik irten zenean? Hala bazen, aurkitu zutenean ba al zuen soinean baten bat? Horiek guztiak galdera garrantzitsuak dira, ikerketa egiterakoan kontuan hartu ez direnak; eta badira antzeko garrantzia duten beste gauza batzuk ere, arretarik batere eskaini ez zaienak. Geurok saiatu behar dugu galdera horiei erantzuten. St. Eustacheren kasua berriz aztertu behar da. Susmo txarrik ez dut St. Eustacheri buruz; baina joan gaitezen urratsez urrats. Dudarik utzi gabe ziurtatu behar dugu igandean egin zituen joan-etorriei buruzko aitopenen egia. Era horretako idatziak aise faltsu daitezke. Baina okerrekorik ez badugu aurkitzen, gure ikerketen eremutik kanpo utziko dugu St. Eustache. Suizidoak susmo txarrak areagotuko ditu baldin eta aitopenean idatziak faltsutu egin direla aurkitzen bada, baina bestela bada, alegia, egiaztatzen badira, kasu horretan suizidioa guztiz ulergarria gertatuko da, eta ez dugu geure analisiaren ildotik zertan desbideratu.

»Nik orain proposatzen dizudan azterbidean, baztertu egingo ditugu tragedia honen barneko

alderdiak, eta ingurukoetan jarriko dugu arreta. Ikerketa modu hauetan, ez da hutsegiterik txikiena izaten azterketa hurbilekoenera mugatzea, inguruko gorabeherak eta behin-behinekoak guztiz ahazturik. Epaiketetan usadio txar bat izaten da: garrantzitsua dirudienaren esparrura mugatzen dira frogak nahiz eztabaidak. Eskarmentuak ordea ondo erakutsi digu —benetako filosofiak beti erakusten duen bezala—, itxuraz hutsalak diren gauzetatik sortzen dela egiaren parte handi bat, handiena agian. Eta hastapen horren letratik ez ezik, hastapen horren espiritutik erabaki du zientzia modernoak *ezagutzen ez denari buruzko kalkuluak egitea*. Baina agian ez nauzu ondo ulertu. Giza jakintzaren historiak behin eta berriz erakutsi digu aurkikuntza gehienak eta baliagarrienak alboko eta ustekabeko gertaeretatik etorriak direla; eta hain da hori agerikoa, non azkenean beharrezko bihurtu baita, aurrerabidearen ikuspuntutik, lekua uztea, eta ez bakarrik leku zabala, aitzitik, lekurik zabalena, zori hutsaz, eta normalean espero denetik guztiz aparte, sortzen diren asmaketentzat. Filosofiaren ikuspuntutik ez da gaur egun egokia,

izango denaren ikusmoldera iristeko, izan denaren ganean oinarritzea. *Istripua* azpiegituraren parte gisa onartzen da. Kalkulugai bihurtu dugu aukera. Eskoletako *formulae* matematikoen mende jartzen dugu ikusi eta irudikatu gabea.

»Berriz ere esango dizut, halaxe gertatzen baita beti: alboko gertaeretatik etorri ohi da egiaren parterik *handiena*; eta horrekin loturik dagoen hastapenaren espirituarekin bat eginik, kasu honetan ere gertaeraren beraren lur hain zapaldu eta emankortasunik gabeko horretatik, gertaera inguratzen zuten gorabehereetara desbideratuko dut bilaketa. Zuk aitorpen idatzien balioa egiaztatzen duzun artean, nik egunkariak aztertuko ditut, zuk orain arte egin duzuna baino modu orokorragoan. Honaino, ikerketaren eremua baino ez dugu aztertu; baina harrigarria litzateke nik proposatzen dizudan moduko egunkarien miaketa zabal batek bilaketaren *norabidea* zehaztuko diguten puntu txiki batzuk ez eskaintzea.

Dupinen iradokizunei jarraituz, aitorpen idatzien azterketa xehe-xehea egin nuen. Aitorpenen balioaren egiaztatze erabatekoa izan zen

azterketaren emaitza, eta horren ondorioz egiaz-tatu zen St. Eustacheren errugabetasunarena ere. Bitartean, egunkarien behaketa nire iritziz xehe bezain xedegabeen ziharduen nire adiski-deak. Astearen bukaeran, pasarte hauek jarri zizkidan begien aurrean:

«Orain hiru urte eta erdi-edo, oraingoaren oso antzeko istiluak sortu zituen Marie Rogêt honen beronen desagerketak, Monsieur Le Blanc-en lurrin dendatik desagertu baitzen, Palais Royal-en. Nolanahi ere, astearen bukaera aldera, dendako bere ohiko lekuan agertu zen neska oster, berezkoa ez zuen zurbiltasun arin bat kenduta, beti bezalakoxea. Monsieur Le Blanc-ek eta neskaren amak esan zuten landal-dera joana zela, adiskide bati bisita egitera; eta berehalaxe estali zuten auzia. Gure ustez, orain-go desagertze hau aurrekoaren klase bereko bitxikeriaren bat da, eta, astebeteren buruan, edo hilabete baten buruan agian, geure artean izango dugu Marie berriz ere». (*Evening Paper*. Ekainak 23, astelehena).

«Atzo arratsaldeko egunkari batek Mademoi-selle Rogêt-en beste desagertze misterioitsu bat

aipatzen zuen. Gauza jakina da, Le Blanc-en den-
datik desagertu zen astean, neska itsas ofizial
gazte batekin ibili zela, zeina ondo ezaguna bai-
tzen bere nasaikeriagatik. Zorioneko eztabaida
batek, hala pentsa daiteke, etxera itzultzera bul-
tzatu bide zuen neska. Badugu gizon lizun
horren izena, Parisen baitago une honetan,
baina, aise ulertuko diren arrazoiengatik, ez
dugu hemen aipatuko». (*Le Mercurie*. Ekainak
24, asteartea).

«Herenegun izan daitekeen erasorik lazga-
rriena gertatu zen hiritik gertu. Gizon batek,
emaztea eta alaba ondoan zituela, ilunabar
aldean, sei gizon gazteren zerbitzuak ordaindu
zituen, Sena ibaiaren ertzetik gertu arraunean
baitzebiltzan, ibaia txalupaz gurutzatzearren.
Beste aldera iritsita, lehorreratu ziren hiru
bidaiariak, eta txaluparen bistatik urrundu zire-
nean, alaba ohartu zen bertan utzi zuela eguzki-
takoa. Haren bila joan zen, baina taldeak harra-
patu egin zuen, eraman zuten neska ibaira, esta-
li zioten ahoa, eta bortizkeriaz eraso zioten; gero
lehorrera eraman zuten berriz neska, gurasoekin
txalupara igo zen lekutik ez urruti. Gizon mada-

rikatu horiek ihes egin dute, baina polizia atzetik segika dute, eta laster harrapatuko ditu batzuk». (*Morning Paper*. Ekainak 25).

«Gutun pare bat jaso dugu, azken doilorke-riaren krimena Mennais-i leporatzen diotenak; baina legezko galdeketa batek jaun hori erabat errugabe aitortu baitu, eta gure albiste emaileen argudioek, sakonak baino areago, kartsutasunez beteak diruditenez gero, ez deritzogu egoki argudio horiek publiko egiteari». (*Morning Paper*. Ekainak 28).

«Zenbait gutun aski sinesgarri jaso dugu, itxuraz iturri desberdinetatik datozenak, eta Marie Rogêt zoritxarrekoa igandero-igandero hiria betetzen duten gaizkile banda horietako baten biktima izan dela segurtzat jotzen dutenak. Gure iritzia erabat da ideia horren aldekoa. Argudio horiek argitaratzen saiatuko gara ondo-ko egunotan». (*Evening Paper*. Ekainak 31, asteartea).

«Astelehenean, aduana zerbitzuetan dihar-duen gabarrazain batek, Sena ibaian behera hutsik zihoan txalupa bat ikusi zuen. Belak txalu-paren hondoan zeuden, eta gizonak atoean

garraiatu zuen gordetegiraino. Hurrengo egunean atera egin zuten handik, nahiz eta bertako langileek baimenik eman ez. Txaluparen lema ordea gabarra gordetegian dago». (*Le Diligence*. Ekainak 26, asteartea).

Egunkarietako pasarte horiek guztiak irakurri ondoren, gure kasuarekin zerikusirik ez zutela iruditu zitzaidan, eta, horrez gainera, ezin asmatu nuen nondik nora lotu zitezkeen esku artean genuen auziarekin. Dupinen azalpenen zain geratu nintzen.

—Ez dut orain lehenengo eta bigarren pasarteetaz *jarduteko* asmorik —esan zuen—. Poliziaren arduragabekeria erakutsi nahi nizulako kopia-tu ditut batez ere, zeren polizia, Prefektuak esandakotik ulertzen dudanez, ez baita batere arduratu aipatzen den itsas ofizial horri buruzko azterketarik egiteaz. Hala ere, ez du zentzurik Mariieren lehen desagerketaren eta bigarrenaren artean lotura *posiblerik* ez dagoela esateak. Eman dezagun aurreneko ihesaldian gazteek errieta egin zutela, eta neska, traizionaturik, etxera itzuli zela. Gauza gara orain bigarren *ihesaldi* bat (baldin eta berriz ere ihesaldi bat gertatu dela *jaki-*

ten badugu) traidorearen asmoen berriztatze baten gisara ulertzeko, bigarren pertsona baten proposamenen emaitza gisara baino areago; maitasun istorio berri baten hasiera modura ezik, garai bateko maiteminduen adiskidetze modura ikus genezake. Hamar aukera baten kontra dira Marierekin behin ihes egin zenak beste ihesaldi bat proposa zezan, inoiz ihesaldi proposamenak izan dituen neska bati beste pertsona batek antzekoak egin beharrean. Eta azpimarratu behar da aurreneko ihesaldi jakinaren eta bigarren ihesaldi ustezkoaren arteko denbora bitartea, itsas armadako gizonen itsasaldiena baino hilabete batzuk luzexeagoa dela. Itsasoratu beharrak eten ote zuen maitalearen lehen doilorkeria, eta itzuli orduko saiatu ote zen bete gabe zeuden, edo *berak* oraindik bete gabe zituen asmoak burutzen? Gauza horiez guztiez ezer ez dakigu.

»Esango duzu, nolana ere, bigarren kasuan ez zela aipatu dudan ihesa bezalakorik izan. Ez zen izan, ez, halakorik; baina esan al genezake ez zela asmo frustraturik izan? St. Eustache alde batera utzita, eta beharbada baita Beauvais ere,

ez dakigu Marieren senargaien berri, ez behintzat senargai ezagunen berri. Besteez ez da ezer aipatzen. Nor da ordea ezkutuko maite hori, ahaideek ezagutzen ez dutena (*ahaide gehienek behintzat*), baina Mariek igande goizean ikusten duena, eta hain duena fidagarria, non ez baitu dudarik egiten ilunabarreko itzalak jaisten diren arte Barrière du Roule-ko arboladi bakartietan harekin egoteko? Zein da ezkutuko maite hau, galdetzen dut, ahaide *gehienek* ezagutzen ez duten hori? Eta zer esan nahi du Madame Rogêtek Marie abiatu zen goizean egin zuen iragarpen bitxiak? “Beldur naiz Marie ez ote dudan berriz ikusiko”.

»Ezin imajinatu dugu Madame Rogêtek ihesaldiaren berri bazekienik, baina ezin al dugu suposatu neskak bazuela asmo hori? Etxetik alde egitean, bere izebari bisita egitera zihoala eman zuen aditzera, Rue des Drômes-era, eta beraren bila joan zedila iluntzean eskatu zion St. Eustacheri. Lehen begiratuan, nire iradokizunaren guztiz kontrakoa da datu hori; baina pentsa dezagun pixka bat. Marie lagunena batekin *elkartu zela*, harekin gurutzatu zuela ibaia, eta Barrière-

re du Roule-ra arratsaldeko hiruretan iritsi zela, hori guztia jakina da. Baina pertsona horrekin joatea onartu bazuen (*edozein asmorekin, amak jakinik ala ez*), etxetik abiatzerakoan hartuko zituen gogoan bere senargai St. Eustacheri sortuko zitzaizkion txundimena eta susmo txarrak, beraren bila Rue des Drômes-era esandako orduan joan, eta neska ez zela han izan jakitean, eta, areago, albiste estugarri horrekin ostatura itzuli eta neska etxetik kanpora noiztik zebilen entzutean. Mariek pentsatuko zuen horretan guztian. Aldez aurretik bururatuko zitzaion St. Eustacheren samina, bururatuko zitzaizkion etxeko guztien susmoak. Susmo horiei aurre egiteko ez zen noski etxera itzuliko; alabaina, susmoek ez zuten garrantzi handirik izango Marie-arentzat, ez *zuela* itzultzeko asmorik suposatzen badugu.

»Gogoeta hauek egiten irudika genezake: "Halako batekin elkartu behar dut ihes egiteko xedeaz, edo neuk baino ez dakizkidan bestelako xedeez. Plana aldaraziko didanik ezer ez du gertatu behar: izebari bisita egitera joango natzaio-la Rue des Drômes-era adieraziko dut, eta hare-

kin pasatuko dudala eguna; ilundu arte ez dadila nire bila etorri esango diot St. Eustacheri, eta, era horretan, ahalik eta denbora luzeena eman ahal izango dut etxetik kanpora batere susmo txarrik edo larritasunik sortu gabe, eta era horretan beste edonola baino denbora gehiago irabaziko dut. Iluntzean nire bila etor dadila eskatzen badiot St. Eustacheri, lehenago ez da etorriko; baina, nire bila etortzeko eskatu ere egiten ez badiot, denbora gutxiago izango dut iheserako, lehenago itzuliko naizela pentsatuko dute-eta, eta lehenago estutuko dira nire faltarekin. Baina itzultzeko asmoa banu, pertsona horrekin ibilaldi bat egitea beste asmorik izango ez banu, ez *nioke* eskatuko St. Eustacheri nire bila etortzerik; izan ere, bila etorrira, ziur jakingo luke iruzur egin niola; eta, hortaz, gezurraren ezjakin gertatuko litzateke, etxetik alde egitean nire asmoaren berri eman ez, ilundu aurretik itzuli, eta izebari bisita egitera joan naizela Rue des Drômese-ra esango banio. Baina, ez baitut itzultzeko asmorik —ez behintzat zenbait astez, edo zenbait gauza ezkutatu arte—, denbora irabazten besterik ez dut arduratu behar.

»Azpimarratu duzu, zeure oharretan, neska gaizkile talde baten biktima izan delako iritzia dela auzi triste honetan zabalduena, eta halaxe izan dela hasiera-hasieratik. Herriaren iritzia ordea, baldintza batzuetan, kontuan hartzekoa izaten da. Herri iritzia berez sortzen denean, guztiz bere kasa agertzen denean, *intuizioaren* pare ikusi beharko genuke, horixe baita gizabakoaren jeinuaren berezitasuna. Ehun kasutatik laurogeita hamarretan herriaren erabakiaren alde egingo nuke. Baina garrantzitsua da *suje-tio* arrasto nabarmenik ez izatea. Iritziak, huts-hutsik, *herriarena berarena* izan behar du; eta bereizketa hori, sarritan, oso nekeza izaten da antzematen, eta orobat eusten. Kasu honetan, *gaizkile talde* bati buruzko “iritzi publikoa”, hirugarren aldizkari pasartean xehetasunez kontatzen den alboko gertaera horrek ekarri du nik uste. Paris osoa dago aztoratua Mariaren gorpuaren aurkikuntzarekin, gaztea baita, ederra eta ezaguna. Bortizkeria seinaleak ageri dituela aurkitu da gorputza, eta ibaiko uretan. Baina orain jakin denez, neska hil bide zuten garai berean, edo garai bertsuan, zenduak pairatu

zuenaren antzeko eraso bat, ez hainbestearinokoa halere, eragin zion gaizkile talde batek beste emakume gazte bati. Harritzekoa al da herriaren iritzian izugarrikeria ezagun batek izugarrikeria ezezagun batean eragina izatea? Iritzi hori norabide baten zain zegoen, eta hara zeinen egoki eskaini duen norabide hori doilorkeria ezagunak! Marie ere ibaian aurkitu zuten; eta ibai horretan bertan gertatu zen aurreko eraso. Bi gertaeren arteko loturak hain dira nabarmenak, non benerantz harrigarria izango baitzen herria horretaz ez *konturatu izana*. Baina, lehen eraso, horrela gertatu zela badakiguna, ezer baldin bada, bigarrena, ia aldi berean jazo zena, modu berean gertatu ez *zelako* frogatzen da. Izan ere, miraria izango baitzen, gaizkile talde bat, leku jakin batean, okerreko izugarrikeria bat egiten ari zen une berean, haren antzeko beste talde bat, antzeko lekuan, hiri berean, egoera berean, bitarteko eta tresna berberekin, hain zuzen ere modu bereko kaltea egiten aritzea, justu-justu garai berean! Baina zer sinestarazten digu bada herriaren iritzian ustekabearen *gidatu* horrek, ez bada gertaeren parekotasun miresgarria?

»Aurrera egin baino lehen, pentsa dezagun nolakoa izan zitekeen hilketaren gertalekua, Barrière du Roule-ko arboladian. Arboladi hori, trinkoa izanik ere, errepide publikotik oso gertu dago. Barrualdean badira hiru edo lau harri handi, eserleku moduko bat osatzen dutenak, bere atzealde eta aulkitxoarekin. Goiko harriari azpiko gona zuri bat aurkitu zen; bigarrenean, zetazko zapi bat. Eguzkitako bat, eskularruak eta sakelako musuzapi bat ere agertu ziren. Musuzapiak izena zuen brodatua, *Marie Rogêt*. Soinekoaren puskak agertu ziren inguruko adarretan. Lurra zanpatua zegoen, sasiak hautsiak zeuden, eta nonahi ageri ziren borrokaldi gogor baten erakusgarriak.

»Egunkariak arboladiko aurkikuntzari harrera beroa egin bazioten ere, eta aho batez suposatu zen arren huraxe zela erasoaren gertalekua, onartu beharra dago badela arrazoirik duda egiteko. Sinets nezake hura izan zela gertalekua, baina halere duda egiteko bada arrazoi aski. *Le Commercialek* iradoki zuen moduan, Rue Pavée St. André-ko inguruan baldin bazegoen benetako gertalekua, krimenaren egileak, oraindik Parisen

zirela emanaz gero, izuak jota geratuko ziren, jende guztiaren arreta modu horretan bide zuzenera bideratzen zela ikusita; eta zenbait buru klasetan, arreta hori desbideratzearen, sortuko zen berehalaz zerbait egiteko premia. Hortaz, Barrière du Roule-ko arboladia lehendik ere susmagarria zelarik, segituan bururatuko zitzaien gaizkileei gauzak aurkitu ziren leku horretan uzteko ideia. Daturik ez dago aurkitu diren gauzek egun batzuk baino gehiago zeramatzatela arboladian frogatzen duenik, *Le Soleilek* hala suposatzen badu ere; aldiz, bigarren mailako datu asko dago, inoren arreta erakarri gabe, han ezin egon izan zirela adierazten duena, zoritxarreko igande hartatik mutilek aurkitu zituzten arratsalderaino doan hogeit hamar eguneko bitartean. “Euriaren eraginez hondatuak eta *lizundua* zeuden”, dio *Le Soleilek*, bere aurrekoen iritzia bertuz, “eta *lizunak* elkarri erantsiak. Belarra hazia zegoen haien inguruan eta gainean. Eguzkitakoren zeta gogorra zen, baina barrutik elkarri itsatsita zeuden izpiak. Goialdea tolestua zegoen, osorik *lizundua* eta usteldua ageri zen, eta hautsi egin zen zabaltzean”. Belarra “hazia haien

inguruan eta gainean” zegoela, argi dago bi mutikoen hitzetatik —hots, haien orotzapenetatik—, jakin zitekeela, haiexek jaso baitzituzten gauzak eta eraman baitzituzten etxera, hirugarren pertsona batek ikusi gabe. Belarra ordea, eguraldi bero hezea denean bereziki (eta horrelakoxea zen hilketaren garaian), aise haziko da bi edo hiru hatz egun batean. Lur belar-hazi berrian dagoen eguzkitako bat, aste bakar batean, begi bistatik erabat ezkutaturik utz dezake hazten ari den belarrak. Eta *Le Soleilek* hain setatsu azpimarratzen duen *lizun* hori dela-eta, hain setatsu non oraintxe errepikatu dizudan paragrafo labur horretan hiru bider baino gehiagotan aipatzen baita, ez al daki bada nolako den? Esan egin behar al zaio izadian diren onddo mota ugarietako bat dela, ezaugarri ohikoena hogeita lau ordutan haztea eta galtzea duena?

»Hala, begiratu bakar batean ikusten dugu gauza haiek arboladian “gutxienez azken hiru edo lau asteak” zeramatzatelako ideiareneuskarri hori, halako harrotasunez aipatu dena, guztiz gauza zentzugabea eta hutsala dela gertatuaren

froga gisa. Beste aldetik, nekez sinets daiteke gauza horiek aste batez baino luzeago geratu ahal zirenik delako arboladi horretan, igande batetik besterako bitartea baino luzeago behintzat. Parisko inguruak zerbait ezagutzen dituztenek ederki asko dakite zeinen zaila den leku bakartiak aurkitzea, ez bada aldirietatik oso urruti. Esploratu gabeko leku bat, eta baita gutxitan bisitatzen den leku bat ere, ez dago aurkitzerik Parisen inguruko baso edo arboladietan. Are gutxiago aurkituko du halakorik, barrenenean izadiaren maitale izanagatik ere, metropolis handi honetako hauts eta berotasunean lan egin behar duenak; har ezazu halako pertsona bat, eta ahalegin dadila, asteburuetan nahi baduzu, bere bakardade egarria inguru-inguruan ditugun edertasun naturaleko lekuetan asetzen. Bigarren urratsa egiten duenerako, gizatxarren batek deuseztuko dio sortzen hasia zen xarma, edo parrandan dabilen talderen batek. Zuhaitz hosto-trinkoenen artean bilatuko du bakartasuna, baina alferrik izango da dena. Horrelakoxe lekuak izaten dira jendilaje gehiena ibilitzen den bazterrak; hantxe daude tenplorik lohituenak.

Bihotza guztiz minduta, ibiltariak berriz ere Paris kutsatura ihes egingo du, eta hiria ez zaio hain gorrotagarria gertatuko, bere zikinean ez baita hain zentzugabea. Baina hain hartuak egoten badira astegunetan hiri baten inguruak, zer ez ote da gertatuko igandean! Egun horrexetan bereziki, egitekoen premietatik libre, edo krimenerako aukerez gabeturik, hiriko mugen bila abiatzen da hiriko gaizkilea, ez landaldearen maitasunagatik, barrenean meziprezatu egiten baitu, aldiz, gizarteak ipintzen dizkion muga eta konbentzioetatik ihes egiteko. Ez ditu haize freskoa eta zuhaitz berdeak desiratzen, landaldeko *nasaitasun* erabatekoa desira du. Han, bide ertzeko ostatuan, edo basoetako zuhaitzen atzean, bere adiskideek izan ezik inork ez baitu ikusten, libre da barre-algara faltsuen gehiegikeria eroetan, askatasunaren eta edariaren emaitza bateratuan aritzeko. Behatzaile objektiboari agerikoa gertatzen zaiona baino gehiagorik ez dut esango, errepikatzen dizudanean gauza horiek luzaroan, igande batetik bestera, aurkitu gabe geratu izana, non eta Paris ondoko arbola-

di batean, hori, gutxienera, gauza miragarri baten gisara ikusi behar dela.

»Baina gure arreta erasoaren benetako gertalekutik desbideratzeko ipini zirela gauza horiek arboladian pentsarazten duten arrazoiak ere badira. Aurrena, kontura zaitetz *zein egunetan* aurkitu ziren gauzak. Konpara ezazu egun horren data neronek egunkarietatik jaso dudan bostagarren artikulua datarekin. Konturatuko zara presakako gutun hura egunkarira iritsi eta berehala egin zela aurkikuntza. Izan ere, gutun horiek, era askotakoak eta itxuraz iturri desberdinetatik iritsiak izan arren, puntu bera seinalatzeko zuten, hots, *gaizkile talde* bat zela erasoaren egilea pentsarazi nahi zioten jendeari, eta Barrière du Roule-ren ingurua gertalekua. Hori dela-eta, gogoan hartu beharrekoa ez da, gutun horien ondorioz —edota gutunek jendeari pentsarazi nahi ziotenaren ondorioz—, aurkitu zituztela mutiko horiek arropak-eta; aldiz, gogoan hartu behar den gauza da arboladian ez zeudelako ez zituztela *lehenago* aurkitu. Hortaz, gutun horiek idatzi zituztenek berek utzi zituztela han

pentsatu behar dugu, albistearen egun berean edo zerbait lehenxeago.

»Arboladia berezia da, oso arboladi berezia zinez. Ohi baino askoz ere sarriagoa da. Itxitura berez hesitu horren barruan hiru harri daude, oso bereziak, *atzealdea eta aulkitxo zituen eserleku bat osatzen dutenak*. Eta arboladi hori, antze naturalean hain aberatsa, Madame Deluc-en etxearen ondoan dago, handik metro gutxira, eta haren umeez sasiaren artean ibiltzeko ohitura dute, harrautsi-belarraren azalaren bila. Apustu zoroa izango al litzateke —mila baten kontra—, ezetz *egun bat ere* pasa umeezako bat areto itzaltsu horretan sartu, eta bere tronua naturalean eserita egoten ez dena? Horrelako apustu batez duda egiten duena, edo ez da sekulan haurra izan, edo ahaztu zaio nolakoak diren haurrak. Berriz esango dizut: oso nekez uler daiteke nola egon zitezkeen gauza horiek arboladian egun pare batez baino gehiago inork ere aurkitu gabe; eta horregatik, bada aski oinarririk, *Le Soleilen* ezjakintasun dogmatikoa gorabehera, aurkitu ziren lekuan jarri zituztela pentsatzeko, eta nahiko berandu jarri zituztela gainera.

»Baina badira beste arrazoi batzuk, eta orain arte aipatu ditudanak baino sendoagoak, utzi egin zituztela pentsatzeko. Kontura zaitez modu guztiz artifizialean zeudela gauzak ipinita. *Goiko* harrian azpiko gona txiki bat zegoen, *bigarren*ean zetazko zapi bat; haien inguruan sakabanatuak, eguzkitako bat, eskularruak, eta sakelako musuzapi bat, *Marie Rogêt* izena brodatua zuena. Horrelaxe antolatuko lituzke hain zuzen ere gauzak *naturaltasunez* jarri nahiko lituzkeen pertsona ez oso zorrotz batek. Baina antolamendu hori *ez da inola ere naturala*. Nik gauza *guztiak* lurrean sakabanatuta eta zanpatuta aurkitzea esperoko nuke. Zuhaitzen arteko barrunbe hertsu horietan, nekez geratuko ziren azpiko gona eta zapia harrien gainean tente, zenbait lagun borrokan eta tiraka zebiltzala. “Lurra zanpatua zegoen, sasiak hautsiak zeuden, eta nonahi ageri ziren borrokaldi gogor baten erakusgarriak”; eta horra hor azpiko gona eta zapia, apaletan ipinita baleude bezalaxe. “Sasiek urratutako soinekoaren puskak hiru bat hatz zabal eta sei hatz luze ziren. Puska bat soinekoaren azpildurarena zen, eta pasaratua zegoen. *Erauzi-*

tako puskak ematen zuten". Hor, uste ez duela, esaldi ikaragarri susmagarria erabili du *Le Soleilek*. Puskak, deskribatu diren moduan, "puska erauziak" dirudite, egia da; berariaz eta eskuaz erauziak ordea. Gauza guztiz ezohikoa da, *arantza* baten eraginez, edozein jantzitan, hau erauzi den modu berean oihal puska bat "erauzia" gertatzea. Oihal hauen egikera dela-eta, ehunean trabatutako arantza edo iltze batek karratuak osatuz urratuko ditu: luzetarako bi urraduretan banatuko ditu, elkarri buruz angelu zuzenak osatzen dituztela, eta erpin batean elkartuko dira bi urradurak arantza sartu den lekuan; nekez pentsa daiteke ordea oihal puska hori "erauzia" dagoenik. Nik ez dut horrelakorik sekulan ikusi, ezta zuk ere. Halako oihal batetik puska bat erauzteko, bi indar behar dira, norabide desberdinetatik tiraka, ia kasu guztietan. Oihalak bi ertz balitu —hala, adibidez, sakelako musuzapi bat balitz—, eta hartatik zerrenda bat atera nahi izanez gero, orduan bakarrik izango litzakete aski indar bakarra. Baina kasu honetan soineko bat daukagu, ertz bat baino ez duena. Soinekoaren barrenaldetik arantzak erabiliz

zerrenda bat ateratzeko, barrenaldeak ez baitu ertzik, mirari bat beharko litzateke, arantza bakar batek ezingo bailuke horrelakorik egin. Aldiz, ertz bakarra dagoenean ere, bi arantza behar dira, jardungo dutenak, batak, bi norabide desberdinetan, eta besteak batean. Eta hori, azpildurarik gabeko ertza baldin bada. Azpildura izanez gero, zentzurik ez du ia honek guztiak. Ikusten duzu beraz eragozpen asko eta handiak direla “arantza” hutsak erabiliz oihal puskak “erauziak” gerta daitezzen; eta, hala ere, ez bakarrik puska bat, asko baizik, erauzi zirela modu horretan sinetsi behar omen dugu. “Puska bat”, gainera, *“soinekoaren azpildurarena zen”*; *“beste puska gonaren zatia zen, ez azpildurarena”*, alegia, guztiz erauzia omen zegoen arantzen eraginez, nondik eta soinekoaren barnealde ertz gabetik! Horrelakoak ez sinestea, nik uste, erraz barkatuko digute; hala ere, denak batera hartuta, beharbada, ez dira hain zentzugabeak gertatzen, konparatzen badira gorpua desagerarazteko ardura izan zuten hiltzaile batzuek gauzak arboladi horretan utzi izanaren gertaera harrigarriarekin. Baina agian ez nauzu behar

bezala ulertu, arboladi hori erasoaren gertalekua izan zela *ukatzeko* asmoa dudala iruditzen bazai-zu. Arboladian izan zitekeen okerren bat, edo istripu bat beharbada Madame Deluc-enean. Baina hori, izan, ez da hain puntu garrantzitsua. Gure egitekoa ez da gertalekua zein izan zen asmatzea, aldiz, hilketaren egileak aurkitu behar ditugu. Nire argudioen helburua zen, aurrena, eta argudiatzeko moduaren xehetasunak eta zehaztasuna gorabehera, *Le Soleilen* baiespen sendo eta ausarten zentzurik eza agerian jar-tzea, eta bigarren, eta ororen gainera, bide naturalenetik bultzatu nahi zintudan puntu honi buruz berriz ere hausnarketa egitera, alegia, hil-keta hau *talde* baten lana izan ote den ala ez pentsatzera.

»Auzi hau laburtzeko, aipatu besterik ez ditugu egingo galdeketan mintzatu zen auzitegiko sendagilearen xehetasun higuingarriak. Gauza bakar bat esango dizut: Parisko anatomista izen-dun guztiek, zehaztasun eta oinarri sendoen falta direla-eta, barregarri utzi dituzte, gaizkileen kopuruari dagokionez, gai honi buruz argitaratu diren *dedukzioak*. Kontua ez da gauzak *ezin izan*

zirela gertatu deduzitu den bezala, baizik eta oinarririk ez zegoela dedukzio hori egiteko. Eta bestelako dedukzio bat egiteko, ez al dago oinarririk?

»Gogoeta egin dezagun orain “borrokaldia-
ren erakusgarri” horiez, eta pentsa dezagun zer iradokitzen duten. Talde bat. Baina ez al dute areago iradokitzen talde baten eza? Ze *borroka* klase izan zitekeen —halako borroka, hain gogorra eta luzea, non nonahi utzi baitzituen “erakusgarriak”—, neska ahul eta babesgabe baten eta balizko *gaizkile talde* horren artean? Beso indartsu batzuen estutu isila, eta hortxe bukatuko zen dena. Biktimak guztiz pasiboa izan behar zuen, erabat haien borondatearen mendeko. Hori dela-eta, gogoan izan *pertsona bakar batek baino gehiagok* egindako eraso baten gertalekua izatearen kontra erabiltzen baldin badira, kasu horretan bakarrik direla erabilgarriak arboladia krimenaren gertalekua izatearen kontrako argudio gehienak. Erasotzaile *bakarra* bazen pentsa genezake, eta kasu horretan besterik ez, hain izan zela borrokaldi gogorra eta luzea, non age-

riko “erakusgarri” horiek utzi ahal izan baitzitu-
tuen.

»Hori dela-eta, aipatu dut jada nolako susmo-
ak sortzen dituen pentsatzeak gauzak utzi egin
zirela aurkitu ziren arboladian. Ia ezinezko gauza
dirudi erruaren erakusgarri horiek aurkitu ziren
lekuan oharkabean utzi izana. Izan zen gorpua
lekuz aldatzeko aski adore (hala ematen du);
baina gero, gorpua bera baino nabarmenagoa
den froga bat (gorpuaren ezaugarriak berehala
ezabatuko zituen-eta hondamenak) utzi da era-
soaren tokian; musuzapia dut gogoan, zendu-
aren *izena* idatzia daramana. Istripuz gertatu
bazen, ez zen izan *talde bati* gertatua. Pertsona
bakar baten istripua izan zela baino ezin dugu
pentsatu. Ikus dezagun. Pertsona batek egin du
hilketa. *Bakarrik* dago zenduaren fantasmarekin.
Ikaratuta dauka bere aurrean, lurrean, mugim-
endurik batere gabe ikusten duen horrek. Joan
zaio grinaren indarra, eta hilek ernatu ohi duten
ikara horretarako badu lekurik bihotzean. Ez du
taldeak berez sorrarazten duen konfiantzarik
batere. *Bakarrik* dago hildarekin. Dardarka ari da,
eta ikarak akabatzen dago. Hala ere, gorpuare-

kin zerbait egin beharra dauka. Ibaira darama, baina atzean utzi ditu erruaren gainerako erakusgarriak; zeren zaila baita, ezinezkoa ez esateagatik, pisu guztia aldi bakarrean garraiatzea, eta oso erraza du atzean utzi dituen gauzen bila itzultzea. Baina barruan duen ikara hori bikoiztu egin zaio uretarako bidaia neketsuan. Bizitzaren soinua ditu bidelagun. Dozena bat bider entzun du edo irudikatu du behatzaile baten urratsa. Hiriko argiek berek ikaratzen dute. Hala ere, agonia mingarrizko urrats luze eta sarriak egin ondoren, heldu da ibaiaren ertzera, eta egin dio egin beharrekoa bere zama beldurgarriari, txaluparen bat erabiliz beharbada. Baina gero, ze altxor klase du bada munduak harentzat gordea, nolako mendekuz mehatxatzen du hiltzaile bakartia bide neketsu eta arriskutsu horretatik itzularazteko, nora eta arboladira eta hango oroitzapen hilgarrietara? *Ez da* itzultzen, ondorioak ez baitzaizkio jada axola. Nahita ere *ezingo litzateke* itzuli. Ihesa da gogoan darabilen pentsamendu bakarra. Bizkarra ematen die betiko zuhaitz beldurgarri horiei, eta deabrua atzetik segika balu bezala alde egiten du handik *betiko*.

»Baina taldea izan balitz, nola? Kopuruak segurtasuna emango zien elkarri, baldin gizatxar amorratuak segurtasunaren beharrik badu; eta gizatxar amorratuez osatuak izaten dira delako *gaizkile talde* horiek. Kopuruak, berriz diot, gizon bakarra geldiaraziko lukeen beldur izugarri eta arrazoigabe hori ezabatuko luke. Eman dezagun lagun batek, bi lagunek, hiruk, egin dezaketela hutsegiterik, baina hutsegite hori ez zen gertatu-ko baldin laugarren bat izan balitz. Ez zuten atzean ezer ahaztuko; zeren, kopuruari esker, gauza *guztiak* batera eramateko gai izango baitziren. Ez zen *itzuli* beharrik izango.

»Gogora ezazu orain nola aurkitu zen soinekoan gonaldeko zerrenda bat erauzia: “Zerrenda bat, oin bat zabal, erauzia ageri zen beheko azpilduratik gerri alderaino, baina guztiz puskatu gabe. Gerriaren inguruan ageri zen, hiru bider tolestua, eta atzealdean korapilo moduko batez lotua”. Helburu jakin batez egin zen hori, hau da, *helduleku bat* osatu eta gorpua arrastaka eramateko. Baina *talde* bati bururatuko ote zitzaion horrelako gauza bat egitea? Hiru edo lau laguni, gorputz-adarrek, ez bakarrik aski helduleku,

aitzitik, heldulekurik hoberena eskainiko zieten. Ideia hori pertsona bakar batena da; eta horrek beste puntu honetara garamatza, alegia, “leku haren eta ibaiaren arteko bidean, hesiak altxata zeuden, eta lurrian berriz, zama astunen bat arrastaka eramana izan zelako aztarrenak ageri ziren”. Baina gizon bat baino gehiago izanik, arduratuko ote ziren hesi bat altxatzea den bezalako alferreko lana egiteaz, zertarako eta istant batean edozein hesiren *gainetik jaso* zezaketen gorpu bat pasarazteko? Gizon *talde* batek horrela *eramango* al zuen bada gorpu bat, arrastatzearen seinale nabarmenak utziz?

»Eta *Le Commercielen* ohar bat aipatu behar dugu hemen; lehenago nolabait ere komentatu dudana ohar bat. “Zoritxarreko neskaren azpiko gona baten zati bat”, hala dio, “erauzia zegoen eta neskaren kokotzaren azpian lotua, buruaren atzealdetik, garrasirik egin ez zezan seguraski. Musuzapirik ez zuten morroiek egina da hori”.

»Esan dut lehenago ere gaizkileak ez duela sekulan sakelako musuzapirik *falta* izaten. Baina ez da hori justu-justu orain azpimarratu nahi dizudan gauza. Oihal zati hori erabili zen, *Le*

Commercielek iradokitako helburuarekin, ez gaizkileak musuzapia falta zuelako, arboladian aurkitu den musuzapiak frogatzen duen bezala; eta haren xedea ez zela “garrasirik egin ez zezan” argi uzten du, orobat, oihal zatia erabili izanak, helburu horretarako askoz egokiagoa zen musuzapiaren ordeztu. Baina delako oihal zati horretaz hala diote lekukotasunek: “Lepoaren inguruan lotuta aurkitu zuten, ez estu, baina bai korapilo sendo batez segurtatua”. Ez dira oso hitz zehatzak, baina, hala ere, ez dira *Le Commercielek* argitaratu dituenak bezalakoak. Zerrenda hori zortzi hatz zabal zen, eta, hortaz, muselinazkoa izanik ere, tolestua edo luzetara bihurritua, banda sendo bat osatuko zuen. Eta horrela, bihurrituta, aurkitu zuten. Hona nire dedukzioa. Gorpua urruti samarretik (arboladitik nahiz beste edonondik) besoetan eramanez, haren gerrialdean *lotutako* zerrenda baten laguntzaz, horra non konturatzen den hiltzaile bakartia, era horretan eramanda, bere indarretarako astunegia gertatzen zaiola gorpua. Hortaz, zama arrastaka eramatea erabaki du; aurkitutakoak ere arrastaka eramanez zutela frogatzen du.

Asmo hori gogoan hartuta, beharrezko gauza zuen gorputz-adar bati soka baten moduko zer-bait lotzea. Lepoaren ingurua zen horretarako lekurik egokiena, buruak eragotziko lioke-eta irristatu eta ateratzea. Eta orduan gogoratuko zitzaion hiltzaileari, dudarik gabe, gerrialdeko zerrenda. Huraxe erabiliko zuen, baldin eta gorpuaren inguruan bihurritua eta *korapilo* batez segurtatua egon ez balitz, eta, gainera, hura ez zegoen soinekotik “erauzia”. Errazagoa zen azpiko gonatik beste zerrenda bat ateratzea. Urratu zuen, estutu zion gorpuari lepoaren inguruan, eta halaxe eraman zuen biktima ibaiaren ertzeraino *arrastaka*. “Zerrenda” hori, neke handiz eta denbora galduz bakarrik eskura zitekeena, eta bere xedea erdizka baino betetzen ez zuena gainera, zerrenda hori erabili izanak, frogatzen du musuzapia jadanik eskuraezina zen une batean sortu ziren gorabeherak ekarri zutela haren premia; alegia, lehen ere pentsatu dugun bezala, arboladitik alde eginda gero (baldin arboladia bazen) sortu zen premia hori, arbola-diaren eta ibaiaren arteko bidean.

»Baina, esango didazu, hilketa izan zen garai bertsuan, gizon *talde bat* ibili zela arboladitik gertu azpimarratu zuen Madame Deluc-ek bere aitorenpenetan (!). Hori onartzen dizut. Duda egingen dut ordea *dozena bat talde* ere ez ote zen ibiliko, Madame Deluc-ek deskribatu duenaren modukoak, Barrière du Roulen bertan *edo inguruan* tragedia izan zen garai berean. Baina bigin hori, Madame Deluc-en aitoren nolabait ere beranduko eta oso susmagarriak gorabehera, bigin hori sorrarazi duen talde *bakarra* —dama zintzo eta kezkatu honek besterik ez baitu aipatzen—, haren pastelak jan, haren brandya edan eta ordaintzeko nekea hartu gabe alde egin zuen huraxe da. *Et hinc illae irae?*

»Baina zein da zehatz-mehatz Madame Deluc-en aitorenpena?: “Gizatxar talde bat azaldu zen, laineraz bete; ordaindu gabe jan eta edan ondoren, gizonaren eta nesken bide beretik alde egin omen zuten, *ilunabarrean* itzuli ziren ostatura, eta atzera gurutzatu zuten ibaia, ikaragarrizko presaz nonbait”.

»“Ikaragarrizko presa” hori, seguraski, *are ikaragarriagoa* iruditu zitzaion Madame Deluc-i,

behin eta berriz aipatzen baitzituen, luze eta mindurik, bere pastel eta edari bortxatuak; izan ere, esperoko zuen agian oraindik ere pastel eta edari haien nolabaiteko ordaina. Zergatik, bestela, *ilunabarra* izanik, azpimarratu behar zuen hainbeste haien *presa*? Ez da noski harritzekoa izango jendilaje hori ere etxeratzerakoan *presaka* ibiltzea, ibai zabal bat txalupa txikietan gurutatu beharra dagoenean, ekaitzak mehatxatzen duenean eta gaua *hurbil* denean.

»*Hurbil* denean esan dut; ez baitzen *oraindik* gaua. *Ilunabarra* baino ez zen “gizatxar” haien presa gaiztoak Madame Deluc-en begi zuhurrak iraindu zituztenean. Baina esan digutenez, arratsalde hartan bertan, Madame Deluc-ek, eta orobat haren seme zaharrenak, “emakume baten garrasiak entzun zituzten ostatutik bertan”. Eta ze hitz erabiltzen du Madame Deluc-ek garrasi horiek entzun ziren arratsaren garaia izendatzeko? “*Ilundu eta handik gutxira*”, dio. Baina “*ilundu eta handik gutxira*”, gutxienez, *ilun* da; eta “*Ilunabarra-edo*” era berean da oraindik egun argia. Hortaz, aski garbi dago gaizkile taldea Barrière du Rouletik alde egina zela Madame

Deluc-ek garrasiak entzun (?) baino lehen. Eta nahiz eta, aitorpenaren kontakizun guzti-guztietan, modu berezian baina beti modu berean erabiltzen diren adierazmolde horiek, neronek zurekin hizketan erabili ditudan bezalaxe, desadostasun horri buruzko hitzik ez da atera, oraingoz, egunkarietan, ezta poliziako funtzionarioen idatzietan ere.

»Argudio bat besterik ez diet erantsiko orain artekoei, *taldea* zelako ideiarekin kontra; baina oraingo hau, nire ikusmoldean behintzat, erabakigarria da. Sari eskuzabala eskaini delarik, eta barkamen osoa erabateko frogaren bat aurkezten bada, ezin pentsatu da, inondik inora, *gizatar talde bateko* kideren batek, edo edozein taldetako kide batek, ez zituela bere lagunak aspaldian traizionatuko. Jendilaje klase hori, sariaren desiraz baino areago, eta baita ihes egiteko nahiaz baino areago, *traizioaren beldur izaten da*. Lehenbailehen egingo du berak traizioa, *besteek berari egin ez diezaioten*. Sekretua ez zabaltzea, horixe da, hain zuzen ere, sekretua delako frogarik hoberena. Gertaera ilun honen

izugarrikeriak gizaki bizi batek edo bik bakarrik ezagutzen dituzte, eta Jainkoak.

»Labur ditzagun orain gure analisi luzearen fruitu eskas baina argiak. Iritsi gara ondorio ziur batzuetara: edota zoritxarreko istripuren bat gertatu zen Madame Deluc-en sabaiepean, edota maitale batek hil zuen neska Barrière du Rouleko arboladian, edota zenduaren lagun min eta ezkutukoren batek. Pertsona horrek larruazal iluna du. Larruazal horrek, gerriko zerrendaren lotura moduak eta txanoko xingola lotzen zuen marinel korapiloak, itsasgizon bat seinalatzen dute. Gizon hori zenduarekin lotzen zuen harremanak, Marie neska alaia baitzen baina ez gaiztoa, marinel arruntaren mailatik gainekoa zela adierazten du. Ideia horren berorren aldekoak dira egunkarietara iritsi diren gutunak, ongi idatzitziak baitira. Lehen ihesaldiak, *Le Mercurie* k aipatzen zuenak, zorigaiztoko neska etxetik alde egitera bultzatu zuen “itsas ofizial” harekin lotzen du bigarren desagerpeneko itsasgizon hau.

Eta horra non datorkigun, unerik egokienean, gizon azal-ilun horren aspaldiko falta. Barka,

baina etenaldi bat egingo dut hemen gizon horren larruaren kolorea dela-eta; ez zen belztasun arrunta, Valencek eta Madame Deluc-ek, biek, ezaugarri hori bakarrik azpimarratu dute-eta. Baina zergatik ez da agertzen gizon hori? Gaizkile taldeak hil ote du? Hala bada, zergatik agertu dira *neska hilaren aztarrenak* baina ez gizonarenak? Bi erasoaldien gertalekuak berbera behar zuen izan. Eta non dago gizonaren gorpua? Modu berean egin bide zituzten hiltzaileek bi goputzekikoak. Baina pentsa daiteke gizon hori bizirik dagoela, eta ez duela bere burua eza-gutarazi nahi, hilketaren errua egotziko ote dioten beldurrez. Orobat pentsa daiteke ideia hori darabilela buruan —hain berandu—, Marierekin ikusi zutela agertu baita aitorpenetan; baina horrek ez zuen eraginik batere gertaeren unean. Errurik gabeko pertsona baten lehen burutapena erasoaldiaren berri ematea izango zen, eta gaizkileen bilaketan lagundu. Izan ere, horixe kome-ni zitzaion. Ikusi egin zuten neskarekin. Harekin gurutzatu zuen itsasontziz ibaia. Ergel batentzat ere, hiltzaileak salatzea izango litzateke susmo txarretatik libratzeko modurik seguruena eta

bakarra. Ezin imajina genezake, zoritzarreko igande gau hartan, errugabe eta aldi berean doi-lorkeriaren ezjakin. Hala ere, hori baino ezin dugu pentsatu, bizirik bazegoen, hiltzaileak nolaz ez zituen salatu ulertu nahi badugu.

Eta zer bitarteko dugu guk egiara iristeko? Aurrera egin ahala, bitarteko horiek ugaltu eta zehaztu egiten direla ikusiko dugu. Azter dezagun xehe-xehe, bukaeraraino, lehen ihesaren auzia. Jakin dezagun osorik “ofizial” horren istorioa, zertan dabilen orain, eta zertan zebilen hiltzetaren unean. Aldera ditzagun arretaz egunkarira bidali diren gutun guztiak, errua *gaizkile talde bati* egozteko xedea zutenak. Hori egin ondoren, aldera ditzagun gutun horiek, estiloari nahiz eskuizkribuari berari dagokienez, lehenago goizeko egunkarira bidali zirenekin, Mennais-en erruduntasuna hain gogor azpimarratzen zuten haiekin. Eta, hori guztia egin ondoren, aldera ditzagun osterako gutun horiek guztiak ofizialak berak idatzitakoekin. Saia gaitezen, Madame Deluc-i eta haren mutikoei behin eta berriz galderak eginez, eta baita omnibusaren gidariari ere, Valence-ri, “gizon azal-ilun” horren itxura

fisikoaz eta jokamoldeaz beste zerbait jakiten. Galdeketak, trebetasunez eginez gero, nahitaez eskainiko digu, puntu jakin honen (edo besteren) inguruko informazioa, erantzuleek berek badakitelatela agian konturatu ere ez direna. Eta ondoren gabarrazainak ekainaren hogeita biko astelehenean hartu zuen txaluparen arrastoen bila abiatuko gara, bertako langileek haren berri jakin gabe atera baitzuten txalupa hori gordetegitik, eta *lemarik gabe*, gorpua aurkitu aurreko uneren batean. Behar bezalako arduraz eta pazientziaz jokutzen badugu, nahitaez aurkituko dugu txalupa hori; izan ere, hartu zuen gabarrazainak ezagutu dezake, eta, horrez gainera, *eskura dago lema*. Errudun sentitzen ez denak *bela ontzi* baten lema ez zuen besterik gabe galduko. Eta eten labur bat egingo dut hemen, galdera bat egiteko. Ez zen *iragarri* txalupa hori hartuko zenik. Ezkutuka hartu zuten gabarren gordetegitik, eta ezkutuka eramán zuten. Baina jabeak edo patroiak, abisurik izan ez bazuen, *nolaz jakin zezakeen* astearte goizerako non hartu zen astelehenean txalupa, ez bada pertsona horrek loturaren bat duelako *itsas armadarekin*, gauzarik

txikienak, herriko albisterik xumeenak, jakinarazten dizkion harreman ohikoa?

»Bere zama ibai ertzera arrastaka daraman hiltzaile bakartiaz mintzatu naizenean, esan dut litekeena dela *txalupa batez* baliatu izana. Hala, pentsa genezake Marie Rogêt txalupa batetik *bota zutela* uretara. Hala gertatuko zen noski, nekez utziko baitzuten gorpua ibaiertzeko ur sakontasunik gabeetan. Biktimaren bizkarreko eta sorbaldetako marka berezi horiek txalupa baten hondoko egurrak gogorarazten dituzte. Gorpua zamarik gabe aurkitu izana orobat da ideia horren aldeko. Ibai ertzetik bota balute, zama erantsiko zioten. Zamaren falta esplikatze-ko argudio bakarra dago, hots, hiltzaileari ez zitzaiola bururatu zamaren bat izan behar zuela eskura gorpua uretara bota baino lehen. Gorpua uretara jaurtikitzeko unean, konturatuko zen noski bere arduragabetasunaz; baina orduan ez zuen erremediorik. Edozein arrisku hobea zen ertz madarikatura itzultzea baino. Bere zama beldurgarritik libratu ondoren, abiadan joango zen hiltzailea hirira. Han lehorreratuko zen, portuko etxola ilunen batean. Baina txalupa ordea...

lotuta utziko al zuen? Larriegi ibiliko zen txalupa lotzen-eta hasteko. Areago, baldin portuan lotzen bazuen, bere buruaren kontrako froga ari zela han jartzen irudituko zitzaion. Hura lehenbailehen begi bistatik kentzea izango zen barrutik etorriko zitzaion gogoia, alegia, krimenarekin zerikusia zuen gauza oro ahalik eta urrutiena eramatea. Portutik ihes egin nahi zuen, baina erotuta ere ez zuen *txalupa* han utziko. Bere gisara joaten utziko zuen seguraski... Jarrai diezaiogun irudimenari. Biharamunean, izu-laborri ezin eramanezkoak hartuko zuen gizon doilor hori, ikusi zuenean txalupa hartu egin zutela, eta bera egunero joaten den leku batera eraman zutela: eginbeharrek, agian, maiz daramaten leku berera. Hurrengo gauean, *lemaz galde egi-tera ausartu ere gabe*, txalupa hartzen du. *Non dago* ordea txalupa lemagabe hori? Horixe da aurkitu behar dugun lehen gauza. Txalupari buruzko aurreneko datua izango da gure arrakastaren abiapuntua. Txalupa horrek gidatuko gaitu, txunditurik utziko gaituen lastertasunaz, zorigaitzoko igande gau hartan erabili zuenaren-

gana. Erantzuna erantzunaren atzetik etorriko da, eta horrela aurkituko dugu hiltzailea».

(Honaino iritsita, zehaztuko ez ditugun arrazoiak direla-eta —irakurle askori agerikoak irudituko zaizkiola segur gaude ordea—, eskuetan dugun eskuizkributik, Dupinek lortutako harimutur itxuraz meheari *jarraitzen zaien* xehetasunen parte ez argitaratzen ausartu gara. Komenigarria iruditu zaigu ordea labor adieraztea lortu zela desiratzen zen emaitza, eta orobat iruditu zaigu gauza egokia azpimarratzea zintzo-zintzo bete zituela Prefekturak, gogo handirik gabe ordea, Dupin jaunarekin egindako itunaren puntuak. Ondorengo hitz hauekin amaitzen da Poe jaunaren artikulua. *Zuzendariak*):

Ulertuko da noski kointzidentziaz mintzatzen naizela, *eta ez bestez*. Nahikoa behar dute gai honi buruz lehen esan ditudanak. Bihotzean ez dut nik federik naturaz gaindikoan. Izadia eta haren Jainkoa bi direla, horrelakorik ez du ukatuko pentsatzen duen gizonak. Bigarrenak, Harekek sortua baita, bere nahierara mendera edo alda dezakeela aurrenekoa, hori ere ezin eztabaidatuzko gauza da. “Bere nahierara” esan dut;

zeren borondateari baitagokio auzia, eta ez, logikaren eroak erabaki duen bezala, botereari. Kontua ez da Jainkoak ezin dituela bere legeak aldatu, baizik eta irain egiten diogula aldaketaren beharra bururatzen zaigunean. Lege horiek, jatorrian, Etorkizunean *izan daitekeen* gertakizunak *oro* agertzeko moldatu ziren. Jainkoarekin, dena da *Orain*.

Berriz diot, beraz, kointzidentzia direlakoan, ez bestela, mintzatzeko naizela gauza hauen gainean. Eta areago; ikusiko da kontatzen dudan honetan parez pare joan direla Mary Cecilia Rogers zoritxarrekoaren patua —patu hori ezagutzen deneraino— eta, bere historiaren une jakin bat arte, Marie Rogêt harena; eta parekotasun horren zehatza hain da zoragarria non aztoratu ere egiten baita arrazoimena. Hori guztia ikusiko dela diot. Baina ez dadila une batez ere pentsatu, aipatu den une horretatik aurrera istorio triste hau kontatzen jarraitu eta inguratu duen misterioaren askabideraino iristean, parekotasuna luzatzeko asmo ezkutua dudarik; orobat, ez dut hemen adierazi nahi *grisette* baten hiltzailea aurkitzeko Parisen hartu ziren neurriek,

edo antzeko arrazoibideetan oinarrituriko edozein neurrik, antzeko emaitzarik ekarriko zutenik.

Zeren, ideia horren bigarren parteari dagokionez, kontuan hartu beharko bailitzateke kasubatean zein bestean gerta zitezkeen aldaketa txikienak ere kalkulu guztiz okerrak ekarriko lituzkeela, gertaeren bideak elkarrengandik guztiz aldentzeko lituzketenak; hain zuzen ere, aritmetikan bezalaxe, berez eta bere horretan hutsala izan daitekeen errakuntza batek, sorbaitzake luzarora, prozesuaren puntu guztietan biderkatuz, egiatik oso urruti dagoen emaitza. Eta, lehen parteari dagokionez, ezin dugu bistatik galdu aipatu berri dudana Probabilitateen Kalkuluak debekatu egiten duela parekotasunaren luzatzearen ideia oro: parekotasun hori egin eta zehaztu den bezala, proportzio berean debekatzeko du zabaltzea, sendotasun erabakigarriaz. Proposizio bitxi bat da hau, matematikaren alorretik kanpo dagoen pentsamolde batera garatuz ematen duen arren, osorik matematika-riaren adimenak bakarrik uler dezakeen horietakoa. Gauza zailagorik ez dago, adibidez, irakurle

arrunta konbentzitzea baino dadoetan dabilen batek bi sei elkarren ondotik ateratzea aski arrazoi dela apustu egiteko, ziurtasun osoz, ezetz atera seia hirugarren saioan. Adimenak berehala baztertzen ditu era horretako iradokizunak. Ez da onartzen eginak diren bi botaldik eraginik izan dezaketela etorkizunean baino existitzen ez diren botaldien gainean. Seia ateratzeko aukerak beste edozein bezalakoxea dirudi, alegia, huts-hutsik dadoekin egin daitezkeen beste botaldien eraginaren mendekoa. Eta iritzi hori hain dago zabaldua, non kontra egiteko saioak sarriago hartzen baitira mezprezuzko irribarre batez errespetuzko arretaz baino. Hor dagoen errakuntza —kaltegarria ere izan daitekeen errakuntza handia—, ez naiz saiatuko lan honek dituen mugen barruan agertzen; eta filosofiaz ezer ere dakienak ez du esplikazioen beharrik. Askiz izan bedi esatea, Arrazoiak egia *xehetasunetan* bilatzeko duen joeraren bidean sortzen diren hutsegite kontaezin horietako bat baizik ez dela errakuntza hori.